

berria Igandea

Garoñako zentral
nuklearraren
eraikina. OLIARTOLA



Neurtua izan nahi duen eraistea

2 Garoñako zentral nuklearra 2012an itxi zuten. Espainiako Gobernuak uztailean eman zuen hura eraisteko baimena, eta 2033. urtean amaituko dira lanak.

Isabel Herguera. «Ez bagara gai amets egiteko, ez gara gai ingurua hobetzeko» **21**

Osasuna

«Murrizketak eta pribatizazioa» salatu dituzte Bilbon, Donostian eta Gasteizen

7

Palestina

Arabiar Ligak eta OICK berehalako menia eskatu dute; Gazako ospitalerik handienari erasotzen ari da Israel

13

Mizel Theret

«Enetako, dantzaren funtzioa da publikoaren irudimena piztea, hori bakarrik»

Elkarrizketa • 38

bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus

-REKIN BAI!

- Baretz mantentze-lan profesionalari
- Baretz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baretz gurrezteari mantentze fakturan
- Baretz bertako hornitzaileei

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

ARABA	BIZKAIA
945 71 822	948 523 935
GIPUZKOA	NAFARRRIA
943 903 450	848 870 917

HUSTEKO ETA ERAISTEKO GARAIA

Garoñako zentral nuklearraren instalazioetara sartu da BERRIA, eraiste lanak bertatik bertara ezagutzeko. Enresa enpresak kudeatuko ditu lanak eta hamar urtez luzatuko dira. Erradioaktibitate handiko erregaiak ur biltegitik ateratzen eta behin-behineko biltegi batean gordetzen hasi dira.

Edure Begiristain
Santa Maria de Garoña

Ebro ibaiak zeharkatzen ditu Sobrongo (Araba) haitzarte ikusgarrien arteko errepide estu eta bihurriak, eta, horiek igarota, berehala ikus daitezke Tobalina haraneko (Burgos, Espainia) paraje ederra apurtzen duten hormigoizko eraikin erraldoia eta tximinia altua. Arabatik kilometro eskasera dago Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra, 1971n inauguratu zuten, eta geldirik dago 2012 amaieran Nuclenor enpresak itzali zuenetik. Espainiako Gobernuak uztailean erabaki zuen zentral nuklearraren eraistea abiatzea, eta haren ziklo-ari amaiera ematea.

Autoa aparkalekuan uzten denetik bertatik argi dago tokia berezia dela. Zentralaren segurtasun neurriak zorrotzak dira, oso: hesi garaiz inguratuta dago, arantzazko alanbreak ez dira falta, eta kamerak nonahi ikus daitezke. Bertara sartzeko arauak ere heretsiak dira. Hainbat baimen eta debeku orri sinatu behar dira, eta kasko, zapata, betaurreko eta txaleko bereziak jantzi. Tornu eta segurtasun kontrol zorrotzak atzean utzita, Santa Maria de Garoñako zentralera sartu da BERRIA. Zentral nuklearraren huste eta eraiste prozesua bertatik bertara ikusiko du kazeta honek.

Nuclenorrek 2012ko abenduaren 16an itzali zuen behin betiko zentral nuklearra, baina barrura sartuta, iduri du denbora askoz lehenago izoztu zela. 1970eko hamarkadako estetika *kitsch*-a darie txoko guztiei: hormetan paratutako afixei, oraindik era-

bilgarri dauden aparatu zaharkitu batzuei, eta iraganeko diseinu futurista duten altzariei.

Zentralaren kontrol gela adibide argia da. Panel handi berde argi batean palanka, ezin deszifratuzko botoi eta argitxo sistema bat dago; horietako asko jada ez daude erabilgarri, eta, horregatik, antzeko koloreko xafra batzuekin estali dituzte. Oraindik, baina, erreaktorea babestea ahalbidetzen duen segurtasun sistema konplexu guztiak eta hozte zirkuitua kontrolatzeko gailuak martxan dituzte. Zentrala martxan zegoenean, lau pertsonak egiten zuten lan kontrol gelan. Orain, bik. Baina bi horiek esku artean duten zeregina ez dela nolalahikoa argi utzi nahi izan du gelako ardura duen langile batek: «Deseraikitze lanekin oraindik asko dugu egiteko».


Enresa enpresa publikoak hartu du Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra eraisteko ardura. Bi fasetan egingo dute prozesua, eta lanek hamar urte irautea aurreikusten dute, 2033. urtera arte. Eraisketa nolakoa izango den ulertzeko argibideak eman dituzte Manuel Ondaro eta Oscar Gonzalez Enresako arduradunek. Lehen faseak 2026ra arte iraungo du: turbinaren eraikinaren egiturak eta osagaiak deseraikiko dituzte, eta, bertako hondakinak kudeatu ahal izateko, hainbat instalazio moldatuko dituzte. Lehen fase honetan, gainera, erregai erradioaktiboa ur biltegitik atera eta han bertan eraiki duten «behin-behineko biltegi» batera mugituko dute.

Bigarren faseak 2026tik 2033ra arte iraungo du: behin erregaia aterata, «eraikin erradiologikoa» desmuntatuko dituzte, kutsadura kendu eta ingurua «lehenertuko» dute.



Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra, Burgosen (Espainia). SANTI OTERO / EFE

Garoñako zentralaren eraistea Instalazioetarako bisita



Garoñako zentral nuklearraren kontrol gela. RAUL BOGAJO/FOKU

«Zentralaren ziklo operatiboa amaitzea dagokigu». Garoñako eraisketa prozesuaren arduradun nagusia da Ondaro, eta era ulertezaz batean azaldu du nola deseraikitzen den zentral nuklear bat. «Auto bat fabrikatik atera, erabili eta hondatzen denean, ez dugu zabortege batera eramaten, ezta? Zentral nuklear batekin gauza bera gertatzen da. Arau batzuk errespetatu behar ditugu, eta bereziki kontu handiz egin behar dugu, arrisku erradioaktiboa dagoelako».

Garoñako zentrala eraisteko prozesua «segurua» izango dela behin baino gehiagotan azpimarratu dute Ondarok eta Gonzalezek. Kontatu dute deseraikitze lanetan segurtasuna bermatzea dutela helbururik behinena: «Langileen segurtasuna, ingurumenaren zaintza... Interferentziarik gabeko segurtasuna bermatzea da gure lehentasun bakarra, beste edozein helbururen gainetik», zehaztu du Gonzalezek.

Uranioa atera eta gorde

Kanpotik hormigoizko kubo hertsia da zentralaren eraikin nagusia. Barrutik, baina, oso bestelako itxura du: lau solairutan banaturik dago, eta, tutu nahaspila duten korridore luze eta labirintikoak igarota, eskusa astunak ireki behar dira toki batetik bestera igarotzeko. Zentraletik ibiltzeko, erradiazio maila neurtzen duen dosimetro bat eraman behar da une oro. Gailua kode baten bidez lotzen zaio bisitariari, eta ohiz kanpoko erradiazio maila jasotzeko, abisatu egiten du. «Dosia behar baino handiagoa balitz»,

alarma batek joko lukeela azaldu du Gonzalezek. Kazetarion kezka aurpegiak ikusita, lasaitasun mezua eman du segidan: «TAC bat egiten digutenean jasotzen dugun erradiazioa hemen urteak lan egiten jasotzen duguna baino askoz handiago da».

Biatetzar astun igaro behar dira erreaktorea dagoen eraikinera igarotzeko. Zentralean segurtasun neurri hertsienak dituen gunea da, eta, hargatik, IAEA Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziaren kamerek urtean 365 egunez zainduta dago. Eraisketaren ardura duen Enresa enpresako langileek esku artean duten erronkarik handiena bertan dago. Erakinaren goiko aldean, nukleoaren eskuinaldean, 11 metro sakon den ur biltegia dago. Bertan, ur azpian murgildurik, Garoñako zentrala martxan jarri zenetik erabili den erradioaktibitate handiko erregeia dago: 2.453 elementu erradioaktibo, hain zuzen ere. Elementu bakoitza lau metro luze da, eta 270 kilo pisatzen du. Banan-banan aterako dituzte erregeia erradioaktibo denak edukiontzi berezietan- dagoeneko 52 erregeia atera dituzte- zentralaren ondoko orube batean eraiki duten behin-behineko biltegia eramateko. Denera, 49 edukiontzi paratuko dituzte han, eta, oraingoz, bakarra eraman dute.

Uranioa duten 2.453 elementu erradioaktibo daude ur biltegian, eta edukiontzi berezietan sartuko dituzte

Zentrala eraisten 20.500 tona hondakin sortuko dira, eta horietako %20 izango dira erradioaktiboak

Ur biltegiaren ondoan jarraitu du azalpenak ematen Ondarok. Kontatu du erregeia erradioaktiboa ateratzea «prozesu konplexua» dela, «tentu handiz» egin beharrekoa. Izan ere, uranioa da urtegitik kontainerretan ateratzen ari direna. Garoñako zentral nuklearraren barruan 400 tona uranio inguru dago. Edukiontzi bakoitzak bi aste inguru behar ditu erregeia urtegitik atera eta biltegia eramateko. Kalkulatzen dute 2026. urte amaierarako erregeia guztia egotea behin-behineko biltegian.

Garabi erraldoi batekin mugitzen dituzte edukiontziak toki batetik bestera. Horizontalki sartzen dituzte erreaktorea dagoen instalaziora, eta lurtean margotutako gezi gorri eta urdin batzuek markatzen duten biderei

jarraituta doaz uretara. «Ur biltegia doazen edukiontziak hemendik eramaten dituzte», esplikatu hasi da Ondaro. Tuntu handiz egiten dela eta prozesu hori zaintza erradiologiko «zorrotz baten menpe» dagoela gaineratu du.

Ur biltegiaren albo batean dagoen gailu bat seinatu du gero Gonzalezek, azalpenekin jarraitzeko. Alpha/Beta Air Monitor izena duen gailu elektronikoa zaharrari begira, zera esan du: «Ekipa honek edozein intzidentzia atzematen badu airean, baita erradiazio mailarik txikiena ere, alarma pizten da». Gastatutako erregeia daramaten edukiontziak ere segurtasun neurri zorrotzak dituztela erantsi du Ondarok. Eta berriro erakutsi dituzte lurrean margotutako geziak, kasu honetan instalazioetatik kanpora doazenak. Azaldu du edukiontziak biltegia eraman aurretik kutsadura kentzen dietela, eta horretarako bi pauso egiten dituztela: lehortu egiten dituztela eta helioz egindako atmosfera geldo bat sortzen dutela barruko erregeiak narriatu ez daitezela.

%20 erradioaktiboak

Lehen fase honetan, ur biltegia hustu eta kutsadura kenduko diote zentralaren eremu erradiologikoari, eta turbinaren eraikinaren osagaiak deseraikiko dituzte. Tur-

bina dagoen instalazioa hondakinak desklasifikatzeko gune bilakatzea da asmoa. Pabiloi erraldoi bat da, eta hor materialak zatitu egingo dituzte desklasifikatu eta prozesatu aurretik. Eraispenean 20.500 tona hondakin sortuko direla kalkulatu dute, baina denak


ez dira erradioaktiboak izango, argitu du Gonzalezek: «Hondakinen %20 soilik dira erradioaktiboak». Nolanahi ere, zentralaren hustuketatik sortutako hondakin guzti-guztien erradiazio maila egiazta beharko dute: «Zentral honetan dagoen guztia kontrolpean izan behar dugu: eraikinak, hormak, blindajeak... Kilo bakoitzaren baldintza erradiologikoak dokumentatuak eta egiaztatutak izan behar ditugu».

Erradioaktiboak diren hondakin gehienak maila txiki edo ertainekoak izango dira, eta horiek Cordobako (Espainia) El Cabril hilerri nuklearrera eramango dituzte. Garoñako zentralaren turbinak, esaterako, erradioaktibitate txikiko hondakintzat jotzen dute

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Garonoako zentralaren eraistea
Instalazioetarako bisita

1 Ur biltegia. 1971tik 2012ra arte martxan egon zen Garonoako zentral nuklearra, eta hark erabilitako erregaia ur biltegiaren gordeta dago. Horiek dira zentralak sortutako erradioaktibitate handiko hondakinak. RAUL BOGAJO / FOKU



2 Behin-behineko biltegia. Haiek tokiz aldatzea eta gordetzea da eraiste prozesuaren lanik konplexuena. Ur biltegia erreaktorearen ondoan dago, eta handik 300 metrora eraikiko duten behin-behineko biltegia. ENRESA



3 Hondakinak desklasifikatzeko gunea. Zentralaren hondakinak desklasifikatzeko hainbat instalazio egokitu dituzte. 20.500 tona hondakin sortuko direla kalkulatu dute, eta horietatik %20 erradioaktiboak izango direla. RAUL BOGAJO / FOKU



4 El Cabril hilerri nuklearra. Erradioaktibitate txikiagoko hondakinak —5.900 metro kubo txiki-ertainekoak, eta 7500 oso txikiak— Cordoban eraiki duten El Cabril hilerri nuklearrera eramango dituzte. Hondakinak bidaietan eramango dituzte. SALAS / EFE



(Aurreko orrialdetik dator)

eta hara eramango dute, kamioetan, edukiontzi txikietan sarturik. Oraindik ez dute halako hondakin bertara eraman.

Erradioaktibitate handiko erregaia, berriz, 300 metrora dagoen biltegiaren gordetzen hasi dira. Hondakin horiek behin-behinean izango dituzte hor, baina hori zenbat urte izango den ez dute zehaztu. «2073rako espero

dugu sakoneko biltegi geologikoa eginda egotea, eta orduan hara eramango genituzke», zehaztu du Enresako prentsa arduradun batek.

Biltegia, aire zabalean

Zentraleko eremu erradiologikoa utzi aurretik, segurtasun protokolo zorrotza igaro beharra dago berriro. Dosimetroa irakurri du makina batek—erregistratutako erradiazioa 0,0koa izan dela dio—

eta, buzoa eta gainerako jantziak aldageletan utzi, oinetakoak lurrun makina batekin garbitu eta eskuak garbitu behar dira. Erradiaziorik ez dagoela egiaztatzeko azken urratsa falta da: kapsula itxi batean sartu, besoak gora luzatu eta eskuak zulo batzuetan paratuta, segundo batzuk itxaron beharra dago, hariak eta ahots bategen atzerako kontaketa hasten duen arte: «Bost, lau, hiru, bi, bat...Garbi!».

Erradioaktibitate handiko erregaia gordeko duten biltegiara joateko dosimetroa ere eraman behar da. Biltegia aire zabalean dago, hesiez inguratutik eta kamerekin zainduta. Hektarea bat baino gutxiagoko zabalera du, eta bost edukiontzi baino ez daude: lau hutsik, eta bestea beteta. Biltegia bi harlauza sismikoen gainean eraikita dago, eta urte osoan IAEAK zaintzen du sistema sofistikatu baten bitartez.

Bisita amaitzean da, baina azken argibideak eman ditu Ondarok. «Zentrala hustu ondoren botako dituzte eraikinak eta tximinia, baina nola?», galdetu du kazetariak. «Kirurgia ebakuntza hutsa izango da», erantzun du. Ez dutela lehergairik erabiliko argitu du: «Diamante hostozko zerra batekin moztuko ditugu instalazio gehienak. Zentral nuklearra zatitxoetan ebakiko dugu».

Garoiako zentralaren
eraistea
Elkarrizketa

«Hondakinak lurperatzea ez da irtenbide perfektua, baina ez dago besterik»

Francisco Castejon • CSNko kontseilaria

Hondakin nuklearren kudeaketan aditua da Castejon, CSNko kontseilari izateaz gain. Garoiako hondakinaren eraiste prozesutik asko ikasiko dela uste du, ur irakinezko zentral nuklearra baita hura.

Iñaki Petzarroman

Japoniako bisita batean izan da aste honetan Francisco Castejon (Zaragoza, Espainia, 1961), babes erradiologikorako nazioarteko batzordearen (ICRP) konferentzia batean. Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluko (CSN) kide da 2019tik. CEMATeko fusio ikertzaile izana, hondakin nuklearren kudeaketan aditua da. Arlo nuklearrean lan egin du Frantzia eta Ukrainan. Podemosek proposatu zuen CSNko kontseilari izateko, aurreko agintaldian, eta lehen eskutik ari da aztertzen Espainiako Estatuko zentral nuklearrak eraisteko prozesuak, besteak beste, Garoiako zentralarena.

Zer aldatu da hondakin erradioaktiboen kudeaketan CSNn sartu zinetik?

Hondakin Erradioaktiboen 7. Plana onartu du gobernuak. Hori da berritasun nagusia. Orain arte Hondakin Erradioaktiboen 6. Plana zegoen indarrean, 2006tik, eta, teoriarik, nazioarteko praktika onen arabera, planak lau urtean behin berritu beharko lirateke. Pentsa zenbat urte pasatu diren berritu gabe.

Zer berritasun dauka 7. planak? Ezaugarri nagusia da zentralizatutako behin-behineko biltegia egiteko plana ezabatutako duela. Orain, zentral nuklear bakoitzaren ondoan eraikiko da erradioaktibitate handiko hondakinak biltzeko gune bat, behin-behinean, eta, handik, zuzenean, lur azpiko biltegi geologikora eramango dira. Tartean geratzen zen beste urrats hori, ulertzen zaila zena, kendu egin da.

Zer abantaila du erdiko pauso hori kentzeko?

Bada, arrisku handiko hondaki-

nak garraiatzeko bidaia asko aurreratzeko ditugula, eta, gainera, badakigu instalazio hori gatazka iturri handi izango litzatekeela edozein lekutan. Bide batez, dirua aurreratzeko da, eraikuntza egin gabe. Arazoa da 7. plana oraindik ez dela onartu, ministroen kontseiluak oraindik ez diolako oniritzia eman. Beraz, gobernu bat osatu arte itxaron egin beharko du.

Hondakin erradioaktiboen kudeaketan, zerbait birziklatzea litzateke onena. Zerbait aurreratu da horretan azken urteotan?

Herrialde batzuetan birprozesatzea egiten dute. Hau da, erregai nuklearraren zati bat atera eta berriaz erabili jardueran nuklearreko errektuntzan. Frantzia, adibidez, hori egiten dute. Espainian sekula ez da halakorik egin. Zergatik? Badauzkalako arazoak. Hasteko, bi erabilerrako teknologia da: militarra eta zibila. Eta, horrez gain,

«Teknologia ezberdinekoa izanik, hondakinak ere ezberdinak dira; beraz, eraistea ere hala izango da»

kutsaduraz arazo handiak dakartzalako. Ez dut ikusten nazioartean esperientzia positibo handirik birprozesatzea arrakastatsua dela ondorioztatzen.

Garoiaren kasuan, zer berritasun izango du hango hondakinaren kudeaketak? Zer ikas daiteke hango esperientziatik?

Garoiak da geratu eta eraiste prozesua hasi duen hirugarren zentral nuklearra Espainian. Alabaina, aurrekoekin alderatuta, Garoiako teknologia ezberdina da, eta horrek aukera emango du beste esperientzia eta teknika bat ikasteko. Ur irakinezko zentrala da Garoiak, eta ezberdina da oso

ur presiozkoen aldean. Teknologia ezberdinak izanik, hondakinak sortzeko moduak ere oso ezberdinak dira. Beraz, eraiste prozesua ezberdina izango da ere orain arte egindakoekin alderatuta. Horrek Enresa enpresa publikoari aukera emango dio beste teknika batzuk garatzeko eta prozesu horretan ikasteko. Jada ari dira horretan; adibidez, zentralaren kopia digital bat egin dugu, hiru dimentsioko plano bat, eta gune bakoitzeko erradioaktibitate mailaren berri izateko aukera emango du horrek.

Ingurumen arazo itzela izateaz gain, arazo ekonomikoa ere badakar hondakin nuklearren kudeaketak. Nor hartu behar du bere gain gastu hori?

2004ra arte argindarraren fakturarekin lotuta zegoen kudeaketa hauen kostuaren zati bat, eta denok ordaintzen genuen. 2005etik aurrera, Europako Batasunak behartuta, kanon bat ezartzen hasi zen argindarraren fakturaren gainean. Izan ere, ez zuten ondo ikusten herritarrek ordaintzea enpresei zegokien kontu bat. 2006an eraistea ere aintzat hartu zen, eta ikusi zen ezarritako zegoen kanonaren bidez bakarrik ez zela estaliko gastu guztia. 3.000 milioi eurotik gora behar zirelako. Ezkerreko gobernuak (PSOE-Podemosek) heldu zenean, erabaki zuen zergak igotzea, eta horrek aurretik zetorren joera areagotu zuen. 7. planean, jatorri nuklearreko orduko kilowattari zerga bat ezarri zaio, eta horrekin ordainduko lirateke 7. planean aurreikusitako kudeaketaren urrats guztiak: behin-behineko biltegi indibidualizatuak eta lur azpiko biltegi geologikoa. Azken horren ondorengo gestioak



EMILIO NARANJO / EFE

zenbateko gastua izango duen ez dago jakiterik, baina bai, behintzat, eraikuntzak eta martxan jartzeak.

Lur azpiko biltegi horrek zalan-tza ugari sortzen ditu. Zer ondoriozta dezakegu munduan daudden esperientziatik?

Finlandian biltegi bat egina dute jadanik, eta martxan jarriko dute datorren urtean. Frantzia beste bat eraikitzen ari dira, eta, horren barruan, 500 metroko sakoneran laborategi bat prest dago jadanik. Beraz, nazioartean kontsentsu bat lortzen ari da gai honen inguruan. Ez da irtenbide perfektua, baina ez dago besterik. Beraz, uste dut Espainian berdin bukatuko dugula: halako bat eraikiko da tokiren batean.

Ezgonkortasun geologikoa da azpiegitura hauetan kaltea eragin dezaketan faktoreetako bat. Klima aldaketak horretan ere izan dezake eraginik, ezta?

Bai, zeren klima aldaketak lur azpiko uren sistema eralda baitezake. Egiten ari diren ikerketetan jadanik aintzat hartzen ari dira fenomeno hori; esate baterako, aurrez egon diren berezko klima aldaketetan izan diren ur sistemen

mugimenduen berri jakiteko. Orduan, jakinez gero lekuren batean izan dela antzeko fenomenorik iraganen, bada, nahiko arrazoiak litzateke kokaleku hori bat baztertzeko.

Klima aldaketa dena baldintzatzen ari da. Batzuek ez al dute energia nuklearra berreskuratzeko asmoa, hura aitzakiatzat hartuta?

Nazioartean iritzi ezberdin asko dago gai honen inguruan. Espainian berriztagarrien aldeko apustua egin da. Frantzia, berriz, energia nuklearra hauspotzeko asmoa dute. Eztabaida horretan faktore askok dute pisua: hondakinaren kudeaketak, arlo zibilaren eta militarren arteko loturak, herrialdearen historiak... Espainian debatea da gehiago zenbaterako iraupena izan behar duten zentral horiek. Oraingoan, PSOEk 2035erako zentral guztiak itxieran aldeko apustua egin du, eta PPK esan du gehiago luzatuko duela dauden zentralen bizitza. Jakina, horrek handitu egingo luke hondakinaren kopurua. Gogoratu behar da herritarrak beti azaldu direla energia nuklearraren aurka Espainian.

**Garoiako zentralaren eraistea**
Eragileen erreakzioak

Zentralaren eraisketa prozesuarekin uzkur dira inguruko herrietan; besteak beste, ez dutelako informazio nahikorik. Eskualdearen etorkizun ekonomikoak kezkatzen du AMAC elkarteak.

Ezinegona eta zalantza ugari

Eduarne Begiristain

Garoiako zentral nuklearraren inguruan galdetuz gero, kezka da inguruko herrietako bizilagunek gehien erabiltzen duten hitza. Lau hamar-kada luzeetan ezinegona eragin die energia nuklearra ekoizti duen zentrala etxetik kilometro gutxira izateak. Eta, zentrala itxita, eraisketa prozesuaren inguruko «gardentasunik ezak» eta hondakin errektiboen behin-behineko biltegia Garoñan bertan eraikitzeak eragiten die orain ezinegona.

Zentrala itxi eta eraisteko prozesuari baimena eman ostean, Espainiako Gobernuko Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak 27 udalerrri sartu zituen zentralaren eragin eremuan. Horietako hiru Araban daude: Gaubea, Lantarona eta Erriberabeitia; gainerakoak Burgosen (Espainia), Tobalinako ibarrean. Besteak beste, eskualdeak biziberritzeko diru laguntzak jasotzen ari dira udalerririk.

Gaubeako udalerrria osatzen duten herrietako bat da Espejo. Garoiako zentralatik 14 kilometro eskasera dago lerro zuzenean -22 kilometro errepidetik joanez gero-, eta gertutasun horrek beti eragin die artetasuna herriarrei. Eta kezka. «Arriskua etxe ondoan izatea bada arduratuta egoteko motibo». Juan Carlos Lopez EH Bilduko zinegotzia da Gaubeako Udalean, eta hamabost urte daramatza Espejoen bizitzeko. «Ezinegona» nagusi da Garoñatik gertu bizi diren herritar askorengan: «Beti esan digute zentrala segurua zela, baina badakigu zer arrisku dituen, batez ere segurtasunari eta ingurumenari dagokienez».

Orain «kezka» dena lehen «beldurra» zela aitortu du Lope-

zek. «Zerbait gerta zitekeenaren beldur ginen». Istripu nuklear baten arriskua oso presente izan dute beti Garoña inguruan bizi direnek, zentralaren jabeek urtetan segurtasun eta lasaitasun mezuak zabaldu dituzten arren. «Ebakuzio planak izanda ere, guk beti izan dugu argi istripu bat egon izan balitz ez genuela aterabiderik, ez genuela zer eginik».

Nuclenor enpresak 2012an Garoña ixteko erabakia hartu zuenean sentimendu «kontrajarriak» izan zituela aitortu du Espejoko bizilagunak. Azaldu du batetik «laseraitua» hartu zuela, behin betiko zarratua egongo zelako hainbeste buruhauste eman dizkien zentrala. Baina onartu du aldi berean «etsipen sentipena» ere izan zuela, itxiera ez zelako etorri euskal erakunde eta gizarte mugimendu askoren borrokagatik, baizik eta Iberdrolarentzat eta Endesarentzat «errentagarri» ez zelako.

Informazioa, tantaka

Zentrala hetsirik, bestelakoak dira kezkek orain herritarrentzat, Lopezen iritziak. Garoiako zentralaren eragin eremuan egonik, lehen eskuko informazioa eskuratu beharko lukete Arabako hiru udalerririk, baina ez da horrela izaten ari: «Egunkarietan agertzen den informazioa da daukagun apurra». Dioenez, udalbatzaren ere xehetasunik ez dute eraisketa prozesuaz eta zentralak sortutako erradioaktibitate handiko hondakinak gordetzeko biltegiez.

Zalantzak eta galderak. Garoñako zentralaren eraisketa prozesuari buruz biak ala biak dituzte inguruko herritarrek. «Informazioa eta gardentasunik eza» dagoela salatu du Ainhoa Mayo Lantarongo bizilagunak. Herririk 25 kilometrorara dute zentral nuklearra, baina eraisketa prozesuaz duten informazioa «urrun» sumatzen dute. «Informazio falta

**Garoiako zentral nuklearretik gertu dago Lantarongo udalerrria (Araba).** JUANAN RUIZ/FOKU

izugarria da. Ez dakigu zertan ari diren».

Hondakin nuklearrak behin-behineko biltegiatan gordetzeko prozesuaz «iluntasuna» dagoela iritzi dio, eta azaldu du horrek «beldurra» eragin duela Lantarongo bizilagunen artean. Hondakin horiek noiz arte egongo diren hor kezkatzen dute batez ere. «Zenbat urtez egongo dira behin-behinean? Auskalo!».

Omeçillo ibaiak zeharkatzen du Lantarongo udalerrria, eta horako uretan isuri erradioaktiboak egon daitezkeen beldur dira herritarrak. «Noski kezkatzen gaituela; gure baratzeak eta landek ibai horretatik edaten dute», erantsi du Mayoek.

Lopezek ere badu behin-behineko biltegiaren inguruko kezka. Garoiako zentralako eta Enresako arduradunekin noiz edo noiz batzartu egiten dira inguruko udaletako ordezkariek, baina iritzi dio jasotzen duten informazioa ez dela aski. Erradioaktibitate txikiko hondakinak Cordobako (Espainia) Albarramak mendikatean eraiki duten El Cabril hilerri nuklearrera eramango dituzte, eta salatu dute horri buruz ere «isiltasuna» dela nagusi: «Baina nola egingo dute? Eta noiz? Non eramango dituzte?».

Irmo mintzo da Idoia Louzao Espejoko bizilaguna ere informazio gabeziak, eta tabu hitza erabili du Garoñaz hitz egitekoan. «Herriko jendearentzat Garoña beti izan da tabu bat, ez delako inoiz argi hitz egin arriskuez, eta orain ez daudelako informazioa gardentasunez ematen ari».

Irekita ala itxita, Louzako uste

du arriskua ez dela desagertu. Eta gauza bera gertatzen dela zentralaren jarduerari lotutako lanpostuekin: «Han lan egiten dutenek edo lan egin dutenek ere ongi dakite zer arriskutsua den».



Ebakuzio planak izanda ere, guk beti izan dugu argi istripu bat gertatu izan balitz ez genuela aterabiderik»

Juan Carlos Lopez
Espejoko bizilaguna

«Lantaronen badugu nahikoa industria, eta hobe genuke diru hori ez balego, zentralak ez baitigu ezer onik ekarri»

Ainhoa Mayo
Lantarongo bizilaguna

«Herrikoentzat Garoña beti izan da tabu bat, ez delako inoiz arriskuez argi hitz egin. Orain ez dago informazioirik»

Idoia Louzao
Espejoko bizilaguna

«Ez da samurra izango eskualdea ekonomikoki biziberritzea, ez baitu azpiegitura nahikorik enpresak erakartzeko»

Pedro Sanchez Yebra
AMACeko presidentea

Espejoko herritarrak uste du herritar gehienek begi onez ikusten dutela zentral nuklearraren eragin eremuan egoteagatik udalerririk diru bat jasotzea, baina iritzi dio txanponaren ifrentzua ez

dutela ongi ezagutzen: «Izan ere, diru kopurua zentralarekiko distantziak eta arrisku mailak baldintzatuta dago». Udalek jasotzen duten diruaz itaunduta, argi erantzun du Mayoek: «Dirua? Ez dugu behar. Lantaronen badugu nahikoa industria. Eta hobe genuke diru hori ez balego, zentralak ez baitigu ezer onik ekarri».

AMAC, itxaropentsu

Ezin uka daiteke, hala ere, Garoñako zentralak zuzeneko eta zeharkako enpleguak sortu dituela inguruko herrietan-batez ere Tobalinako ibarrean-, eta jarduera ekonomikoa, neurri handi batean, zentralari lotua egon dela. Eraisketa prozesua ere enplegua sortzeko aukera gisa ikusten du AMAC Zentral Nuklearrek Eragindako Udalen Elkarteak presidentea Pedro Sanchez Yebra, nahiz eta onartu urte batzuen buruan ezinbestekoa izango den eskualderako jarduera ekonomiko «alternatiboak» bilatzea. «Biziberritzea ez da samurra izango, izan ere eskualdea landa eremua izanik ez du azpiegitura nahikorik bestelako enpresak erakartzeko», aitortu du. Alde horretatik, Trantsizio Justurako Institutuaren bitartez proiektu berriak martxan jartzea espero du, Garoñaren inguruko herriak ekonomikoki biziberritu daitezkeen.

Zentralaren hondakin erradioaktiboek buruzko kezkei dagokienez, AMACeko presidentek esan du lan horiek «erabat seguruak» izan behar dutela, eta gai horretan «gardentasunez» jokatu behar dela, herritarrek lehen eskuko informazioa izan dezaten.

Osasun arloko «murrizketak eta pribatizazioa» salatu dituzte kalean

Manifestazioak egin dituzte Bilbon, Donostian eta Gasteizen • «Osasungintza duina» aldarrikatu dute • Herri plataformek ohartarazi dute Osakidetzaaren egoera salatzea ez dela «katastrofismoa»

Gotzon Hermosilla Bilbo

Osasungintza publikoaren aldeko herri plataformek deituta, lagun ugarik kalera jo dute Bilbon, Donostian eta Gasteizen, «osasungintza publiko, unibertsal, duin eta kalitatezkoaren alde» egiteko eta «murrizketak eta pribatizazioa» salatzeko. Alderdi, sindikatu, elkarte eta erakunde ugarik babestu dituzte deialdiak; plataformek aurkezturiko atxikimendu zerrandan ehun eragile inguru ageri dira.

Bilboko manifestazioa hasi aurretik, plataformen koordinakundeko bozeramaile Jose Ignacio Martinezek eta Mireia Saizek salatu egin dute «osasungintza publikoak eta lehen arretak pairatzen duten hondatzea», eta egoeraren erantzule egin dituzte «Eusko Jaurlaritzaren murrizketa, eraiste eta pribatizazio politikak».

«Arazo horiek salatzea ez da katastrofismoa egitea», esan zuen Martinezek, Iñigo Urkullu lehendakariak egindako adierazpenak gogoan. «Herriarrok geure larraun pairatzen dugun erreallitatea da, eta premiazko irtenbidea eman behar zaio horri».

Martinezek ustez, itxaron zerrandak laburtzeko bidea ez da pazienteak osasungintza pribaturara bideratzea: «Osasuna ez da salerosketarako gaia, eskubide unibertsala baizik. Irtenbidea ez da pribatizazioan aurrera egitea, ezpada osasungintza publikoaren indartzea eta baliabide publikoak hobeto baliatzea».

Saizek bat egin du mugimendu feministaren aldarrikapenarekin; haren ustez, «zaintza sistema publiko, integral eta unibertsala» sustatu behar da, osasungintza arloa ere aintzat hartuta: «Osakidetza publikoaren izan behar du %100ean, justizia soziala bermatzeko ardatza baita».

Manifestazioa Jesusen Bihotza plazaatik abiatu zen. Buruan, plataformen koordinakundeak sinatutako pankarta bat zihon, *Indartu dezagun Osakidetza. Diru publikoaren osasun pribaturara des-*



Bilboko manifestazioa, Jesusen Bihotza plazaatik abiatu denean. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

bideratzeari ez! leloekin, eta, atzetik, Bizkaiko herrietako plataformak, zein bere pankartarekin.

Adibidez, Barakaldoko plataformako kideek *Osasungintza publikoaren arriskuan* ohartarazten zuten pankarta bat zeramaten. *Defenda dezagun osasungintza publikoaren, murrizketarik ez alda-*

greba feminista orokorrerako deia egin zuten. Manifestazioaren bukaeran osasun arloko langileak zihoazen: alde batetik, Osakidetza Langileen Sareko kideak, Osakidetza «iruzur hitzak» salatzen zituen pankarta batekin, eta, beste aldetik, Lehen Arreta Arnasberritzen mugimenduko profesionalak.

Manifestazioa Kale Nagusiaren eta Areiltza Doktoarearen zumarkalearen arteko bidegurutzera iritsi zenean, Bizkaiko Pentsiodunen Mugimenduko kideak batu ziren, haien mugimenduko zapi gorria lepoan eta Osakidetza «larrialdian» dagoela salatzen zuten pankarta bat eskuan.

Manifestazioak Plaza Eliptikora egin zuten, eta handik, Arriagara, Kale Nagusia zeharkatuz. Ibilbide osoan ez ziren eten oihuak: «Pribatizaziorik ez», «osasungintza publikoaren», «publiko defenda dezagun», «pribaturara bideratzea lapurreta da» eta abar.

Arriagan irakurritako agirian, «murrizketa eta pribatizazio poli-

kurik gabeko osasun zentroak ugaritzea, herritarren hizkuntza eskubideak urratzea, eta abar.

Itxaron zerranden arazoa konpontzeko pazienteak zentro pribatuetara desbideratzea «gaurkogia eta biharko gosea» da, plataformen esanetan. Haien ustez, politika horiek osasungintza publiko ahultzen dute, osasungintza pribatuaren hedapena erraztu, diru publiko klinika eta ospitale pribatuetara desbideratu, eta osasuna «merkantzia huts» bilakatu.

«Herritarren partaidetza sortuko den osasun berria» aldarrikatu dute. Lehen Arretari behar bezalako garrantzia emango diona, «osasun komunitarioan oinarritua, gizarte eta genero ikuspegia izango duena, eta gaitasunaren prebentzioa eta osasunaren sustapena indartuko dituen». Jaurlaritzari eta hura osatzen duten alderdiei dei egin diete «murrizketa, desegite eta pribatizazio politikak» bertan behera utz ditzaten.

Gasteizen, manifestazioa Bilboko plazaatik abiatu zen, eta Andre Maria Zuriaren plaza bukatu. Albiste agentzien arabera, 2.000 lagun inguruk hartu zuten parte mobilizazioan. Donostian, berriz, Bulebarretik atera zen manifestazioa. Han ere, Bidasoa SOS, Zumarragako 24/7, Tolosaldeko Plataforma eta beste zenbait herri eta eskualdetako plataformek bat egin zuten mobilizazioarekin.



Osakidetza publikoaren izan behar du %100ean, justizia soziala bermatzeko ardatza baita»

Mireia Saiz

Osasungintza Publikoaren Aldeko Plataforma

rrikatzen zuten Larrabetzuko plataformakoen pankartak. Durango eta Sestaoko plataformek, berriz, «osasungintza publikoaren» defendatzeko deia egin zuten.

Feministak eta langileak

Mugimendu feministako kideek ere pankarta eraman zuten, *Zaintza eskubide kolektiboaren alde* leloarekin, eta azaroaren 30eko

Kirurgiaren ondoren berragertutako zainetako ultzera eta barizetan espezialistak

varitek

KIRURGIARIK GABE

ERRADIOLOGIA INTERBENTZIONISTA

www.varitek.es

DONOSTIA 666 776 159 • BILBO 690 623 391 • GASTEIZ 689 338 931

PSOE eta EAJren akordioaren sakontasun falta kritikatu du PPK

De Andresen ustez, 2019an adostutakoaren «luzapen» bat da akordioa • Asensiok PPri leporatu dio sozialistak «izutu» nahi izatea

Iosu Alberdi

EAJrekin egindako akordioari esker, PSOEek eskuratutako ditu Pedro Sanchez alderdiko idazkari nagusiaren inbestidurarako beharrezko botoak. Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi Jose Ignacio Asensioren esanetan, akordioak egiteko duten gaitasunaren adibide bat gehiago da jeltzaleekin itundutakoa. EAEko PPKo presidente Javier de Andresen ustez, baina, akordioak ez du funts handirik.

De Andresen iritziz, EAJk eta PSOEek sinatutako akordioa bi aldeek 2019an adostu zutenaren «berdina» da, orduan ere, besteak beste, eskumenen transferentzia eta estatutu berri baterako urratsak itundu baitzituzten. Hartara, Sanchez emaniko «luzapen» gisa kalifikatu du tratua: «2025era arte atzeratu dute 2019an adostutakoa».

Hutsuneak eta zehaztapen faltak ere ikusi dizkio PPKo kideak itunari. Hutsuneak, euskal Y-aren erreferentziarik ez dagoelako. Zehaztapen faltak, zenbait puntu nola beteko diren ez dakitelako. Horieta bat da Gizarte Segurantzaren kudeaketarena. De Andresen hitzetan, transferentziak berrekin ekarriko luke urteko 4.300 milioi euroko defizita: «Ez zait nekogio okerragorik gertatzen».

Horiek hala, gaurko PPK deitutako manifestazioetan parte hartzeko deia egin die herritarrei, baita Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluri ere. Aurrez, hark eskatu zien antolatzaileei horiek bertan behera uzteko, orain arteko protestek eragin duten iskanbila kontuan hartuta.

Asensioren esanetan, berriz, eskuinak eta eskuin muturrak Sanchez gobernoburu izango dela ez onartzearen ondorio dira mobilizazio horiek, eta sozialistak «izutzea» dute helburu. PSE-EEko kidea PPri mintzatu zaio zuzenean, eta emaitzak eta konstituzioa onartzeko eta betetzeko eskatu dio: «Herritarrek argi utzi zuten uztailaren 23an, eta adierazi zuten ez zutela PPren eta Voxen gobernu bat nahi».

Positiboa, baina ez nahikoa

LAB sindikatuak «pauso positibotzat» jo du EAJ eta PSOEren akordioak erkidegoetako hitzarmenen lehentasuna jaso izana, baina «ez da nahikoa» langile publikoentzat eta sektore prekarioetan lan egiten dutenentzat. Horiek hala, sindikatuak EAJri eta EH Bilduri eskatu die legealdi berriaren erronkatzat hartzeko «euskaletan langileen lan baldintzak Eusko Herrian bertan erabaki ahal izatea». Hau da, «euskaletan langileen agendak» erdigunea hartzea.



Javier de Andres, atzo egindako agerraldian, Gasteizen. ADRIAN RUIZ HIERRO / EFE

ANALISIA
Iosu Alberdi



PSE-EEren erantzunaren zain

EAJren eta PSOEren arteko akordioan adostutakoaren arabera, jeltzaleek eta sozialistek «fede onez» negoziatuko dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako «etorkizuneko autogobernua», eta «nazio aitortza» elkarrizketarako gai zerrendan egongo da. Testuan hala dago jasoa, baina ikusi beharko da noraino eraman daitekeen afera jardun parlamentarioan, eta balio ote dezakeen estatus berri baten inguruko eztabaida behingoz bideratzeko. Izan ere, testuak dio gaia Eusko Legebiltzarrean ere jorratuko dutela bi aldeek. Horretarako, ordea, jeltzaleek PSE-EErekin jorratu beharko dute gaia, eta horiek argi mintzatu dira azken legealdian «bide subiraustak» jorratzearen kontra.

Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluk Eusko Legebiltzarreko politika orokorreko bilkuran egindako hitzartzean ikusi zen nazio auzia eztabaida politikoa erdigunean kokatzearen aldeko apustua egin duela EAJk, aspaldian Madrilén zentratua z-

goen agenda politikoa euskal agendak bere lekua berreskuratuzko. Eta testuinguruak horretarako bidea eman dio, PSOE-Summar koalizio gobernuak Euskal Herriko eta Kataluniako alderdi abertzaleen babesa ezinbesteko baitu, eta denak ere lurralde auzia eztabaidaren erdigunean kokatzeko beharraz aritu dira.

Halere, akordioak bi bazkideen, EAJren eta sozialisten, arteko elkarrizketaren garrantzia nabarmetzen du, «etorkizuneko autogobernua, Euskadin zein estatuan, negoziatzeko eta onartzeko» konpromisoarekin. Ikusteko dago, ordea, PSOErekin adostutakoak PSE-EEren jarreraren izan-go duen eragina. Batez ere, EAJk gaiari 2020an planteatutako konpromisoen bidetik heldu nahi badio: testu artikulatuak nazio aitortza, erabakitze eta onartzea eta Espainiako Estatuarekiko aldeko harremanak jasotzea.

Oraingoz, akordioak eginiko balorazioan, egungo autogobernuaren «garapen osoa» babestu besterik ez du egin PSE-EEk, eskualdatzeko geratzen diren es-

kumenei erreferentzia eginda. «Nazio aitortzari» buruzko hitzik ez. Beraz, PSE-EEko kideek gaiaz esaniko azkenak legealdian zehar errepikatutakoak dira; ez dutela onartuko ez «estatus berririk», ez «subiranotasunaren birbanaketarik».

Atzera eginda, beste termino batzuetan egin bazuten ere, EAJk eta PSOEek 2019an sinatutako inbestidura akordioan ere presente zegoen estatus berri baterako urratsak egitea. Testu haren laugarren puntuan jasotzen zen alderdien eta erakundeen arteko elkarrizketen bidez beharrezko aldaketak egitea «estatutaren egiturak lurralde identitateen aitortzara» egokitzeko, «partaidetza sentimendu nazionalak aintzat hartuta», eta horretarako estatutu berri baterako negoziazioa eta akordioa sustatuz.

Hura, baina, ezerezean geratu zen, nahiz eta Eusko Legebiltzarreko 2016-2020ko legealdiko bigarren erdian estatus politikoa inguruko eztabaida susperraldi batean egon. Legealdi berriarekin, EAJk eta PSE-EEk gobernu akordiotik kanpo utzi zuten estatus berri baten inguruko erreferentzia oro.

Beraz, adostutakoaren balioa kalkulatzeko, datozen hilabetetako mugimenduei eta, batez ere, Eusko Legebiltzarreko hauteskunde osteko errepertatu beharko zaie. Ikusteko «nazio aitortza» txertatzea noraino den hauteskunde kanpaina aurreko testuinguruaren espazioa bereganatzeko asmoa, eta noraino estatus politikoa berri baterako benetako urratsak egiteko.

tradebi@tradebi.com

Hainbat andre arrazializatu batu dira salatzeke ez dutela greba eskubiderik

«Zaintzaren eskubide kolektiboaren» defentsan bat etorri arren, esan dute ez dutela bat egingo greba feministarekin, hainbat talderen izenean

Arantxa Iraola

Hainbat emakumek agerraldi bat egin zuten atzo Zumaian (Gipuzkoa). Azaroaren 30erako deituta dagoen greba feministaren aldarri nagusiarekin bat egiten dutela gogoratu zuten, «zaintzaren eskubide kolektiboa» defendatzen dutela, baina jakinarazi zuten ez dutela bat egingo deialdiarekin. Pertsona arrazializatu, migratu eta ijitoen elkarteen izenean solastatu ziren andreok, eta, grebarekin bat ez egiteko eman zituzten motiboen artean, hona lehena: greba egin ezina bera. Hala ere argudiatu zuten: «Greba estrategia baztertzaila bat da, pertsona arrazializatu, migratu eta ijito gehienok sektore arautu gabeetan edo babes sindikalik gabekoetan lan egiten dugun heinean, hala nola etxeko lanetan edo kaleko salmentan».

Adierazi zuten, ezin dute «subjektu politiko gisara» jardun greban egungo baldintzetan, eta horregatik ezin dute bat egin borroka molde horrekin. «Zaintzaren pisua daramaten kide arrazializatu, migratu, ijito eta baita euskaldun zuri asko ere kanpo geratuko gara, horretarako baldintzarik ez dugulako», azaldu zuten: «Ondorioz, greba al da zaintza krisia salatzeke tresnarik egokiena? Ezetz uste



Atzo Zumaian egin zuten agerraldiko irudia. BERRIA

dugu». Mugimendu feminista oro har «zuria» dela esan zuten, handik «planteamendu itxi» bat jaso dutela, eta ez direla «entzuna» sentitu. Hala ere, grebaren testuinguruan nor diren azaltzeko era izan dezaketela sentitu dute andreok: «Geure burua ikusarazteko, aldaketarako eragile politiko garen neurrian».

Esakizunak

Hainbat eske ere zabaldu zituzten atzoko agerraldian; besteak beste, paperik gabeko migratzaileak erregularizatzea, udalek eroldan izena emateko bideak erraztea, etxeko langile egoiliarren lana den sagerraraztea, eta astean 35 ordu-

ra apaltzea zaintzetara bideratutako lanaldiak. Eskari horiek guztiak eta gehiago ere jasota daude greba feministaren aldarrien barruan. Fempio eskatuko da Atzerriarren Legea bertan behera uzteko eta bitartean zaintza langile guztiak erregularizatzeke; halaber, erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea ere grebaren eske nagusietako bat da.

«Merkantilizaziorik» gabeko zaintza sistema publiko bat da funtsean grebaren bidez aldarrikatu nahi dena, «tokian-tokian» sustraitutakoa, soldatakat apaldu gabe lan jardunak murriztuko dituen, eta, betiere, zaintzeko denbora egokiak bermatuta.

Bi pertsona hil dira zirkulazio istripuetan; Zornotzan izan da bat, Forondan bestea

BILBO • Ezbehar larria gertatu zen ostiral iluntzean Zornotzan (Bizkaia). Motor batek eta automobil batek istripua izan zuten, eta motorean zihona hil egin zen. Gizon bat zen, 28 urtekoa. Bestalde, emakumezko bat hil zen atzo Forondako (Gasteiz) sarreran, auto batek harapatuta. Ertzaintza istripu biak ikertzen ari da.



Iruñeko Donibane auzoko elkarretaratzea. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Haur eskoletan euskaraz ikasi ahal izateko eskea egin dute

Iruñeko Donibane auzoan 50 pertsona inguru elkartu dira, eta elkarretaratze baterako deia egin dute

IRUÑEA • «Esatera gatozena ez da berria, baina egoera ez da aldatu». Maialen Etxeberria Iruñeko Donibane auzoko herritarra hala mintzatu zen atzo. 50 lagun inguru elkartu ziren auzoko haur eskolaren parean, 0-3 zikloan euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeko. Donibane auzotarrek Nafarroako Gobernuari eta Iruñeko Udalarari exijitu diete haur txikienezta-

ko eskola eredia zabal dezaten auzoan, euskararen bazterkeria bukatzeko. «Donibane auzotik Iruñerria, ezin baitugu ahaztu ume guztiak dutela euskara ikasteko eskubidea», esan zuen Etxeberria. Azaroaren 26rako mobilizazio bat antolatu dute; Iruñeko udaletxe plazatik irten-go da, euskaraz ikasteko eskubidea hezkuntzako etapa guztietara zabal dadin eskatzeko.

Sinn Fein kongresuan parte hartu dute EH Bilduko Otegi eta Elejabarrietak

ATHLONE • EH Bilduko koordinatzaile nagusi Arnaldo Otegi eta nazioarteko harremanetarako buru Gorka Elejabarrieta Sinn Fein alderdiaren kongresuan izan ziren atzo, Athlone (Irlanda). Han zen ERCko presidente Oriol Junqueras ere. Hitzartzean, Otegi Sinn Feini eskertu zion Euskal Herriko ezkerreko independentismoari emaniko babesa.

Hilberriak

Eskelak

(0034) 943-30 40 30
eskelak@bidera.eus

Beria.eus/eskelak

BERRIA lagunek eta BERRIA lagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak



Francisco Altuna Arranbide



Hondarrbian hil da, 2023ko azaroaren 10ean, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

—Gugan Bego—

Haren emaztea: Ana Mari Errazkin. Seme-alabak: Naxari, Eneko eta Irune, Mainer eta Tomás. Bilobak: Nikole, Uxue eta Teresa. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otolitz bat eskatzen dizuete, eta hiletara joateko gonbita egin. ASTELEHENEAN izango da, hilak 13, 19:00etan, HONDARRIBIKO PORTUKO ELIZAN. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Gorpua IRUNGO MEMORA TABISA BEILATOKIAN izango da, asteleheneko 09:00ak arte.



Bittori Etxeberria Etxeberria



(Maitin Amundarainen alarguna)

Azaroaren 11n hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian Bego—

Haren anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, laguntzaileak: Doris, Ani, Daniela eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuete, eta arren etorri teztela hiletara. BIHAR izango da, ASTELEHENA, arratsaldeko SEIETAN, Amezketako SAN BARTOLOME parrokian. Aldez aurretik, mila esker.

AMEZKETAN, 2023ko azaroaren 12an

Oharra: Gorpuz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da GAUR, IGANDEA 9:00 - 13:30 eta 15:30 - 19:00; eta BIHAR, ASTELEHENA 9:00 - 11:30.



Pertsona bat bizikletan ibiltzen, Gasteizen. ENDIKA PORTILLO / FOKU

Bizikleten salmentak gora egin zuen konfinamenduaren ostean, eta urbanoak eta elektrikoak erosi ziren gehien. Merkatua egonkortu egin da, baina, batez ere hirietan gehiago erabiltzen direnez, azpiegiturak hobetzeko eskatu dute bizikletaren aldeko elkartek.

Errepideetatik bidegorrietara

Asier Gonzalez de San Pedro

Konfinamendu ostean, bizikleten salmentak nabarmen egin zuen gora. Itxialdiak kalera irteteko eta kirola egiteko desira sortu zuen gizartean, eta hornidura arazo larriak sortu zituen bizikleta dendetan.

Gorakada hori amaitu da. Paco Prieto Oiarzun Bike dendako kudeatzaileak azaldu du salmentak «egonkortu» egin direla. Aitortu du «bizikletarik gabe» egon zirela tarte batez, baina esan du egun

«merkatuko bizikleten %80» dendan daudela. Hori bai, bizikleta jakin bat erosteko sei edo zazpi hilabete itxaron behar dira oraindik.

Bizikletak erosteko gogo hori baretu dela argi geratu da Conebi Europako Bizikleten Konfederazioaren azken txostenean. Haren arabera, 2021ean jo zuten goia salmentek, 17,1 milioi unitate saldu, eta 2022an 14,7 milioi saldu ziren. Baina bizikleta elektrikoek salmenta ez da eten, 5,5 milioi saldu baitziren iaz, inoiz baino gehiago.

Bizikleta urbanoek ere goraka-

da handia izan dute. Are gehiago, Espainiako AMBE patronalaren arabera, bizikleta elektrikoek salerosketa %5,7 handitu zen iaz. Hego Euskal Herrian eta Espainian, eta %22,5 berriz, hirietarako bizikletena.

Azpiegitura gehiago

Datu horien emaitza hirietan antzeman da. Prietok garbi ikusten du jendeak bizikletak erosteko eta kotxea aldera batera uzteko joera duela hirian zehar mugitzeko. Iritzi berekoa da Julen Izagirre Diaz Donostiako Kalapie elkarteko koordinatzailea. Adierazi du bizikleta geroz eta gehiago erabiltzen dela, «ekologikoena, merkeena eta abantaila gehien» duen garraio-bidea delako.

Bizikleta erosleak bi erabilera izan ditzaketen bizikletak aukeratzeko ari dira, Oiarzun Bikeko kudeatzaileak ziurtatu duenez: «Igandean mendira joateko erabiltzen duten bizikleta astean zehar lanera joateko erabiltzen dute». Bizikleta horiek, «orokorrean», elektrikoak dira. Prietoren ustez, beharbada ez da aukerarik ekonomikoena —haren webgunean 1.400 euro balio du merkeenak—, baina bai praktikoena.

Lehen, oso denda gutxik zituzten bizikleta elektrikoak, Prietok adierazi duenez, baina orain «edozein dendatan aurkitu daitezke». Adi ibiltzeko ohartarazi

du. «Bizikleta elektrikoek hiru urteko bermea izan behar dute, eta denda batzuk ez daude prest hiru urte horietan egin behar diren mantenu lanak egiteko».

Bizikleta elektrikoak «luzerako etorri» dela uste du Izagirrek ere. Gainera, Donostiak dituen aldapa kontuan izanda, gehitu du lehen jendea bizikletan joaten ez zuten lekuetara joateko aukera ematen duela; ospitaleetara, adibidez.

Gipuzkoako hiriburuan lehen baino gehiago erabiltzen denez orain bizikleta, azpiegiturak hobetzeko eskatu die Izagirre agintariari. Bidegorrietan diru gutxi inbertitzen dela salatu du, eta bizikletentzako aparkaleku babestu gehiago behar direla. «Bidegorriek seguruagoak, erosoagoak eta erakargarriagoak izan behar dute, hala, jende gehiagok erabiliko lituzke».

Donostiak badu mugikortasun jasangarrirako plan bat, baina plan horretan aipatutako helburuak ez dira bete. Haren arabera, joan-etorrien %12 bizikletaz egin behar ziren 2022. urterako, baina egun %5 baino ez dira.

Euskal Herriko beste hiriburu batzuetan —Iruñea, Gasteiz eta Baionan— gauza «interesga-

%64

ZENBATEK EMAN NAHI DIOTEN LEHENTASUNA BIZIKLETARI

Ipsosек egindako inkesta baten arabera, munduko herritarren %64 hirigintza proiektu berrietan bizikletei lehentasuna ematearen alde daude, autoen kaltetan.

Kirolerako. Inkesta horren arabera, bizikletan ibiltzen diren %28k kirolerako erabiltzen dute, eta beste %12k hirian mugitzeko.

rriak» egiten ari direla esan du Kalapieko koordinatzaileak, eta Donostia «atzean» geratu dela. Bilbon, berriz, garraio publikoak garrantzi handia duela gaineratu du, eta bizikleta oraindik «sartzen» ari dela.

Diru laguntzak, erosteko

Europako hainbat hiri eta herrialdeetan —Frantzia, Herbehereetan eta Belgikan, besteak beste—, diru laguntzak ematen dituzte bizikletak erosteko. Leku horietan bizikleten salmenta diru laguntzen «proporzioan» hazten ari dela azaldu du Prietok. Beste batzuetan, berriz, bizikleta zaharra berritzeagatik ematen dituzte laguntzak. Herrialde batzuetako enpresek ere onurak izaten dituzte langileek bizikleta erabiltzen badute.

Euskal Herriaren kasuan, Nafarroako Gobernuak %30eko kenkaria eskaintzen du errenta



Igandean mendira joateko erabiltzen duten bizikleta astean zehar lanera joateko erabiltzen dute batzuek»

Paco Prieto

Oiarzun Bikeko kudeatzailea

«Bidegorriek seguruagoak, erosoagoak eta erakargarriagoak izan behar dute jende gehiagok ibiltzeko»

Julen Izagirre

Donostiako Kalapie elkarteko koordinatzailea

aitorpenean bizikleta elektriko bat erosteagatik. Bizikleta berritzeagatik ere diru laguntza ematen du, gehienez 50 eurokoa.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, urrian bukatu zen EEE Energiaren Euskal Erakundeak autonomoztat eta enpresentzat bizikleta elektrikoak erosteko eman zuen diru laguntzen epea. Prietoren ustez, halakoak ezinbestekoak dira salmentak gehiago handitzeko.

Pandak Txinara: aro bat amaitzen ari da

Joan den asteazkenean, Mei Xiang eta Tian Tian bikotea eta haien seme Xiao Qi Ji Washingtondik Pekinera itzuli ziren.

Hegazkinez joan ziren, baina kaiola baten barruan, hirurak panda hartzak baitira. Haien bi daiak aro baten amaiera irudikatzen du: panda diplomazia deitukoarena. Izen hori jaso zuen 1940tik aurrera Txinako gobernuak adiskidetasun keinu gisa pandak oparitzea edo mailegatzeari atzerriko zoologikoei. Keinu esanguratsua 1972an gertatu zen: Richard Nixon AEBetako ordeko presidentek Txina Sobietar Batasuneko orbitatik ahalik eta gehien urrundu nahi zuen, eta, antikomunista sutsua zen arren, Pekinera joan zen. Bi pandarekin itzuli zen etxera, eta gehiago iritsi ziren hurrengo urteetan.

Orain, apurka-apurka, panda guztiak etxera itzultzen ari dira. Erabakiari kutsu politikoa kendu dio Pekinek, baina egia da orain egoera desberdina dela. Txinak Sobietar Batasunaren lekua hartu du,



GEURE KONTU
Iker Aranburu

AEBetako lehiakide geopolitiko eta ekonomikoaren lekua. Jada ez da nekazari pobreez populatutako herrialde umiliatua, baizik eta ekonomikoki, politikoki eta militarki AEBen hegemonia lehiatzen duen herrialdea, bere historiari eta orainari harro begiratzen dion herrialde bat.

Hurrengo egunotan, panden kontrako bidea egingo du Xi Jinping Txinako presidentek. Washingtonera ez, San Frantziskora joango da, APEC Asia eta Ozeano Bareko Ekonomia Elkarlanaren bilan parte hartzera. Ezusterik ez badago, Kaliforniako hirian Joe Biden AEBetako presidentekin bilduko da, asteazkenean. AEBetara egin zuen azken bidaiari, leku informalago batean egin zuen hitzordua AEBetako ordeko presidente Donald Trumpekin: azken horren Mar a Lago klubean, Floridan.

Pandarik, oroigarri kitsch-ik

edo beste opari fisikorik ez da espero Bidenen eta Xiren arteko bilera horretan, baina bada itxaropen txiki bat lagunduko ote duen Txinaren eta AEBen arteko tentsioa baretzen.

«Lehia arduratsua»

Giro politikoa gaiztoa ez da berria –Trumpek Txinaren aurkako erretorika eta zigorrak erabili zituen, Xiren aldeko laudorioekin uztartuta–, baina Bidenekin jo du goia. Kontrolpetik atera aurretik, azken hilabeteetan eztabaida lausaitzeko saioak izan dira. «Bi herrialdeen arteko lehia arduratsua bilatzen dugu, ez dadin gatazka bilakatu», esan zuen Bidenek irailean, NBEren egoitzan.

Beste zerbait ere esan zuen: orain AEBen helburua ez da Txinaren lotura haustea, harreman horrek dakartzan arriskuak arintzea baizik. Hau da, Europa-ko Batasunaren estrategia bera,

de-risking izenekoa, nahiz eta azken hila-beteetan Brusela bera den Pekinekiko harremanak tenkatzaren ari dena, haren auto elektriko eta haize erroten inportazioen inguruan ikerketa abiatuta.

Estrategia praktikoagoa da, oso handiak direlako AEBen –eta EBren– harreman ekonomikoak Txinaren, eta elkarren beharra dutelako: munduko bloke ekonomiko garrantzitsuenak izanik, bata bestearen bazkide komertzial handienak dira, eta hori oso arrazoi ona da soka gehiegi ez tenkatzeko.

Globalizazioaren aroen arteko trantsizioa gatazka suagoa ala baketsuagoa den finkatu dezakete Biden eta Xiren arteko bilerek

Baina, aldi berean, tentsioaren lehen ondorioak ikusten ari diren zantzuak ikusi dira aste honetan. Batetik, merkataritza harremana txikitzen ari da. Urrian, Txinak AEBetara egindako esportazioak %15,4 jaitsi ziren, eta handik egindako inportazioak, berriz, %5,8. EBrekiko joera bera da, baina ez hain zorrotza: esportazioak %10,6 txikitu dira, eta inportazioak, %1,3 –gehiago jaitsiko ziren baldin eta Txinak ez balitu Her-

behereetako ASMLren mikrotxipak saldoka erosi, AEBetako zigorre aurre egiteko–.

Berez, Txinaren nazioarteko merkataritza osoa jaitsi da (-%6), eta faktore bat haren ekonomia-aren hazkunde motelagoa da, baina AEB eta EBrekikoak gehiago apaltzek bi mugimendu irudikatzen dituela aipatu dute analista batzuek: Asiako beste herrialde merkeago batzuetara mugitzen hasi dela hornidura katea –Viet-

namera eta Indonesiara, esaterako–, eta ekoizpenaren zati bat jatorriko herrialdera itzuli dela.

Globalizazioaren aroak

Eta azken horren susmoa indartzeko, beste datu bat iritsi berri da: lehen aldiz 1998an datuak bilatzen hasi zirenetik, atzerriko kapital gehiago aterata da Txinatik han inbertitutakoa baino. Txinako interes tasa txikiagoen ondorio izan daiteke, baina baita beste joera batena ere: arrazoi ekonomiko hutsek gidatutako globalizazioaren amaieraren hasiera, eta aliatu politikoen blokeetan oinarritutako globalizazio baten hasiera.

Aroen arteko trantsizio hori gatazka suagoa ala baketsuagoa den, hori da azken finean Bidenen eta Xiren arteko bilerek finkatu dezaketena.



José Ignacio Mendoza
Eksilar, LABORAL Kutxa Enpresak-eko bezeroa

“Enpresa baten balioa hura osatzen duten pertsonen balioa da”.

LABORAL Kutxa Enpresak

Beste batzuek enpresak ikusten dituzten lekuan, gure gestoreek pertsonak ikusten dituzte. Sustatzeko proiektu berezi bat duten pertsonak. Horregatik, LABORAL Kutxa, hurbiltasunez eta profesionaltasunez laguntzen diegu, proiektuok aurrera eramaten.



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

PARTE HARTZEKO:
igandetik asteartera Berria.eus/berrialaguna/zozketak edo 943-30 43 47
SARIDUNAK ostegunean argitaratuko dira. **Adi!** Erabili zure **BERRI**Alagun kode berria.

> OPARIAK

01 LA PERLA TALASOTERAPIA

Bina sarrera
hiru
lagunentzat



Donostia • Tel.: 943-45 88 56 • La-perla.net

02 OTEIZA MUSEOA

Bina sarrera
bost lagunentzat



Altzusa • Tel.: 948-33 20 74
Museoteiza.org

03 ZUMALAKARREGI MUSEOA

Bina sarrera
bi lagunentzat



Muxika Egurastokia kalea, 6 • 20216 Ormaiztegui

04 TXILLIDA LEKU MUSEOA

Bina sarrera
hiru
lagunentzat



05 ANTSOTEGI HOTELA

Bi
lagunentzako
gaua
eta otordua



Altzaa auzoa, 15- Etxebarria
Tel.: 94-616 91 00 - Antsotegi.com

06 MAHALA SASKIA

Bi sorta



07 AZKUELEK Elektrizitate denda

50 euroko erosketa bonua



Araba kalea, 21 • Zarautz • Tel.: 943-13 04 33 • Azkuelek.com

08 JAKION KONTSERBAK

Sorta bat



San Migel
plaza, 4, etxebaia
Leintz Galtzaga
Tel.: 943-71 46 86
Jakion.es/au

09 EUSKAL HERRIA ESNEA

Hiru sorta



10 ERRIGORA SORTA

Bi sorta



11 PAGOA GARAGARDOA

Bi sorta



12 PEDRO LUIS TOMATEA


Bi sorta



> SARRERAK

PARTE HARTZEKO, Berria.eus/berrialaguna/zozketak
Parte hartzeko azken eguna: **azaroaren 14a**, asteartea. SARIDUNAK ostegunean argitaratuko ditugu.

KORTXOAREN DILEMA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 17,
20:00
Lasarte aretoa
IGORRE

KORTXOAREN DILEMA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 18,
20:00
Coliseo antzokia
EBAR

KORTXOAREN DILEMA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 19
19:00
Niessen aretoa
ERRENTERIA

L'ELISIR D'AMORE



Bi sarrera
bikoitz

Azaroak 21
19:30
Euskalduna jauregia
BILBO

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO NAGUSIA

FINALAURREA



Bi sarrera
bikoitz

Azaroak 18
17:00
Serantes kultur aretoa
SANTURTZI

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

FINALAURREA



Bi sarrera
bikoitz

Azaroak 19
17:30
Harriondo kultur etxea
LESACA

Gazan berehalako su etena ezartzeko deia egin dute Arabiar Ligak eta OICk

Irango presidentek eskatu du Israel «estatu terroristatzat» jo dezatela • Hezbollahko buruak esan du Libanoko fronteak «aktibo» jarraituko duela • Gazako ospitalerik handiena erregairik gabe gelditu da

Maddi Iztueta Olano

Gazako egoera humanitaria eta duela hilabete pasatxo hasitako oldarraldia hipzide, atzo Riaden (Saudi Arabia) bildu ziren Arabiar Ligako eta OIC Konferentzia Islamikoaren Erakundeko kideak. Gazan su eten bat «brehala» indarrean jartzeko, zerrendako setioa bertan behera uzteko, eta Israelen armak ez emateko eskatu zuten bi erakundeetako kide diren herrialdeek. Are, Gazako «katasstrofe humanitarioa» ikusita, su eten horrek «baldintzarik gabekoa» izan behar lukeela nabarmendu zuten batzuek –Egiptok eta Iranek–; alegia, Israelen ez lukeela Hamasek bahitutakoak askatu arte itxaron behar menia indarrean jartzeko.

Edonola ere, batzuek besteak baino gogorrago mintzatu ziren Israelen aurka; adibidez, Iran. Israelgo armada «erakunde terroristatzat» jotzeko eskatu zuen hango presidente Ebrahim Raisik, eta Israelen ofentsiba gelditzeko «ekintza irmoak» hartzea galdegin zien eskualdeko bizilagunei. Ekintza horien artean legoke, adibidez, palestinarrei armak ematea. «Israelen erasotatik etetik ez badu». Hain justu, Iranen parte hartzeak sortu zuen atzo ikusmirarik handiena, eta ez aipatutako eskaerengatik soilik. Iranek eta Saudi Arabiak iragan martxoan harreman diplomatikoak berrabiatu zituztenetik, Raisik herrialdera egin duen lehenengo bisita izan zen atzokoa.

Bilkuraren ondorengo agerraldietan, ordezkarri guztiak gaitzetsi zituzten Israelen etengabeko eta bereizi gabeko bonbardaketak, Gazako egoera makurra salatuz. Horren harira, PAN Palestinako Aginte Nazionalako Segurtasun presidente Mahmud Abbasek palestinarren «babestu» ditzala eskatu zion nazioarteari; bereziki, NBE Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari. Saudi Arabiak printze oinordeko Mohamed bin Salmanen ustez, ordea, «ezgeru-



Arabiar Ligako eta OICko parte diren estatuaren ordezkariak, atzo goizean, Riaden (Saudi Arabia). TURKIAKO PRESIDENTETZAKO PRENTSA BULEGOA/EFE

txi» egingo du erakunde horrek. «Katasstrofe humanitario honek erakutsi du nazioarteko komunitatea eta NBEren Segurtasun Kontseilua ez direla gai Israelen urraketak gelditzeko».

Hain justu, nazioarteari beharrezko, herrialde arabiarrei eskatu zieten laguntza Hamaseko bozeramaile Osama Hamdanek eta Iyad al-Buzum Gazako Barne Ministerioak. Lehenak hori egiteko hiru modu proposatu zituzten: Israelen palestinarren aurkako gerozidua gelditzeko, lehenik; laguntza humanitaria, erregaia eta osasun baliabideak Gazara bidaltzeko, bigarrenik; eta Palestinako gatazkari irtenbidea emateko palestinarren eskubideak eta bertsioa oinarritat hartzeko, azkenik.

Oraindik azken erasoaldi hau Ekialde Hurbil osora zabaldu ez den arren, urriaren 8tik aktibo dago beste fronte bat: Libano he-

goaldekoa. Hezbollah milizia ari da hortik Israelen eraso egiten, eta fronteak «aktibo» jarraituko du». Horixe esan zuen atzo Hezbollahko buru Sayyed Hassan Nasrallah, urriaren 7tik hona egindako bigarren hitzaldian. Are, eraso horiek «gogortu» egingo dituztela iragarri zuen. «arma gehiago eta hobeak» erabiliz. Israelgo Defentsa ministro Yoav Gallantek berehala erantzun zion haren hitzei: «Hezbollah gerra posible baterantz eramaten ari da Libano, eta okerrak egiten ari da. Gazan egiten ari garena badakigu nola egin Beiruten».

Katasstrofe bat ospitalean

Qatarko emir Tamim bin Hamad-al-Zanik hau esan zuen atzo: «Nola da posible [Israelen] ospitaleei eraso egitea eta munduak isilik jarraitzea?». Hain justu, herenegunetik, Israelgo armada etengabe eraso egiten ari zaio

Gazako al-Xifa ospitaleari –zerrendako handiena da–. Israelgo tropen arabera, ospitale horren azpian dago Hamasen kuartel nagusia, eta horrek «helburu militar zilegi» bihurtzen du ospitalea. Halere, X sare sozialean zabaldu bideo baten bidez, Israelgo armadako koronel batek esan zuen ez ziotela ospitaleari «zuzenean» eraso egin, horren inguruan «borrokan» ari zirela bai-zik.

Bertsio horrek ez du bat egiten, ordea, zenbait hedabidek ospitalean bertan eta haren inguruan dauden lekukoak aipatuz kaleratutakoarekin. Palestinako Ilargi Gorriaren arabera, soldadu israeldarrek tiro egin zioten ospitaleetik ateratzen zen orori; eta, ondorioz, kanpoan pilatuz joan ziren hildakoen gorpuak eta zaurituak. Eraso horien inguruan «kezka larria» adierazi zuten zenbait erakundek, hala nola Gurutze

Gorriak, OME Osasunaren Munduko Erakundeak eta MSF Mugarik Gabeko Medikuek.

Gazako Osasun Ministerioak jakinarazi zuenez, gainera, ospitalea erregai erreserbarik gabe gelditu zen atzo goizean. Argindarrik gabe, ezin dituzte artatu hiltzorian dauden milaka zauritu eta inkubagailuetan dauden dozenaka jaioberrak. «Gure bizitzako azken minutuak dira hauek», esan zion Al-Jazeera telebista kateari Al-Xifa ospitaleko zuzendariak.

Horrez gain, Israelen Gazako eskola bati ere egin zion eraso atzo goizaldean, argudiatuta Hamaseko kide bat han zegoela. Israelgo armadak jakinarazi zuenez, hil egin zuten Hamaseko kide hori; baita gutxienez beste 50 zibil ere. Urriaren 7tik hona, 11.000 palestinar baino gehiago hil eta 28.000tik gora zauritu ditu Israelgo armadak.

LEKU-LEKUTAN
Olatz Arrieta



Bosnia eta Herzegovinaren ezustekoa

Europako Batasuneko (EB) kide izan nahi duten herrialdeentzat, azterketa garaia izaten da azaroa. Izan ere, orduan ematen du argi-tara EBk estatu kide izateko herrialde bakoitzari eskatzen zaizkion erreformen inguruko txostena. Aurten ere, bere iritzia eman du, alegia, hautagaiak hurrengo urratsarako prest dauden ala ez ebatzi du. Baina ezusteko bat izan da oraingoan: hautagai kaxkarren artean dagoen Bosnia eta Herzegovina hurrengo urratsa emateko prest dagoela ebatzi du Bruselak. Hots, Bosniarekin negoziazioak hasteko gomendatu die 27ei.

Txostena irakurrita, agerikoa da azken urtean Bosniak ez dituela EBk agindutako etxerako lanak egin. Hala ere, azterketa gaitzuztat eman dute Bruselan. Jakina da, maiz, Europako Batzordeak arrazoi «objektiboak» baztertu, eta arrazoi politikoetan oinarritzen dela erabakiak hartzeko, onerako edo txarrerako.

Europako Batzordearen arabera, herrialde bakoitzaren «merituak eta egindako erreformak» bakarrik hartzen ditu kontuan. Baina, meriturik ezean, zeintzuk dira Bosniarekin negoziazioak hasteko arrazoiak? Horri erantzuteko, testuingurua aztertzea ezinbestekoa da. EBN sartzeko es-

kaera egin duten Balkanetako beste 4 herrialdeekin alderatuta, Bosnia atzean geratzen ari da oinarritzaileak diren zuzenbide estatuaren eta sistema ekonomikoaren erreformetan. Esaterako, Bosnia eta Herzegovinaren ez du lortu oraindik errola fidagarri-rik egiterik; oso ahulak direlako herritarrek zenbaterako edo zergak nori eskatu erabakitzeke gogornuak dituen baliabideak. Hein handi batean, Daytoneko bake akordioek sortu zuten estatu eraketak eta konfederazio asimetrikoak gobernantza orokorra oztzatzen dutelako.

Srpska Errepublikak independentzia nahi du, ez du Bosnia eta Herzegovinarekin Europako Batasunean sartu nahi, eta, horregatik, boikot egin die erreformei. Eremu serbiar horretako presidente Mirolad Dodiketik hemezortzi urte daramatza karguan, Errusiako presidente Vladimir Putinen gertuko da, eta AEB Ameriketako Estatu Batuen zigorpean dago Daytoneko bake akordioak urratzeagatik. Hain justu, «serbiarrek osatutako estatu handi bat» sortzeko helburuarekin, Dodiketik eskatu berri du Bosnia eta Herzegovina desegitea eta Balkanetako herrialdeetako mugetan aldatetako egitea. Horrenbestez, Balkanetan beste gatazka bat piztuko den beldur

dira Bruselan, eta, hori eragozteko, beharrezko ikusi dute Bosnia eta Herzegovina Europako Batasunerako bideari lotzea.

Ildo beretik, Bosnia eta Herzegovinaren Errusiaren esku hartze handiago baten arriskua ikusten du Bruselak. Horregatik, Europako Batzordeak Bosniari hautagaitzaren bidean bultzada bat ematea, herrialdea Moskuren orbitatik aldentzeko eta Bruselara hurbiltzeko estrategia bat litzateke.

Ukrainaren hautagaitza da kontuan hartu beharrezko beste faktore bat. Izan ere, Ukrainaren prozesua azkartzeko estatu kideek hartu duten erabakiak eragin zuzena izan du gainontzeko herrialdeen hautagaitzan. Esaterako, Sobietar Batasunaren parte izan ziren herrialdeei lehentasuna ematea ez dute begi onez ikusi kide izateko bidean urteak daramatzaten Balkanetako herrialdeek. Batzordeak erakutsi nahi du kontuan hartu dituela horien keaxak, baina, halere, Mendebaldeko Balkanetako herrialdeak ez dira fio; nekatuta daude Europako Batasunean sartzeko prozesu luzearekin.

Europako Batzordeak bere gomendioak egin eta gero, abenduan egitekoak diren goi bileran hartuko dute erabakia 27 estatu kideek. Horieta batzuei, hala nola Frantziari eta Herbehereei, ez zaie gustatu Bosnia eta Herzegovinari Europako Batzordeak eman dion bultzada; ez baitute nahi kide gehiago EBN sartzeko erakundean bertan erreformak egin arte. Bestalde, Bosnian gatazka piztuz gero, Bosniatik gertuen dauden Kroaziak, Esloveniak eta Austriak presio handia egingo dute Sarajevoko gobernuari laguntzeko; hiru herrialde horiek azpimarratu baitute Bosniari EBN sartzeko bidean laguntzea erabaki geostatragiko garrantzitsua dela Balkanetan egonkortasuna bermatzeko.

Gutxienez hildako bat eta hogeitauritu izan dira Thailandian, etxe bateko sutean

BANGKOK • Thailandiako Bangkok hiriko Ratxathewi auzoan, gutxienez hogeitauritu ziren atzo, eta pertsona bat hil, etxebizitza batek su hartu ondoren. *The Bangkok Post* egunkariaren arabera, os-tiraletik larunbaterako gauean piztu zen sua, eraikineko bertako pisu batean, eta suhiltzaileen 30 kamioi eta ordu erdi inguru behar izan zituzten hura itzaltzeko. Sutea nola piztu zen ikertzen ari da orain eskualdeko Polizia.

Larrialdi egoera ezarri dute Islandian, erupzio bolkaniko baten arriskuagatik

REYKJAVIK • Islandiako Babes Zibilerako agintaritzak larrialdi egoera ezarri zuen atzo, «edonoiz» erupzio bolkaniko bat gertatzeko arriskua dagoela eta. Islandiako Meteorologia Bulegoak jakinarazi zuenez, magma «nabarmen» pilatzen ari da Grindavik herriaren lur azpian –4.000 biztanle inguru ditu–, eta urri amaieratik hainbat lurrikara erregistratu dituzte eremu horretan. Herria ebakuatzen eta biztanleak lekualdatzen ari dira atzotik.

Gas leherketa batek 31 zauritu eragin ditu migratzaileentzako Italiako zentro batean

ERROMA • Italiako Viterbo eskualdeko migratzaileentzako zentro batean gas leherketa bat izan zen atzo goizaldean, eta gutxienez 31 migratzaile zauritu ziren –30 pertsona inguru bizi ziren han–, horietako batzuk adingabeak. Tokiko hedabideen arabera, larri daude zauritutako batzuk. Leherketa zerk eragin zuen ikertzen ari da Polizia, eta zentroaren gaineko ikerketa bat abiaraziko du fiskaltzak, «irregular-tasunen bat» izan zen aztertzeko.



«Gure herrialdearen [Japonia] inguruan, nabarmen areagotzen ari dira eskualdeko 'statu quo'-a unilateralki eraldatzeko saiakerak»

Fumio Kishida
Japoniako lehen ministroa

Larri dago Kroaziako Defentsa ministro Mario Banozic, auto istripu batengatik

ZAGREB • Kroaziako Defentsa ministro Mario Banozic zaurituta eta larri dago ospitalean, larunbaterako ordu txikietan izandako auto istripu baten ondorioz. Ezbehara gertatu zenean, gidatzen ari zen ministroa, eta furgoneta baten aurka jo zuen. Istripua gertatu eta gutxira hil zen furgonetako gidaria. Kroaziako Gobernuko bozeramaile Marko Milicek jakinarazi zuenez, gertatutakoa argitzeko ikerketa bat jarriko dute abian «berehala».

euskaltzaileen topagunea

III. KONGRESUA

Azaroak 18. Arrasate

Euskararen erabileran jautzia eragitera goaz!



Sanchez Erauskin, lubakiko kazetaria

Txema Ramirez de la Piscina

Kazetaria eta ikertzailea

Astearte honetan gertatu da, Gasteizen. Ekitaldi xumea, baina hunkigarria. Liburu baten aurkezpena, La Floridako Ignacio Aldekoa Kultura Etxean. Izenburua: *Xabier Sanchez Erauskin. Vida de un rebelde con causas*. Kausa ugaridun pertsona izan da, bai, Erauskin. Omendua bertan izan da, baita bere biografo eta adiskidea ere: Jose Felix Azurmendi. Gaixotasun batek hitz egiteko gaitasuna dezente baldintzatu badio ere, Erauskinek oholztatik adiarri jarraitu du ekitaldia. Mutu. Gusturabaina. Ohiko irriño pikaro-bihurriak lagundu dio ekitaldi osoan. Gertu izan du bere bizitzako konplize, maitale, euskarri eta zaintzaile izan den Mentxu Larrazabal. Baina, nor da Xabier Sanchez Erauskin? Zergatik da bereziki aipagarria gasteiztar xelebre honen ibilbidea?

Itzal luzea du atzean: apaiza Okinanan, itsasgizona Ternuan, gizarte-ekintzailea denean, kazetaria –batik bat– Euskal Herrian, unibertsitateko irakaslea EHUUn... Konpromisodun pertsona. Beti. Xabier gertutik ezagutzeko parada izan dugunok ondotox dakigu zein erraza izan den beti berekin bat egitea. Bere presentziak berak balio kutsagarriak transmititzen ditu: onestasuna, konplizitatea, garrantutasuna, konpromiso etikoa eta... txantxarako gogoa.

88 urte beteak ditu. Ezer gutxi aldatu da. Mentxuk aipatzen duen bezala, Xabier despistatu mundiala da, auto-gidari arriskutsua, baina –aldi berean– metodiko ikaragarria bere artxibategian. Itxura narraseko jakintsua. Egitura zurrunetan deseroso ibili den akrrata menderaezina.

Liburuaren protagonista Gasteizen jaio zen, 1935eko martxoaren 7an, gerra aurreko giro arras kutsatua sumatzen zen hirian. 40.000 pertsonatik gora bizi ziren «apaiz eta militarren hiriri» hartan. Xabier jaio eta hamasei hilabetera. Gasteiz estatu kolpea eman zuten faxisten esku geratu zen. Giro makur hartan hazi zen bera. Etxean bertan pairatu zuen

diktauraren atzaparkada, aita –pentsamolde abertzalea zuen udal albaiteroa– gerra hasi eta berehala preso hartu baitzuten.

Abertzaletasuna eta erlijiosutasuna. Bi adar horien bueltan ardatzu zen bere familia. Baita bere patua ere. Xabier giro horren fruitua izan da. Oso emaitza libre, baina. Berak, abitua jantzi eta berehala, erabaki zuen sakristiako giro geldoa baino nahiago zuela Ternuako bakailao-ontzietan sumatzen zen haize bortitza. Urretik urrun. Elitetik aparte. Ponpa eta gurgiletik at, Ebanjelioarekiko konpromisoa bere erara ulertuz; itsas-aposolutuzan. Bizitza arriskatzen zuten arrantzale onduen ondoan. Gizarteko bazterretan bizi direnekin bat eginik. Haien eskubideak defendatuz, haien aisialdia gozatuz... beren-beregi zegozkion elizkizunak alde batera utzi gabe, noski. Inolako protagonismorik, dogmatismorik edota burukraziarik gabe. Umorez beti. Lotsagabe eta adarjotzaile aparta. Batik boteretsuekin. Samurra eta maitagarria behetuekin. Askotan kritika zorrotza erabili du kolore eta usain guztietako hierarkiekin: izan gotzain, ministro, errege edota bere bihotzeko kazetako zuzendaritzarekin.

Izan ere, Xabier Sanchez Erauskin Egin egunkariak Gasteizen izan zuen lehen erredaktore-burua izan zen; kazetza bera sortu zenean, 1977ko irailan, alegia. Ardura desberdinak izan zituen egunkari horretan, baita *Punto y Hora* aldizkarian ere. Hain zuzen ere, bertoko zuzendaria zelarik, 1983ko apirilean, urtebetez kartzelatu zuten Xabier, ustez «erregea iraintzeagatik». Francoren osteko garaian, iritzi delitu bategatik kartzela zapaldu zuen lehen kazetaria izan zen bera. Egunotan, telebistaz telebista, jantziak urratutik dabilen Felipe Gonzalez *orbangabeko presidente* ohi hura zegoen orduan Moncloako lemazain bezala. Xabier zigortu zuen tribunal bera dabil orain Carles Puigdemont eta Marta Rovira kartzelatu nahian, «terrorismoa» egotzita. Nola aldatu diren gauzak, kamarada!

Liburuari aipatzen den bezala, seguru asko jende gutxi jakingo du Xabier dela *Que se vayan* kontsignaren sortzailea edo, gutxienez, publikoki erabili zuen lehena. Leloak *copyright*-a izango balu, berea izango litzateke. Izan ere, berak –J. Bordegaray ezizena erabiliz– argiratu zuen

1978an *Que se vayan* liburua Hordago argitaletxearekin. Liburua segituan bahitua izan zen. Hilabete batzuk geroago –Landazuri izengoitziarekin orduan– *Que se vayan ya* kaleratu zuen Hendaia Mugalde argitaletxearen aterkipean.

Kartzelak ate batzuk itxi baina beste batzuk ireki zizkion Xabierri. Orduan estutu baitzuen lehendik Jose Bergamin poeta espainiar errepublikazalearekin zeukan harremana. Hark azken hatsa eman artean mantendu zuen publikoki bere konpromisoa liburuko protagonistarekin, baita Euskal Herriarekin ere.

Kartzelak asko markatu zuen Xabier. Bere fazeta poetikoa lantzeko aukera eman zion. Eta horren lekuko izan zen urte batzuk geroago argiratu zuen *La cuenta de los pasos* (1998, Vosa) poesia-liburua. Liburuak dakarren eskaintza esanguratsua da oso: *A vosotros, ciudadanos sin nombre, / hermanos de las tinieblas / que pobláis las oscuras esfinges carcelarias* (Zuei, izenik gabeko herritarrei, ilunpeko anaiei, espetxeetatik esfige goibelak gorpuzten dituzuenoi).

Joan den mendeko 70, 80 eta 90eko hamarkadetan kazetaritzaren ur lasterretan nabigatu zuen kazetariok gertutik ezagutu dugu Xabier. Oraingo kazetari gazteentzat ezeguna bada ere, Xabier Sanchez Erauskin Euskal Herriko kazetaritzaren historian ohorezko tokia merezi duen profesionala da. Bidegile izan da: egieretik konpromisoagatik erreferentea, ahots gabekoei ahotsa emateagatik zigortua eta aginte ororekiko jarrera kritikoa agertzeagatik baztertua. Bere luma, zorrotza bezain fina; bere konpromisoa, sendoa bezain erosezina.

Pello Zubiriak 2006an *Larrun* aldizkariak egin zion elkarriketa antologikoan *Lubakiko kazetaria* bezala etiketatu zuen. Datozen kazetari belaualdi gaizte izan dezatela Xabier erreferente, batik bat berak bizitza osoan erakutsi dituen ausardia eta boterea zirikatze gogoa.

P.D. Aste honetan bertan etxe honetako Martxel Otamendik eta Iñaki Petxarromanek Euskal Kazetaritza Sariak jaso dituzte. Zorionak haiere. Erauskin, Otamendi, Petxarroman, hiru belaualdi, hiru erreferente, hiru ardatz. Silvia Intxaurren dok eta Jordi Evolek ere jaso dute aipamena. Zorionak haiere.

Alde Zaharreko auzo elkarte

Alde Zaharreko auzo elkartearen parte hartzen dut auzo elkartearen, zerbait egin beharra dagoelako auzoaren gainbehera gelditzeko, jada ez baita toki bizigarria, festatoki eta pixatoki bihurtuta baitago (dendak itxi eta tabernak baimo ez). Elkarte zaharrenek diote aspalditik



JIRA
Angel Erro

datorrela hori eta kontuak okerrera baino ez duela egin. Esanien nuke batzuk etsita daudela, eta, biltzen jarraitzen badute, areago dela elkarrekin duten adiskidetasunagatik, auzoaren alde tinko lan egiteko baino. Bilera

batean aurpegiatu egin diet, sotilki, inor ez mintzeko, eta erantzun ironikoren bat baino ez dut jaso. Behin batek bota zidan, edo hala ulertu nion nik, auzora etorri berriak ere auzoaren parte gara. *Gentrifikazioa* hitza ikasi eta edozeri aplikatzeko gogoa duen horietakoa.

Hurrengo bileran argi dut zer proposatuko dudun. Beteranoak koipetzen hasiko naiz, hiri osoko auzo dinamikoena gara, aitzinazaleena, konprometituena, giro onekoena eta abar; normalea da jendea hona erakartzea. Auzoa salbatu nahi badugu, beste auzo bat modan jartzea ezinbestekoa da, eta hori guk baino ezin dugu egin, interesatuenak baikara, hara joanda parrandan, kale bizitza egitera, akaso baten bat baita bizitzera ere. Jarraituko digute.

Exodoa

Rudiak ikusteak oilo ipurdia jartzen du. Ehunka lagun errepede batean oinez. Batzuk gurrupil aulkietan, umeak nagusien alboetan eta gehienak ahal duten moduan. Giza iparraldetik alde egiten ari da jendea, baina badakigu hegoaldean ere ez daukate la etorkizun ziurrik. Genozidio gauzatzen ari



BIRA
Onintza Enbeita

da. Nazioarteko kazetariak gerraz hitz egiten digute, baina gero eta argiago dago ez dagoela gerrarik Gazan. Palestinarrek ez dute urrik, ez dute janaririk, ez dute argindarrik. Lurra zeukaten eta kendu egin diete. Umeak hil diz-

kiete, ospitaleak suntsitu, eskolak bonbardatu. Eta munduak beste aldera begiratzen du. Israelek ez du su-etemik eman nahi, eta zibilak oso gutxinaka ari dira Gazatik ateratzen.

Pentsatzen jartzen zara Israel egiten ari dena beste herrialderen batek egingo balu zer gertatuko litzatekeen. Eta ez zaizkizu komunitate internazionalak egingo litzukeen orri zurian kabitzen. Israelek edozer egin dezake, ordea; baita ihesean doazenik hil ere. Irudiei begira iruditzen zait boikotu gutxi dela sionistak egiten ari direnaren aurrean. Munduak isolatu egin beharko litzuke, bizkarra eman eta bakartu. Kontrakoa da gertatzen dena mundu aldrebesean, hala ere. Kolonizatzailea da biktima eta kolonizatua exodoan doa, mundu guztiaren indiferentziaren aurrean.

De Rerum Natura

@zaldieroa

**Piratak****HITZ ETZANAK**
Andoni Egaña

Behobia eta Donostia arteko korrikaldia gaur. Berrogeita hamazortzigarren edizioa. Ia hogeita hamar mila lagun lasterka. Ikuskizun polita.

Piratatasunarekin omen du zerikusia aurtengo lasterkaldiak. Hala iragarri dute, eta hala azaltzen da nonbait elastikoetan ere. Ongi. Ez daukat ezer kontra. Baina ematen dit zer pentsatua. Gizartearen mehetze eta umetzearen zerikusirik baduela esango

nuke. Piratak? Pirata benetakoak izan nahi? Hona ideia xume batzuk:

Ez azaldu zuen korrikakideen hitzordura eta ez abisurik eman. Geratu ohean lo lasai eta ez telefonorik hartu deika hasten direnean; ez dortsala ordaindu. Topatu moduren bat antolakuntzari ziria sartzekoa; trenez hurbiltzen bazara Behobiara, saltatu geltokiko tornea; autoz bazoaz, autobideko peajeen ordaintzeari uko egin eta kilometrotako auto-ila-

rak sortu; lasterketa amaitzen baduzu, Parte Zaharreko tabernaren batean *orga* bat egin, hurrena ordaindu gabe alde egiteko modurik ez duzunean nahikoa kenduko dituzte eta; ez deitu etxekoei iritsi zarela eta ondo zaudela jakinarazteko; deitu nagusiari, amona hil zaizula -seigarrenez- eta bihar lantokira azaltzerik ez daukazula esanez; bukatu ostean sagardotegiren batera joaten bazara, hautsi errukirik gabe, edalontziren batzuk...

HIZPIDEAK**Hondakin nuklearrak****Oihana Elduairen Uranga**
@oihanaelduaien

Garofa itxi zuten, eta eraitsiko dute. Euskal Herritik kilometro gutxira dagoen zentrala hustuko dute, eta eraikina bota. Neurri zorrotzak hartuko dituzte. «Langileen segurtasuna eta ingurumenaren zaintza» dituzte lehentasun.

2012ko abenduan itxi zuten, eta 11 urte geroago eman zuen Espainiako Gobernua hura eraisteko baimena. Lanak hasita daude, baina makal joango dira; ondo bidean, 2033an amaituko dituzte. Eraikina desegingo dute, baina hondakin erradioaktiboa ez. Lekua «lehenerratu» egingo dute, hondakinak handik aterata. Atera egingo dituzte, ez desegin. Ateratzea da lanik arriskutsuena eta luzeena; zentralan dauden eta uranioa duten 2.453 elementu erradioaktibo handik ateratzea. Zentraletik atera ostean, handik metro gutxira prestatu duten behin-behineko biltegi batean gorduko dute hondakin hori guztia, hariak eta «sakoneko biltegi geologikoa» egiten duten arte; aurreikuspenen arabera, 2073ra arte. Lur azpian, sakon-sakoneko zuloa egin, hura prestatu, hondakinak han sartu, eta estali. Ezkutatu. Baina han egongo dira. Eta erradioaktiboak izaten jarraituko dute.

laz izendatu zuten energia nuklearra iturri berde, hark arriskuak dituela eta hondakinentzat aterabide egokirik ez dagoela jakinda ere. Energia behar baitu gizakiak, kosta ahala kosta.

Lebensraum intelektualala

Bizi-eremua definitzeko erabili zuen Friedrich Ratzel alemaniar etnografoak *lebensraum* kontzeptua. Bestela esanda, giza garapenerako jardueretan eragina duen geografía fisikoa deritzo horrela. Horretarako, berebizikoa da kokapea. Ondo hartaratu badago, lurraldera egokitutako jendarteak errazago izango du bere muge-tatik harago hedatea. Esan gabe doa, Ratzelen teorian oinarrituta ekin zion austriar margolariak alemaniar inperioa zabaltzeari; ekialdera aurrera, men-debaldera gero.

Egun, zaila da ez ikustea *lebensraum* intelektualik Europan. Nazismoaren kalteak nola

**LARREPETT**
Iñigo Aranbarri

ordaindu ez dakien Alemania traumatizatuak debekatu egin du Israel Gazan egiten ari den eraso-en kontrako edozein ekitaldi. Ikastetxeetan, galarazi egin ditu kufijak. Orpotik dabilko Frantzia. Darmanin Barne ministroak eskaera egin die prefektuei manifestazioak debeka ditzaten. Palestinaro banderak irain bihurtu dira, jazarri egingo dira nahinon direlarik. Lau haizeetara dabil agindua Europa zaharrean, ezin dugu utzi juduen kontrako izugarrikeria errepika dadin...

*Lebensraum*ak zer behar du? Behar du mezu ofizial bateratua, kritikarik eza eta autokritika bategarria. Behar du hedabideen gaineko kontrola, elite hizkerajabea eta elitepeko samaldak izutua

edota ergeldua. Eta behar du, bezar, pentsamendu bahitua eta intelektualitate narkotizatua.

Lurraldera egokitutako israeldar militarrek eman dizkigute bizi-eremuaren neurriak: «Pertsonari pertsonatik duena kenduta, zer geratzen da? Animalia!». Eta hala, kulturala bihurtu da Gazako auzia eta, oro har, Palestinakoa. Zibilizazioa da piztien kontra. Zein da zure antzekoagoa, Tel Aviveko informatikari bat ala Gazako arratoi bat? Ez bezar, erruki primariotik haragorik hondakin arteko ume panpinatuen kontu horretan.

Filosofoa, idazleak eta margolari austriarrak eman dituen mundu librearen diosku. Ezin da oker egon.

Zuzendaria: Amagoia Mujika Tolaretxipi **Zuzendariordea:** Eider Goenaga Lizaso
Edizio arduraduna: Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Publizitatea:** Bidera publizitatea
Lege gordailua: SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0722 | 84059 **Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain **Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 **Faxa:** (0034) 943-59 01 72
Webgunea: www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus **Publizitatea:** publi@bidera.eus
Harpidetza saila: (0034) 943-30 43 45 **Date:** 12/11/2023 **Exemplaire:** 6.335 **Editore:** Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication: Amagoia Mujika Tolaretxipi **Comission paritaire:** 0924 C 84059

Delegation Labour: Lisses 3, 64100-Baiona, Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.eus **Ordezkaritzak:** **Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Posta elektronikoa: araba@berria.eus **Bizkaia:** Urbitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.eus. **Nafarroa:** Iratxe Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.

Ez ezazue hau harrian idatzi

Zeru garbala itsasaldi bortitzak baino asaldagarriago izan daitezke. Objektu apaingarriek bizitza gorde dezakete haien baitan. Norberaren antzekoak diren pertsonaz inguratzeak etxean sentiaraz zaitzake, baina baita infernuan ere (hain zuzen ere, biak bat eta bakarra ere izan daitezke). Batzuetan norbere interpretazioa autoreek esan gura dutena baino garrantzitsuagoa da. Bukaezinak diruditen kudeaketa burokratikoiei ere heltzen zaie azken dokumentua. Itxura fisikoak ez luke eraginik eduki behar bizitzan zabaltzen zaizkigun bideetan, baina, egiaz, badu. Haizearen fereka kopetan sendagarri naturala da.

Hala da: bizitzak dosi txikitari baino ez du eskaintzen egaririk. Edo hori esango nuke gaur egun, behintzat. Izan ere, askotan harritu naute aurkikuntzatxoek urteen joanean. Entzuterakoan nik gogotik ukatu arren, aitik arrazoia zeukan

esaten zidanean hazitakoan apreziatuko nuela gitarrakorde barreiatuek eta aho-tsak baino sostengatzen ez zuten musika malenkoniatua. Arrazoia



HAMAIKA ESKU BATEAN
Leire Vargas

zeukan esaten zidanean gustatzen zitzaizkidan musikarien lana komertziala zela, baina ez zeukan arrazoirik hura maitatzeari utziko niola gaineratzean. Ez kasu guztietan, gutxienez. Eta beti ahazten zitzaion aipatzea nire adina zeukanen haren talde gustukoena zena ere, *The Beatles*, komertzialak izan zirela haien testuinguruan.

Garai hartan kolore bizidun argazki bidimentsionaletan imajinatzen nuen etorkizuna: hiru seme-alaba izango nituen irudikatzea askorik interesatzen ez zitzaidan norbaitek, eta itsas-biologoa izango nintzen, nahiz eta horrek zertan lan egitea eramango ninduen oso ondo jakin ez (tarteka izurderen bat ukitzeko aukera izatea nahikoa zitzaidan). Bestela, irakaslea izatearekin eta urtean hirutan itsas museora joatearekin konformatu behar. Begiak zabal-zabalik nituen, egia handirik non aurkituko: edozein kasutan aplikatu ahalko nituen arau moralak, bizitza osoan zehar gidatuko ninduten helburuak.

Ordutik gertatu zait inoiz aurretik ezzaguna zitzaidan paradigma batekin topo egin eta, klik, faltan nuen pieza parean neukala sentitzea. Gertatu zait material eta molde berriak ezagutu eta egokiak zirela ebatzea, eta gazteluak eraikitzen-erakitzen joatea haiekin, hormek hertsatzen nindutela nabaritu dudaneraino. Orduan dorreren bat edo hainbat eraisteko beharrik hartu nau maiz. Eta egin egin dut, min ez izan bada ere. Zuloak egin dizkiot eskuok landutako sabaiari, eta zerrua agertu da beste aldean; haize-bolada batek agurtu nau, eta arnasa hartu dut berriz.

Eskolan biologia lantzen hasi nintzenen den-denetan gutxien gustatzen zitzaidan ikasgai bilakatu zen, eta halako batean haurrak izateko gogoia edukitzeaz utzi nion, hainbat arrazoi direla medio. Behin eta berriz egin dut apustu zerbaiten alde,

barneratu dut hezurretaraino. Eta, askotan, denbora igaro da, igaro dira gertakariak eta pertsonak, eta halako batean onartu dut: eredu honek ez du balio. Batzuetan airea falta izan zait momentu batez, lurra pitzatu da oinen azpian. Beste batzuetan oharitu ere egin gabe aldatu dira berunezko galderei emango nizkiekeen erantzunak. Eta esango nuke bidean nonbait utzi niola halako galderei adierazpen simple eta argiekin aurre egiteko gai izateari. Orain harrian idatziko nukeen ezer gutxi geratzen zait esku artean.

Egongo da bizitza osoan zehar oinarri berberei eusten dionik. Egia esan, inbidia apur bat ere ematen didate itxura hori ematen duten pertsonak. Beldurgarria da argi dauden gauzen zerranda hain kontu ezdeusek osatzea. Tira, galde ieza dazue urtebete barru niri ere: beharbada esango di-

zuet bizitzaren gakoa eman didan autoreak deskubritu dudala, eta bizkarrean haren bost esaldi tatuatzeko hitzordua hartua dudala honezkerok. (Halakorik egitekotan ikusten banauzue, bidali artikulu honen esteka, mesedez).

Hau ez da une horietako bat, baina egingo nuke apustu zerbait gauzaren alde. Tartean, lagunak hurbil edukitzeak duen garrantzia. Ez dakit zer egin nahi dudan nire bizitzarekin, baina oraintxe bertan onartuko nuke lurtean geratzen zaidan tartea eguzkipean etzan eta hirur lagun onekiko elkarrizketa eternal batek hartzea. Auskalo zenbat aldiz aldatuko genukeen iritziz, zenbat aldiz sortuko genukeen elkarrengan zalantza, zenbat aldiz entzun beharko genituzkeen besteen krisi existentzialeki-ko arrangurak. Ez zait urteak igarotzeko aukera eskasa iruditzen.



DOM CAMPISTRON

EAJ eta PSEren bosgarren zuzenketaren ondorioak

Pello Otxandiano

EH Bilduren Programa zuzendaria

Lehenik eta behin, argitu dezagun kontu bat: zuzenketa honen eztabaidaren harira, bada argudiatzen duenik lege-proiektuak hizkuntza-ereduak indargabetzen ez dituen ez, dagoen horretan onartuko balitz, hizkuntza-ereduak indarrean leudekeela, eta, ondorioz, hizkuntza-ereduak legearen zioetan aipatzeak ez dakarrela aldaketarik, indarrean legokeena aipatu baino ez litzatekeela egingo.

Bada, hiru iritzi juridiko ezagutu ditugu azken boladan kontrako esaten dutenak (Juanjo Alvarezena Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, Iñigo Urrutiarena EH Bilduren hezkuntza-jardunaldian eta Sabino Torre Diezena Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenean): lege-proiektuak hizkuntza-ereduak indargabetu, desplazatu edo gainditu egiten dituela. Nabardura juridikoak gorabehera, hirurak datoz bat lege-proiektu hau lege bilakatu-ko balitz 138/1983ko dekretuak eragingo ez liokeela esatean. Hau da, hizkuntza-ereduak arautzen dituen dekretuak ez lukeela inolako eraginik hezkuntza-jardueran, eta ez litzatekeela inolaz ere baldintzatzaile legearen garapenerako: Hezkuntza Legea eta Euskararen Legea banatu egiten dira. Hori horrela bada, Euskararen Legea Hezkuntza Legearen zioetan aipatzeak aldaketa kualitatibo bat dakar: aipamen horrekin, orain bai, 138/1983 dekretuaren printzipio juridikoek Hezkuntza Lege honi eragin egingo diote: Hezkuntza Legea eta Euskararen Legea lotu egiten dira.

Printzipio juridiko horien artean, gakoak irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea da. Bosgarren zuzenketak esaten duenez, hizkuntza-proiektuak hizkuntza-ereduen sisteman oinarritzen dira; hori horrela bada, hizkuntza-helburuak edo irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea, zein dago gainetik? Hori da bosgarren zuzenketa honek gehitzen duen ziurgabetasun juridikoa, eta horrek lau ondorio konkretu izan ditzake, gure ustez, epe laburrean:

1.- EAJ eta PSEren 26. zuzenketak proposatzen duen Xedapen Gehigarriak agintzen duen erregelamentuzko garapena egiten denean, PSEk planteatzea hizkuntza-helburuen gainetik (edo parean) dagoela irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea, eta, ondorioz, hizkuntza-proiektuak Isabel Zeilaak proposatutako eredu eleaniztuneari oinarritu behar direla. Hau da, ikas-denboraren portzentaje esanguratsu batean irakas-hizkuntza hautatzeko izan behar dela, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea bermatu egin behar delako. Hortik, PSEren asmoa izan daiteke ingelesaren presentzia areagotzea euskara gutxiagoren truke, hizkuntza-helburuak bigarren mailan utzi. Uste dugu EAJ ez dela arrisku honetaz kontziente izan zuzenketa aurkezteko unean.

Ohar gaitetzen zein diskurtso darabilen PSEk: arrakasta akademikoa euskararen gainetik dago; falazia bat aditzera emanez: euskara oztupoa dela (izan daitekeela) ikasleen arrakasta akademikorako. Hizkuntza-eskakizunen kontrako epaien aurrean, berriz, honako adierazi du: lan-eskubidea hizkuntza-eskubidearen gainetik dago; aditzera emanez euskara oztupoa dela (izan daitekeela) lan-eskubidea egikaritzeko. Hain zuzen ere, PSE epailek euskararen kontra darabiltzaten argudio berberak birproduzitzen ari da.

Hainbat estamentu sozialetatik entzuten dira antzerako argudioak: «Datozen urteetan lan-indarra beharko da, eta, gure egitura demografikoa kontuan izanda, jende asko etorri beharko da kanpotik bertan lan egitera; eta ez soilik kualifikazio baxuko langileak, beharko dira, baita ere, ingeniariak eta medikuak, adibidez. Jende hori guztia beharko badugu, eta, beren familiekin etorri beharko badira, euskara oztupo izango zaigu. Jar dezagun arreta ingelesean, hori bai baita lan-munduan baliagarria izango dugun hizkuntza».

2.- Gasteiz, Bilbo, Ezkerraldea edo Donostiako ikastetxeetako guraso batzuek (A eta B ereduak zonalde hauetan kontzentratzen direnez gero) aldarrikatzea legeak A eta B ereduaren jarraitzea bermatzen diela, hain zuzen ere, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidean oinarrituz. Ondorioz, bestelakorik agintzen bazaie (hizkuntza-helburuak lortzeko gai diren hizkuntza-proiektuak garatzea, eta, helburuak betetzen ez direla egiaztatzen den kasuan, proiektuok egokitzea), guraso batzuek legeari helegitea jartzea, euskal hezkuntza judizializatuz (ohar gaitetzen Voxek estrategia argia duela horretarako, Udala Legea azken adibide). Epaitegiek ondorengo ebaz dezakete: irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea hizkuntza-helburuen gainetik dago. Horrek Legearen IV. Titulua hankaz gora botako luke, gaur egun gauden leku berean utziko gintuzke. Hizkuntza-eskakizunen araubidearekin gertatzen ari denak nahikoa argi ematen digu epaileen interpretazioa zein izan daitekeen jakiteko.

3.- A eta B ereduak ikastetxeek Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren osaketa oztopatzea. Zer gertatuko da, adibidez, esandako zonaldeetan, eskola-segregazio-

ari aurre egiteko, eragin-gune bakoitzeko ikastetxeek Hezkuntza Konplexutasun Indize bera izan dezaten (legeak hala agintzen du) ikasleak ikastetxeen artean banatu beharko direnean? Zer gertatuko da D ereduaren matrikulatu den ikasle bat B ereduak ikastetxe batera bidaltzen bada, edo alderantziz? Non bukatzen da hau ez bada epaitegietan, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea eta gizarte-kohezioa kontrajarriz? Edozein kasutan, A eta B ereduak ikastetxe horiek segregazioaren katalizatzaile izango dira migrazio-fluxuen areagotze-garaietan (ikus Silvan&Miracleren aztertuta soziodemografikoa).

4.- Kasurik onenean, hizkuntzen ikas-irakaskuntzak eskatzen duen bultzada motelduko du. Legeak ezarritako hizkuntza-helburuetara hurbildu nahi badugu, eraldaketa handia behar da hizkuntzen diktikan, ikastetxeetan jarraitu beharreko estrategia soziolinguistikotik, landu beharreko dimentsioetan, irakasleen formazioan, hezkuntza formalean eta ez-formalaren arteko uztarketan eta abar, noiz eta hezkuntza-sistema aldaketa-aro handi baten erdian dagoenean (aniztasun soziolinguistikoa, digitalizazioa, jaiotza-tasaren beharrekada, aldaketa metodologikoa). Ez da aldaketa inkrementaletarako garaia, jauziak behar ditugu; legeak ez du egiten utzi behar, baizik eraldaketa bultzatu, eskala handiko erreakzio baterako garaia baita, ez eboluzio positibo natural baten esperantziari eustekoa. Eta horrek argitasuna eta determinazioa eskatzen du, hain zuzen ere, bosgarren zuzenketa honek kentzen duena: hizkuntza-helburuek irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidearen gainetik behar dute, bestela legeak ez baitu helburuok lortzera bultzatzeko gaitasun arautzailearik.

ZUZENDARIARI

Lekaioren populismoa

Finantza munduko oinarritzko printzipioetako bat da zergak negozio baten arriskuaren arabera ezarri behar direla. Bestalde, *galera*k Repsol edota Petronor bezalako enpresek aspaldi ahaztu zuten hitza dela esateak ez luke inor harritu behar. Izan ere, erregaiaren salmenta arrisku txikiko negozioaren sinonimo da.

Azken urteetan, bankuek gain, enpresa hauek benetako diru prentsa erraldoi bilakatu dira. Denbora tarte horretan, beraien errentagarritasuna defendatzen oso trebeak direla erakutsi dute. Baita bezeroak

ederki sufritzen ikusi ditzutenean ere. Ezer berezirik ez, izan ere, kapitalismoak horrela funtzionatzen du.

Agian, enpresak berdin tratatuko dituen eta aurreikusteko modukoa izango den zerga sistema egonkor bat behar dugula esan duen Iñigo Ansola ere ados egongo da nik esandakoarekin. Baita, noizbait bere kargua laga, eta -data horretatik betiere bi urteko epea gainditu ondoren- beraien enpresetan goi-kargu bat eskaintzeko eragozpenik izango ez duten Emiliano Lopez Atxurra edota Josu Jon Imaz bera ere.

Adierazpen hauek entzutean, ordea, he-dabideek inoiz egingo ez dioten hurrengo galdera hau etorri zait burura: zein fakturratzen ditu Energiaren Euskal Erakundeko zuzendariak hau esateagatik?

Izan ere, Euskal Herria ate birakarien paradisu bilakatu da. Klase agintaria oztoporik gabe dabil politikaren eta enpresa publiko zuten pribatuen arteko joan-etorrian. Gizartearen gertatzen ari diren aldaketa garrantzitsu asko, biztanleriari bizkar emanda aurrera eramaten ari dira. Interes bereziak eta demokrazia non hasi

eta non bukatzen diren jakitea geroz eta zailagoa den herrialde batean bizi gara. Lobbyek eta hauen alde lan egiten duten lekaioek -barkatu, politikariek- enpresa erraldoiei egindako eskaerak areagotzeko saiakera guztien aurka egiten dute sistematikoki. Gaiarekin tematuz gero euskal herritarrok azak jan eta gure etxeak kan-delekin argitu beharko ditugula entzun genuen garaiako antzeko mehatzuzko mezuak erabiltzen dituztelarik.

Ondo letorkiguke gobernu postuetan lortutako ezagutza eta kontaktu berri guztiak herriaren ondasun direla gogoan izatea. Eta, ondorioz, ezin zaizkiela, inolaz ere, enpresa pribatuei saltu.

Aritz Soloeta Garmendia. Otxandiano



BERRIAk irakurlearen eskutitik plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tartek berrak, eta **BERRIA**k mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berría, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitza Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus.

GUZTIONA
ZAINDU,

ERRESPETUA

HAUTATU

ERRESPETUA
RESPECTO

 metro
bilbao



metro bilbao





Mikel Oiarzabal, atzo, Almeriari sartutako gola ospatzen. Neurketako lehena izan zen kapitainak sartutakoa. CARLOS BARBA / EFE

Alaves ezustea ematen saiatuko da Bartzelonan

+ Alavesek lantegi zaila du gaur. Arabarrek Monjuicen jokatuko dute, Bartzelonaren aurka (16:15, La Liga). Joko aldetik, etxeko taldea kaskar samar ari da, baina egungo liga txapelduna da Xavi Hernandezen taldea. Alaves ezustea ematen ahaleginduko da. Luis García Plaza arabarren teknikariak hau adierazi zuen atzo aurkariaren inguruan. «Egia da azken partidetan ez dela ondo aritu. Hori dela eta, Bartzelona oso motibatuta egongo dela uste dut, eta zaleen aurrean partida on bat egiten ahaleginduko dela. Baina gure onena emango dugu, eta estu hartzen saiatuko gara».

Ez da espero teknikariak aldaketa asko egitea hamaikakoan. Ezusterik ezean, bost atzelaririkin jokatu du. Aleksandar Sedlarrek lesio larria izan zuen aurreko partidaren, eta litekeena da haren lekua Rafa Marinek hartzea atzean. Erasoan, berriz, Samu Omorodionen abiadura baliatzen saiatuko da Alaves.

Puntu estrategikoak

Realak irabazi egin du Almeriaren aurka, etenaren aurreko partidaren • Hiru golak geldikako jokaldietan sartu dituzte; bat, penaltiz • Aurkariaren hutsak baliatu ditu

1

Almeria

Golak. 0-1: Oiarzabalek (62. min). 1-1: Arribasek (76. min). 1-2: C. Fernandezek, penaltiz (91. min). 1-3: Zubimendik (95. min).

Jon Ander De la Hoz

Realak balio handiko hiru puntu eskuratu zituen atzo Almerian. Talde txuri-urdinak hiru puntuak eskuratu zituen jokaldi estrategikoetan sartutako hiru goli esker, eta kokapen estrategikoan jarri da ligaren etenaren atarian. Imanol Alguacilen taldeak, gainera, irauli egin zuen azkenaldiko joera, eta neurketaren azken minutuetan lotu zuen garaipena, joan zen larunbatean gertatutakoaren kontrara.

Alde horretatik, Almeriako

3

Reala

neurketak ez zuen asteazkenean Txapeldunen Ligan jokatuakoa trazarik izan. Benficaren aurka, partida hasieran erabaki zuen lehia; oraingoan, berriz, luzapenean. Realak ondo ekin zion Almeriaren aurkako norgehiagokari, lehen hogeita minutuetan partidaren kontrol ia erabatekoa izanda –Sadiq Umarrek zutoinera bota zuen baloia–, baina ez zuen aurkariaren ate aurrean asmatu.

Hain justu ere, aurrelari nigeriarra izan zen berritasun nagusietako bat. Imanolek hasieratik aritzeko aukera eman zion bere talde ohiaren zelaian. Sadiq saiatu zuen bere lehengo zaleen aurrean, baina asmatzea falta izan zitzaion. Aritz Elustondo, Arsen Zakharyan eta Beñat Turrientes ere hamaikakoan izan ziren.

Donostiarrak ez zuten lar sufri-

tu arratsalde osoan. Lehen minutuetako nagusitasuna apaldu egin zen minutuek aurrera egin ahala, baina Almeriak ez zuen estutu



Berdinketaren gola guk sartu dugu, baina azken minutuetan konpondu dugu. Garaipena justua da, aukerengatik»

Imanol Alguacil
Realaren entrenatzailea

Alex Remiro atezaina. Hala, patxadaz amaitu ziren lehen 45 minutuak, eta bigarren zatia suspertu zuen jokoa.

Realak agintea hartu zuen ohiko jokalariei gehiago zelairatu ahalak; Mikel Merino eta Takefusa Kubo izan ziren haietako bi. Txu-

ri-urdienek erasora egin zuten tantaka, eta arriskua aurki islatu zuen gol aukeratan. Turrientesek berak izan zuen argiena; beasaindarrak baloia sarreratu zuen, baina Diaz de Mera Escuderos epaileak ezerezean utzi zuen jokaldia, erdilariak eskuz ukitu zuela eta.

Baleko gol baten aurrekaria izan zen, ordea. Hamar minutu eskasera, Realak aldeko kórner jaurtiketa bat baliatu zuen mar-kagailuan aurrea hartzeko. Kuboren erdiraketa buruz orraztu zuen Elustondok, eta Mikel Oiarzabalek, bigarren zutoinean, trabarik gabe errematatu zuen. Almeriaren atzeko lerroak markarik gabe utzi zuen kapitaina.

Realak egina zuen zailena, etxekoan erasoko ekinaldiak oso urriak izan baitziren ordura artean. Nolanahi ere, Gaizka Garitanoaren taldeak aurrera egin zuen,

deus galtzekorik gabe, eta protagonismo handiagoa izan zuen Remiroaren arearen inguruan. Azkeneko, saria eman zion horrek, Arribasek berdinketaren gola sartu baitzuen etxekoan mesedetan.

Ordurako, Realaren jokoak eraginkortasuna galdua zuen erasoan. Heine batega, Oiarzabalen eta Ander Barrenetxearen aldatetarik gabe, Imanolek jokalarizumatuak zelaitik kentzeko hautua egin zuen, eta horrek eragina izan zuen: «Uste dut berdinketaren gola guk sartu dugula gure atean, baina azken minutuetan konpondu dugu. Uste dut justua dela, sortu dugun aukera kopuruarengatik».

Almeriak arriskua sortu zuen golak hauspotuta, baina Realak erremedioa jarri zion azken minutuetan. Arauzko denbora gaindituta sartu zituen bi gol; Carlos Fernandezek bigarrena, penaltiz, jaurtiketa indartsu baten bidetz, eta Martin Zubimendik hirugarrena. Donostiarraren gola lehen-dabizikoaren berdina izan zen, esate baterako. Kuboren kórnera, orraztea, eta, Almeriaren hutsategia baliatuta, sarera. Alde horretatik ere, irabazteko puntu estrategikoa aurkitu zuen Realak atzoko neurketan.

Eibarrek galdu egin du Atletico Madrilren zelaian (3-0)

FUTBOLA • Herenegun Realak Real Madrilen aurka 7-1 galdu ostean, atzo ere Madrilen aritu zen beste euskal taldeak, Eibarrek, ezin izan zuen punturik batu. Ye-ray Martinen taldeak 3-0 galdu zuen Atletico Madrilren zelaian. Athleticek Madril CF hartuko du gaur Lezaman (18:30 Dazn).

Beti Onak taldearen garaipen baliotsua Eldan (27-28)

ESKUBLOIA • Beti Onak taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen atzo Espainiako Ohorezko Mailan, jaitsiera sailhesteko borrokan. Eldari irabazi zion: 27-28. Asobal ligan, Anaitasunak 32-29 irabazi zuen Torrelavegaren aurka. Bidasoak, berriz, Sinfini egin-gio dio bisita gaur (20:00).



Iraitz Zubizarreta. GORKA RUBIO / FOKU

Zubizarreta, lau eta erdiko promozio txapeladuna

PILOTA • Iraitz Zubizarretak jantzi zuen atzo Lau eta erdiko Txapelketako promozio mailako txapela. Ataungoak 22-21 hartu zuen mendean Julen Eguiguren. Lehen txapela du. Zubizarreta 10-3 aurreratu zen, baina Eguigurenek estu hartu zuen azkeneko. Azken tantoa ikusgarria izan zen.

Baskoniak eta Bilbo Basketek gaur jokatuko dute

SASKIBALOIA • ACB ligako neurketak izango dituzte gaur Baskoniak eta Bilbo Basketek. Arabarrek Obradoiroren pabiloian jokatuko dute (12:30), ostegunean, Euroligan, Atenasen lortutako garaipena hauspotuta. Bilbo Basketek Real Madril jaso-ko du, liderra. (17:00).



Osasunako Jon Moncayola Las Palmaseko jokalariz inguratuta. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Ezin abiadura lortu

Osasunak puntu batekin konformatu behar izan du etxean, Las Palmasen aurka • Budimirrek sartu du gorritxoaren gola

1

Osasuna

1

Las Palmas

Gola. 0-1: Moleiro (69. min. 1-1: Budimirrek (72. min)

Ainara Arratibel Gascon

Osasunak abiadura hartu ezinik jarraitzen du ligan. Horren arrazoia nagusietako bat da Sadarren nahi eta ezin ari dela. Azken bi partidak zaleen babesean jokatu ditu, eta aukera aparta zuen puntuko kopuru on bat bildu eta sailkapenean apur bat gora egiteko. Baina aurreko larunbatean 2-4 galdu zuen Gironaren kontra, eta atzo puntu bat baino ez zuen bildu Las Palmasen aurka: 1-1. Berriz ere saiatu zen, eta minutu askotan jokoaren ekimena izan zuen. Baina ez zen nahikoa izan. Aldearrez, bisitariak jarri ziren aurretik. Gorritxoek ia erreskadan berdindu zuten, eta etenera 14 punturekin doaz.

Las Palmas azken bost liga partidetatik bakarra galtzetik zetorren. Baina Osasunak ondo ekin zion neurketari, eta pare bat aldiz gerturatu zen bisitarien atera. Presio on bati esker, estu hartu zuen aurkaria lehen minutu horietan Jagoba Arrasateren taldeak. Hastapen horretan, gol aukera garbiena Budimirrek izan zuen, 14. minutuan. Abagune bikoitza izan zen, gainera. Valles atezaina-

rekin aurrez aurre zegoela, Marmolek ozta-ozta aterazio balaioa, eta hurrengo jokaldian Mojicaren errematea gutxiatik bidali zuen kanpora aurrelari kroaziarrak. Nagusitasun hori gol batekin birlibiltzea falta izan zitzaion Osasunari. Horiak baloia pazientziatz mugituz saiatu ziren etxekoaren presioa gainditzen, eta partidaren erritmoa apur bat geldotu zuten. Arrasaterenei partida bizia komeni zitzaion, eta hegoaldeko min egitea. Halako jokaldi batean Mojicaren beste erdiraketa bat iritsi zen. Berritxo ere Budimirrek egin zuen errematea, oraingo ho-



Partida ona jokatu dugu. Une kritikoa izan da haiek aurretik jartzea, baina zoriez berehala berdindu dugu»

Jagoba Arrasate
Osasunako entrenatzailea

netan buruz; Vallesek, ordea, gelditu bikaina egin zuen. Lehen zatia hasi bezala amaitu zen: 0-0.

Bigarrenean ez zen aldaketa askorik izan jokoan. Osasuna izan zen partidaren bila joan zena; Las Palmas, berriz, eusten aritu zen, eta baloi jabetza luzeak izaten. 49. minutuan gorritxoek aukera oso ona izan zuten aurretik jartzeko. Korner batean izan zen. David

Garcia, jauzi bikain bat eginda, buruz errematatu zuen. Baina golaren arrastoa atera zuen Vallesek baloia, gelditu ikusgarri bat eginda. Osasunako jokalariek eta zaleek baloi sartu egin zela egin zuten protesta. Hala zela zirur-

dien. Baina Figueroa Vazquez epaileak ez zuen horrela ikusi.

Zerbait aldatu asmoz Jagoba Arrasatek aukia mugitu zuen. Barja eta Moncayola zelaieratu zituen, Peñaren eta Moi Gomezzen ordez. Aldatu zena, haatik, markagailua izan zen, Las Palmasek gola egin baitzuen atzoko partidaren lehen jaurtiketan. Moleirok sartu zuen, 69. minutuan. Bisitarien harrobiko izarrak, ezkerretik burura sartu, eta area ertzetik egindako jaurtiketa bikain batekin gainditu zuen Sergio Herrera.

Osasunak 20 minutu zituen aurretik, gutxienez berdinketa lortzeko. Eta egin zuen; berehala, gainera, 72. minutuan. Eskuin hegoaldeko ondo sartu zen Moncayola. Erdiraketa ona egin zuen, eta lehen zutoinera bete-betean sartu ziren Budimir eta Coco. Las Palmaseko jokalariek gola bere atean sartu zuela eman arren, Osasunako aurrelariari eman zitoten. Nafarrak ahalegindu ziren garaipena lortzen. Erdiraketen bidez sortu zuten arriskua azken txanpan. Horietakoa batean Raul Garcia de Harok gertu izan zuen gola. Haren burukada, ordea, kanpora joan zen.

Partidaz ondorengo azterketa egin zuen Arrasatek. «Partida ona egin dugu, baina ez da posible izan. Une kritikoa izan da haiek aurretik jartzea, baina zoriez berehala lortu dugu berdinketa».

Deustuko Unibertsitatea

INFORMAZIO SAIOAK

Azaroaren 6tik abenduaren 14ra

Aurrez aurre eta online

Nor izan nahi duzu?

- zuzenbidea
- enpresa
- ingeniariatza
- hizkuntzak
- komunikazioa
- politika eta nazioarteko harremanak
- gizartea
- osasuna
- hezkuntza eta kirola

Konsultatu datak eta ordutegia

➤➤➤ Eman izena! | deusto.eus/saioak

Julen Etxeberria

Maddi Aallak (Plentzia, Bizkaia, 1997) bi helburu zituen 2021eko udan, Zuazo utzi eta Bera Berara iritsi zenean: atezain hobea izatea, eta tituluak irabaztea. Biak bete ditu: atezain hobea da, eta, hura atean egonda, Bera Berak hiru titulu irabazi ditu: Espainiako liga, kopa eta superkopa. Baina gehiago nahi du. Argi du zer nahi duen orain: Europako Ligako multzoen faserako sailkatzea. Duela bost urte aritu zen azkeneko Bera Berara ligaxka batean, EHF kopan.

Amaitu da Espainiako Ligako lehen itzulia. Lider zarete, Elkek jokatu zain. Zer nota jarriko zenioke taldeak egindako lanari?

Nota ona jarriko nioke. Ondo aritu gara: partida bakarra galdu dugu, Malagaren pistan, eta beste bat berdindu, azkenekoa, Aularen pistan. Gainontzeko bederatzik partidak irabazi ditugu. Hobeto egin daitekeela? Bai, baina lan ona egin dugu.

Imanol Alvarezen ustez, «oso ondo» ari zarete lehiatzen.

Erabat ados nago. Askotan ez gara nahi bezain ondo aritu, baina, hala ere, irabazi egin dugu. Horren azalpena da oso ondo lehiatzen ari garela eta azkenearaino borrokatzen ari garela.

Estutasun horiek baieztatu egin dute aurreikusia zegoena: lehia handia dago ligan.

Hala da. Aurreko denboraldien aldean, estuago dago sailkapenaren goialdea. Talde batzuk oso ondo aritu gara. Horregatik, eta pista oso zailtan jokatu dugulako, uste dut lehen itzuliaren balorazioak oso ona izan behar duela.

Zertan nabarmendu zarete?

Defentsa da gure indargunea, eta, batzuetan lan horretan kaskarrago aritu garen arren, itzuli guztia kontuan hartuta, oso ondo defenditu dugu. Puntu asko lortu ditugu defentsari esker.

Zertan hobetu dezakezue?

Erasoan zailtasunak izan ditugu.

Partiden hasierak ere lana eman dizuete.

Bai, eta izan daiteke zenbait partidatan kosta egin zaigulako hasieratik bete-betean aritzea. Baina gai izan gara beti lehiakor izaten eta gogor borrokatzen. Horrek puntu asko eman dizkigu.

Zer moduz aritu zara zu?

Oso gustura ari naiz. Atezainok errazago gelditzen ditugu baloiak defentsa ondo ari denean. Alice [Fernandes] eta biok oso ondo aritu gara partida gehienetan.

Urruti joan gabe, oso ondo aritu zinen ostegunean, Aularen pistetan. Taldea larri zebilen, eta zure geldiketek suspertu egin zuten.



OSCAR ARALJO

«Ligaxkarako sailkatzea aurrerapauso handia litzateke guztiontzat»

Maddi Aalla • Super Amara Bera Berako jokalaria

Bera Berak Europako Ligako hirugarren kanporaketako joaneko partida jokatu du gaur, Norvegian, Solaren aurka (18:00, ETB4). Aallak taldearen helburu bera du: berriz ere aritzea Europako ligaxka batean.

Aula oso talde zaila da: segituan eman diezaioke buelta emaitzari. Halakoetan, atezainak adi-adi aritu behar du une oro. Halaxe aritu nintzen ni. Oso pozik nago. **Hain zuzen ere, Alvarezen iritziz, Aula «kontrario aproposa» izan da Solaren aurkako Europako Ligako kanporaketa prestatzeko, daukan jokamoldeagatik.**

Aulak oso azkar egiten du korri, baita Solak ere. Aula bete-betean aritu zen, eta Sola ere horrela ariko da. Mesede egingo digu Aularen aurka jokatu izanak.

Alvarezek aitortu zuen «minutu bakar bat» eskaini zeniotela Aularen aurkako prestatzeari. Sola besterik ez zenuten buruan? Gutxi gorabehera, bai. Taldean bat

gatoz: gure lana ondo egiten badugu, edozeini irabaz diezaiokegu. Aste honetan, nagusiki, Solaren aurkako prestatu dugu, baina horrek ez du esan nahi Aularen aurkako gutxietsi genuenik. Garrantzitsua zen gutxienez puntu bat lortzea, eta lortu genuen.

«Azken partidaren gure funtsa berreskuratu dugu, eta gu izan gara berritako ilusio eta gogo handiz ariko gara»

«Argi izan behar dugu 120 minutuko dela kanporaketa; ez diogu asko erreparatu behar arierioaren ospeari»

Asteko prestatetak agerian zuten du klubak garrantzi handia eman diola Europako lehiaketari. Nabari duzue hori?

Bai. Nik hirugarren denboraldia dut taldean, eta beti izan da helburu nagusietako bat Europako ligaxkan aritzea. Baina, aurtan, helburu horrek garrantzi handiagoa du. Iazko esperientziak zapore gazi-gozoa utzi zigun: atarian geratu ginen. Aurtan, kosta ahala kosta sailkatu nahi dugu. Eta sinetsita gaude lor dezakegula.

Itxaropentsu zaudete.

Bai. Aularen aurka jokatu aurretik ez ginen ari nahi bezain ondo, baina azken partidaren gure funtsa berreskuratu genuen, eta gu izan ginen berriro. Ilusio eta gogo han-

diz ekingo diogu Europako kanporaketari.

Zer litzateke ligaxkarako sailkatzea?

Kirol mailan, aurrerapauso handia litzateke guztiontzat. Zaleentzat, berriz, opari ederra litzateke: bi astean behin ariko litzateke Europako talde indartsu bat Donostian. Bultzada handia emango lioke eskubaloari.

Erronka zaila duzue, aurkari oso gogorra baita Sola: laugarren da Norvegiako liga indartsuan.

Oso talde indartsua da, eta oso jokalaria onak ditu. Norvegiako taldeak diziplina handikoak dira: ez dute egiten ezer ikusgarririk, baina egiten dutena oso ondo egiten dute. Sailkatu nahi badugu, adia eta bete-betean aritu beharko dugu 120 minutuetan.

Nola egin diezaiokete min?

Europako, ohituta daude 6-0 defentsa oso itxien aurka aritzera, eta guk min egin diezaiokete beste defentsa bat eginez, mugikortasun handiagokoa: adibidez, 5-1ekoa.

Solak bizi-bizi jokatzen duela kontuan hartuta, ez zaizue komeni joan-etorriko eta gol askoko partida bat.

Ezta pentsatu ere. Solak oso azkar egiten du korri; horrela jokatzen du erosoan. Ezin gara aritu joko horretan, haiek landuagoa baitute, eta gehiago menperatzen baitute. Korrika hasten bagara, zaildu egingo zaigu partida.

Zer ikasi duzue aurreko sasoi-tako esperientziatik?

Batetik, argi izan behar dugula 120 minutuko kanporaketa dela; hau da, joaneko jokatzen ari garenean kontuan hartu behar dugu itzuliko falta dela eta, irabazi ala galdu, joanekoaren emaitza oso garrantzitsua dela. Bestetik, ez diogu gehiegi erreparatu behar aurkariaren ospeari. Duela bi urte, adibidez, Parisen aurka jokatu genuen. Izenez, punta-puntako taldea da Paris, baina kanporatu egin genuen. Gureari erreparatu behar diogu.

Zer emaitza litzateke balekoa joanekoan?

Irabaztea [barrez]. Galtzekotan, oso gutxiatik galdu beharko genuke: bizpahiru golez gehienez. Itzuliko jokatu dugu gero, eta, gainera, etxean.

Nahiago duzue horrela?

Bai. Hobe da etxean aritzea zerbait jokoan badago.

Garrantzitsua izango da zaleen babesa.

Oso. Iaz, sekulako giroa sortu zuten Gaskan, Besançonen aurkako itzulikoan. Seguru nago beste horrenbeste egingo dutela aurtan. Guretzat oso garrantzitsua da haien babesa izatea.

Newsan

23

IGANDEKO BERRIA
2023ko azaroaren 12a

Isabel Herguera

Donostiako 71. Zinemaldiko lehia aurkeztu ostean, datorren astean iritsiko da zinema aretoetara 'Sultanaren ametsa', zuzendariaren lehen film luzea. Utopia feminista bat irudikatu du. • 21-25

Literatura • 26

Chris Offutt, AEBen alde ezkutua azaleratzen duen idazlea

Musika • 28

Dantzarako disko batekin estreinatu da Romy

Bertsolaritza • 30-32

Xabat Galletbeitia nagusitu da Berrizen, eta Julio Soto Agoitzen

«Ezinbestekoa iruditzen zait amets egiteko gaitasuna»

Isabel Herguera • Zinemagilea

Donostiako 71. Zinemaldiko lehian aurkeztu ondotik, datorren astean iritsiko da zinema aretoetara 'Sultanaren ametsa' filma. Utopia feminista bat irudikatu du bere lehen pelikula luzean.

Ainhoa Sarasola

Donostiako 71. Zinemaldian, Euskal Zinemaren Irizar saria eskutetan zuela, amonarekin, amarekin eta inguruan izan dituen emakume guztiarekin gogoratu zen Isabel Herguera (Donostia, 1961). Zinemagileak Saile Ofizialean aurkeztu zuen bere lehen film luzea, *Sultanaren ametsa*. «Esperientzia akiturria izan zen emozionalki. Orduantxe bukatu genuen filma, eta bat-batean Zinemaldiaren maila-ko jaialdi batean ikuste, aldi berean etxean egotea bezala dena... emozio zirkulara bat izan zen. Baina ez zen leku hoberik estreinaldirako; amets bat izan zen». Hain zuzen, ametsa ideia garrantzitsua da haren filmean, utopia feminista bat baitu ardatzean animaziozko kontakizunak. Tokioko Nazioarteko Zinemalditik igaro ostean, Alemaniara, Koloniako Unibertsitatean eskolak ematera itzuli berriant hartu du solasareko tartea, pantailaren beste aldetik. Baina aurki izango da berriro ere sorterrian, heldu den astean iritsiko baita filma zinema aretoetara.

Oinarri feminista argia du zure filmak: Begum Rokeya Hossain idazle bengalarraren izen bereko ipuina. Irakurri bezain pronto izan omen zenuen argi zinemara eramari nahi zenuela istorioa.

Halaxe da. New Delhiko arte galeria batean egin nuen topo ipuinarekin, eta soilik ezala ikusita pentsatu nuen hori. *Sultanaren ametsa*. *Utopia feminista* bat irakurri nuen azalean, eta Begum Rokeya Hossainek 1905ean idatzi zuela. Proposatzen du mundu alderantzizkatu bat, non emakumeek duten jakintza eta boterea, eta gizonek etxean gordeta dauden. Hezkuntza formalera sarbiderik izan ez zuen andre batek idatzi zuen, gainera. Eta liburua irakurri gabe

ere, iruditu zitzaidan hain erradikala eta, aldi berean, hain garaikidea... pentsatu nuen hor bazegoela lantzeko moduko materiala.

Mendea du ipuinak, baina badu gaurkotatuen. Inoiz bihurtuko al da egia istorioaren mamia?

Tira, zehazki proposatzen duena baino gehiago, errealitate bihurtu behar dena da —eta hala izatea espero dut bi belaunalditan edo— jada ez dugula aldarrikatu behar-ko berdintasunean bizitzea. Uste dut, eta zinez espero, berdintasuna zerbaite normala izango dela.

Dena den, filmean ez duzu soilik ipuin hori azaldu; liburua eta egilea bilatzeko lnes protagonistaren bidaia ere hor dago. Noiz eta nola erabaki zenuen bi istorio paralelo elkar harilkatzea?

Oso argi genuen andreen herrialdearen ipuinaren egokitzapen bat eragi nahi genuela. Halaber, egileari buruzkoak kontatu nahi genituela ere oso argi genuen. Eta, aldi berean, bi pieza horiek elkarri josteko hari bat behar genuen. Hala bururatu zitzaigun amets egiteko gai ez den gazte donostiar honen bidaia kontatzea; Begum Rokeya Hossainengan topatzen du norabidea erakutsiko dion itsasargia, eta bidaia iniziatiko moduko hori egingo du egilearen bila.

Inesek ezin du amets egin, eta horixe izan liteke filmaren gako nagusietako bat. Alde horretatik, beharrezkoak dira utopiak gaur egungo munduan?

Ezinbestekoa iruditzen zait amets egiteko gaitasuna, norbere burua aldatzeko tresna baita; ez bagara gai amets egiteko, ez gara gai irudikatzen, ezta gure ingurua hobetzeko ere. Eta, bestetik, utopiarren ideia ere bai; gai izatea bestelako munduak, erabat alderantzizkatuak irudikatzen, eta horrek gudan sorraraz dezakeena edo geure burua ispilu baten aurrean

ikusteko. Hori izan da niretzat esperientzia hau: neure burua ikusi ahal izatea, agian, gizon batek ikusten nauen moduan. Horrek ere gogoeta ugari sorrarazi dizkit. **Uneren batean, erabaki zenuen istorio hau film luzeago batean kontatu beharra zenuela, eta ez labur batean, orain artean landu izan duzun formatua baita. Horrek funtsean asko aldatu al du lan egiteko zure ohiko modua?**

Neurri batean, bai. Labur batean, dena eskurago izaten dut, kontrolatuago, eta nire eskua irudi bakoitzean dago nolabait. Film luze batean, aldez, jende gehiagorekin lan egin behar duzu, bestela ezinezkoa baita, eta, beraz, konfiantza izan, eta eskuzabalago jokatu behar duzu. Aldi berean, emaitza handiagoa da, jende askoren talentutik abiatzen baitzara. Zuzendaritza ere oso ezberdina da; ez da hainbeste zure eskuak zuzenean paperaren gainean egotea, baizik lanean ari den pertsona emozionalki kutsatzea, filma sortzeko nor bere onena jar dezan. Horretan sumatu dut alderik handiena. Gehituko nuke film honetan funtsezkoa izan dela lantalde osoak, Gianmarco Serrak zela ekoizleek egindako lana; ez da pertsona baten lana, baizik eta talde batena.

Animazio teknika desberdinak baliatu dituzu istorioaren zati bakoitzeko kontatzeko. Kontakizunak eskatzen zizulako, ala animazioaren aniztasun eta aberastasun hori dena aldarrikatze-ko edo erakusteko ere bai?

Arrazoiak askotarikoak ziren. Laburretara ohitua nago, eta, horietan, adierazpideak beti du zerikusia baliatzen duzun materiarekin. Labur bakoitza erronka bat da niretzat erabiliko dudana materiari begira, dela tinta, harea, henna edo dena delakoa. Adi egotera behartzen nau, eta sortzeko gogo bi-



zia eragiten dit. Beraz, hasteko, material desberdinekin aritzeak lanerako asko motibatzen naue-lako erabaki nuen hala egitea.

Gero, egin nahi genuenaz pentsatu eta talde bakoitzari irtenbideak aurkitu ahal, konturatu ginen henna perfektua zela andreen herrialdea irudikatzen, duen balio sinbolikoagatik. Eta aldi baterako tatuajeekin aurrez Indiako emakume artistekin tailerrak eginak nituen, ongi egokitzen zela iruditu zitzaigun. Bestetik, izugarri gustatzen zaizkit ebakigarriak eta itzalen teatroa; direnak direla ere, liluratu egiten naute. Eta pentsatu genuen ezin egokiagoak zirela idazlearen bizia ilustratzeko, zen haren garaian ere baziren entretimenimendurako modu bat. Eta akuarela, berriz, aurrez erabili eta ongi ezagutzen dudana teknika bat delako, banekiena samur samarra dela sistema industrialago baten txertatzeko [akuarela osatu dute filmaren parterik handiena].

Zure ustez, prozesu industrialak gehiegi baliatzen dira gaur egun animazioan? Prozesu artisau-koak hobetsi izan dituzu zuk...

Bai, eskulana aldarrikatu ohi dut, hori gustatzen baitzait niri. Baina egia da azkenean dena dela digitala. Nik lanari heldu behar diot gehien gustatzen zaidan alderditi-ka, eta, hori margotzea denez, hortik ekiten diot, pintatzea izugarri gustatzen baitzait. Gero, hori egokitu behar dut prozesu industrialera, baina aldarrikatzen dut artisau lan hori, horretan gozatzen baitut gehien. **Horrek zerikusia izango du baliabideekin ere, finantzaketarekin, ezta? Zaila da zurea bezalako film bat askatasunez egiteko finantzabideak aurkitzea?**

Noski, hori ere zaila izan da. Hasteko, ez nuelako inoiz film luze-rik egin eta, hortaz, ez nuelako inolako eskarmenturik horretan. Bestetik, oso film pertsonala delako, autore film bat. Eta hirugarrenik,



GORKA RUBIO / FOKU

prozedura industrial hori, nola-bait esatearren, industriaren ohiko kanonetik pixka bat ateratzen delako. Beraz, bai, hasieran pixka bat kostatu zitzaigun finantzaketa lortzea, baina lortu genuen.

Tekniketan bezala, hizkuntzetan ere aniztasunaren alde egin duzu, gutxienez bost hizkuntza entzuten baitira filmean. Argi zenuen hala egin nahi zenuela?

Bai, bai. Hasieratik nuen argi filma bidaia bat izanik soinuuzkoa ere bazela, eta soinuuzko bidaiek hori dakarte, leku bakoitzean soinu ezberdina entzuten dela. Hizkuntza ulertu edo ez, niretzat funtsezkoa zen; konfiantza handiagoa dut soinuari, hitz bakoitzaren esanahian baino.

Harreman luzea duzu Indiarekin. Zer du herrialde horrek sortzera hainbeste motibatzen zaituena? Ez dakit nondik datorren Indiarekiko mirespen edo pasio hau. Gogoan dut nebak, haur txikia nintzela, postal bat oparitu zidala;

miniatura moduko margolan bat zen, non Mogolen gorteko eszena bat irudikatzen zen, eta harrigarria egin zitzaidan. Gerora, urteekin, han izan naiz, Indiako jendea ezagutu dut... Oso ongi sentitzen naizen leku bat da; hizkuntza ez ulertu arren, berdin dio, oso etxekoa sentitzen dut. Gauza asko sorrarazten dizkit; lasaitasun handia ematen dit, pintatzeko eta istorioak kontatzeko gogo handia ere bai... Etxean nago han.

Orain dela urte dezente, Donostian ikusgai izan zenituen Indian landutako bidaia koadernoak, eta orain ere ikusgai dituzu Tabakalerako erakusketan.

Bai, egia! [Irriz] Dena koadernoetatik dator eta! Baita film hau ere! Urte asko dira koadernoak egiten ditudala, baina egiazki, osotasunean, Indian garatu nituen, 2005. urtetik aurrera. Koaderno batzuk kalera ateratzen nituen, beste batzuk etxean lantzen nituen, aldi berean batean baino gehiagotan

lan egiten nuen... Dena eguneroko batean biltzeko aukera bat zen niretzat, oso molde desberdinetan eta oso modu askean sortuz.

Prozesu luzea izan da filma ontzia, hamar urtekoa. Gidoi itxi batekin lan egin duzue, ala asko aldatu da sortuz joan ahala?

Bai, ipuinarekin 2012. urtean egin nuen topo, pentsa. Lehenik, tailer batzuk egin genituen emakumeekin liburuaren eta andreen rolen inguruan, Indian –baita beste bat San Telmo museoa ere–. Eta tailer horien harira hasi ginen pixka bat gehiago zehazten zertaz izango zen filma. Hasieran, pentsatu genuen film bat egitea emakumeen herrialdeari, Rokeya Hossaini eta tailerren esperientziari buruz, bidaia horri guztiari buruz. Bi istorioak oso argi genituen hasieratik, eta gero etorri zen beste alderdi edo hari hori, erdi fikziozkoa erdi erreala dena, fikziozkoa baina esperientzia pertsonaletan ere oinarritua dagoena, eta aldatuz

joan dena urteen poderioz. Izan ere, gauza bat da 2013an irudikatzen duzuna, eta beste gauza bat azkenean 2023an egiten duzuna. Beraz, gidoia haziz joan da, gu geu bezalaxe. Denborarekin, gainera, umotuz doaz begiratzeko modua, elkarrizketak... Beraz, bazegoen bide bat hasieratik, baina aldatuz joan da, bizitza bera bezala.

Zer ikasi duzu bidean?

Bufff [barrez] Denetarik! Liburutik, noski, asko ikasi dut; egunero aurrez aurre izanik mundu alde-rantzikatu hori gogora ekartzen dizun istorio hori, asko kontzientziatu naiz, eta neure burua ikusi dut gizonen begietatik. Asko ikasi dut, baita ere, jendearekin lan egi-



[Film honekin] Uste dut ikasi dudala neure buruari uzten intuizioak eraman nazan apur bat, baita beldurra galtzen ere»

«Film laburra espazio ideala da; pieza labur batean istorio bat kontatu zenezake, askatasun osoz eta esperimentatuz»

teaz, lantalde handi batekin aritzeaz. Ikasi dut, agian, beldur gutxiago izaten, neure burua gehiago irekitzen, gauzei ibiltzen uzten eta ez horrenbeste kontrolatzen; izan ere, animatzaileak kontrolatzaile izugarriak gara [irriz], animazioan ez baita ezer existitzen; dena sortu behar duzu, baita airea ere, eta gure lanbidearen aje moduko bat da. Hau lan luze bat izanik, ezin nuen erabateko kontrol hori izan. Uste dut ikasi dudala eskuzabalaz izaten, neure buruari uzten intuizioak apur bat eraman dezan, eta beldurra galtzen ere bai.

Aurten, Donostiako Zinemaldioko Sail Ofizialean animaziozko hiru film izan dira. Helduentzako animazioa ari da pixkanaka bere lekua eginez, balioetsiz?

Bai, Zinemaldiak hiru lan hautatzea, esaterako, asmoen adierazte bat irudituz zait, animazioari nolabaiteko besarkada bat ematea. Beti izan da bazter samar dabilen anaia hori; ez anaia pobrea, baina bai beste zirkulu eta jaialdi batzuetan mugitu dena. Baita ere, agian, publikoa ez zegoelako horretarako ohitua, eta, beraz, pixkanaka hezi egin behar delako. Batez ere nobela grafikoarekin hazid den belaunaldi honentzat, askoz errazagoa da orain sarbidea, jada badutelako kultura bisual ezberdin bat, eta, beraz, nolabait heziagoak daudelako horretarako.

Zu nolatan animatu zinen animazioa egitera, zerk erakarrita?

Ni bideo artean nenbilen, eta instalazioak-eta egiten nituen. Baina, animazioa deskubritu nuenean, sentitu nuen niretzat oso adierazpide naturala zela, non justifikatu nezakeen egiten nuen oro. Bideo artean edo arte kontzeptualagoan, nire ustez, oraindik ez zegoen diskurtso oso artikulatu bat; aldiz, animazioan bai, dena justifikatzen zen, eta ongi pasatzen nuen. Niretzat oso erraza zen, oso naturala eta oso dibertigarria; horregatik jo nuen animaziora.

Orain arte film laburrak egin dituzu. Horiek ere pixkanaka jasotzen ari dira beste aitortza bat?

Bai. Film laburrak ez dira film luze baten atariko moduko bat: laburrak erabateko askatasun espazioak dira, babestu eta erakutsi beharrekoak, harribitxien gisakoak direlako, ipuin laburren modukoak, eta, askotan, egiteko luze bat bezain zailak edo zailagoak. Ekonomikoki ere, ez ditu luze batek eskatzen dituen datuak behar. Alde horretatik, laburra espazio ideala da; istorio bat kontatu dezake-

zu pieza labur batean, esperimentatuz eta askatasun osoz jardunez.

Eta animazioaren panorama nola ikusten duzu gaur eta hemen? Zer sumatzen duzu faltan animazioa sendotzeko bidean?

Nire ustez, animazioa ikasteko leku gehiago behar dira. EHuko Arte Ederren Fakultatean, adibidez, Bego Vicario, Izibene Oñederra eta Aitor Oñederra eskolak ematen dabilta, baina lauhileko bat izaten da soilik, eta pentsa, halere, zenbat talentu atera den hortik. Oro har, arazo bat izan ohi dugu: ez dugula nahikoa animatzaile izaten, ez dagoela nahikoa jende prestatua, eta formatuta daudenek alde ere egiten dute, Europako beste leku batzuetan hobeto ordaintzen delako. Beraz, formakuntza publiko bat jasotzeko lekuak falta dira, eta industria egonkor bat, etengabe sortzen ariko dena, eta ez aldezkatu gauzak egiten.

Zer beste gairi helduko zenioke orain gustura? Baduzu zerbait esku artuan, edo buruan?

Tira... [barrez] Buruan beti dabilta gauzak. Pintatzen eta pintatzen aritzeko, horretarako dut gogo gehien oraintze. Baina oraindik *Sultanaren ametsa*-rekin gabiltza, eta ez dut tarterik hartu pentsatzeko. Uste dut ongi etorriko zaidala arnasa hartzeko tarte bat hartzea, ez kopiatzeko, oraindik oso kutsatuta bezala baino aurreko guztiaz. Baina buruan beti dabil zerbait borborka.

Chris Offuttek AEBetako barnealdeko herrixketako giro itxietan kokatu ohi ditu bere ipuinak eta eleberriak, gizarte horren ezinegonak, beldurrak eta gatazka partikularrak azaleratzeko nahiarekin.

Kentucky buruan izatea

Mikel Lizarralde

Chris Offuttek (*Lexington*, AEB, 1958) Haldemaren igaro zituen haurtzarora eta gaztaroa, garai hartan berrehun biztanle eskas zituen eta gaur egun desagertuta dagoen meatze herrixka batean. Kentuckyko estatuan. Apalaxte mendien inguru malkartsuan. Handik alde egin zuen 17 urte zituela, lehendabizi unibertsitatera, eta, ondoren, AEBak auto-stopez zeharkatzera, eta urte batzuetan «lan gogor eta beldurgarrietan» aritu zen. Baina gogoak beti eramaten zuen jaio-terria, eta han, Kentuckyn, mendixen inguruan, ohitura zaharrei lotuta segitzen duten biztanleen artean kokatu ditu bere liburuak, 1992an *Kentucky Straight* bere lehen ipuin liburua argitaratu zuenetik. «Kentucky 17 urterekin utzi nuen, baina, egiatan, gurasoengandik ari nintzen ihes egiten. Denbora behar izan nuen, hamar bat urte, ohar-tzeko leku batetik ihesi nindoala, eta horrela ez nuela ezer konponduko. Kentucky neure buruan zegoelako oraindik ere».

Kentucky Straight-ek mahai gainean jarri zituen Offutten idazmoldearen ezaugarri nagusiak. Apaindura gutxiko esaldi labur eta zuzenekin eta pertsonaiaik nahiz lekuak deskribatzeko elementu apur batzuk erabilia, idazleak mundu itxi bat erakusten du, zeinetan ikasketak izatea gaizki ikusia dagoen eta inportanteagoa den ehizari ona izatea.

Ordaz geroztik, ipuingintzaren *Out of the Woods* (1999) –, nobelaren *The Good Brother* (1997), *Country Dark* (2008) –, eta memoria liburuen bitartez *The Same River Twice* (1993), *Heroes: A Memoir of Coming Home* (2002) – itzuli da Offutt Kentuckyra. Azken horien artean ko-

katzen da idazleari oihartzunik handiena eman dion liburua ere, *My Father, the Pornographer* (2016). Lan horretan, izenburuak adierazten duen moduan, aitaren figurari begiratzen dio *Kentucky Straight*-en egileak, Andrew J. Offutti. Zientzia-fikziozko eta fantasiazko liburuen sortzailea izan zen Offutt aita, baina, gainera, literatura erotikoa eta pornografikoa izan zuen idazketa eremu. *My Father, the Pornographer*-en, Offutt semeak Offutt aitarekin izan zuen harreman gatazkatua aletzen du, baina, batez ere, haren izaeran arakutzen du.

Andrew J. Offutt 2013an hil zenean, semea etxera itzuli zen, ama laguntzera, baina, beste ezereen gainetik, hura familiaren bizilekua izan zenetik ateratzeko asmoarekin. Orduan jakin zuen idazmahai bat, errifle bat eta 800 kilo pisatzen zuen material pornografikoa jaso zuela oinordeztan. Eta orduan izan zuen aukera aitak zirriborratutako testuak eta gutunak irakurtzeko, eta, aldi berean, maitatu bai, baina izua ere eragiten zion gizon hura ezagutzeko. «Izugarrria da, baina aitzak uste zuen ikaragarriko talentua zuela, eta amak hori sinesten bukatu zuen», azaldu du idazleak. «Fikzio hori mantentzeko, gurasoak sinestezinak diruditen muturretaraino iritsi ziren, eta amak oraindik ez ditu onartzen iraganekeo hainbat kontu. Oraindik ere, esaten digu haurtzaroko etxera itzuli nahi duela, eta lau seme-alabok, nik barne, ez dugu eraman nahi. Arrazoia oso sinplea da: leku hartan ez ginen zoriontsuak izan. Kentuckyko etxe hartan idago genituen hamabost urteek ederki izorratu zituzten gure bizitzak».

Nobela beltza

Fikzioa lantzen duenean ere, Offuttek Kentuckyra begira jartzen du begia. Haren idatziek, etxean



Chris Offutt idazle estatubatuarra. SANDRA L. DYAS

ekoiztutako alkoholak eta lan gorrak suntsitutako pertsoneri, kontrabandistei, predikatzaileei, pobrezia sozial eta moralari, gerratik iritsi eta ezer ez dutenei eta AEBetako klase sozialen artean azpikoenetan bizi direnei buruz hitz egiten dute.

Ez dira eremu horretatik aldentzen bere azkeneko hiru nobelak, *The Killing Hills* (2021), *Shifty's Boys* eta *Code of the Hills* (2023). Trilogia horrek, dena dela, baditu berezitasun batzuk, hiru lanotan

Haren liburuetan, pertsonaia nagusiak ez dira sentitzen ez hangoz hemengo, desplazatuak dira

nobela beltzaren kodeak erabili baititu Offuttek, nahiz eta berea ez den thrillerraren eredu arketipiko bat. Izan ere, trilogia horretan giza izaerari eta pertsonen sentimendu oinarrikoen buruz mintzo da idazlea, eta ez hainbeste hilketei edo krimenei buruz, horiek ere liburuetako orrietan azaltzen diren arren.

The Killing Hills-en, Mick Hardin gerrako beterano eta armadak Alemanian duen ikerketa

kriminaleko kidea Kentuckyra iritsi da lan baimen bat eskuratuta, haren emaztea erditzearela. Iritsi bezain laster, ordea, haren arreba Lindak – konderriko sheriffa – basoan aurkitu duten emakume baten hilketa argitzeko laguntzeko eskatuko dio. Mickek ahalegin guztiak egingo ditu hiltzailea aurkitzeko, badakielako bestela biktimaren sendiak bere kasa ezarri nahiko duela justizia, eta horrek berak beste hilketa batzuk eragingo dituela.

Liburuak, gainera, Mick eta Lindaren nahiz Mick eta Peggie bere emaztearen arteko harremanetan arakutzen du. Lindak bere burua indartu nahi du sheriff emakume bat mesfidantzaz ikusten duen komunitate batean, eta Mick eta bere emaztearen arteko, berriz, korapilatu egingo da, Peggie espero duen haurra beste aita batena dela jakitean.

Offutten beste liburu batzuk bezala, deserrotzeari buruzko nobela da *The Killing Hills*. Haren liburuetan, pertsonaia nagusiak ez dira sentitzen ez hangoz hemengo, desplazatuak dira leku batean edo bestean egonda ere. Hala gertatzen zaio Mick Hardini, baita *Shifty's*

Boys trilogiako bigarren alean ere. Lan horretan Offutt ez da *The Killing Hills*-en eremu geografiko, sozial eta moraletik aldentzen. Berrito ere, Hardinek arreba lagundu beharko du hilketa bat argitzen; kasu honetan, herrigunean tiroz hil duten droga trafikatzailer batena. Eta aurreko eleberrian bezala, Kentuckyko mendixen pasaie eder bezain malkartsuak protagonismo berezia bereganatuko du.

Gidoigile telebistarako

Garai batean, telebistarako gidoiak idatzi zituen Offuttek (*True Blood*, *Weeds*, *Treme*), baina ez da hori idazlea erakartzen duen langintza bat. «Txekea jasotzeko idatzi nituen gidoiak», aitortu du. «Inoiz ez nuen amets egin gidoi-lari izatearekin, eta, egia esateko, Los Angelesen igaro nuen garaiko oroitzen txarrak besterik ez ditut. Ez dut mundu horrekin zerikusirik izan nahi. Arriskutsua da. Giro toxiko bezain atsegina dago han, eta, gainera, diru kopuru lotsagarria ematen dizute».

Los Angelesetik urrutiti, Missisippin bizi da egun Offutt, baina haren begiradak Kentuckyko herrixkei so segitzen du.

Atzoko oharrak biharko nazioari buruz

Irati Majuelo

Europan barrena abiatu da Joxe Azurmendi filosofo bere azken liburuan. Ez lehen aldiz, Europako pentsamendu tradizioak aski ezagunak baititu idazleak, ezta gai berri eta hausnargabeen bila ere, nazioa eta naziotasuna hartu baititu ardatz. Bizi oso bateko irakurgai eta oharrez baliatuta, zenbaitentzat zaharkitu irudi dezaketen auziez ari da, Zegamako idazleak ohiko duenez, baina, begirada beti gaurko eta etorkizuneko korapiloetan jarrita.

«Bidaiafuzionalismoa deskubritzen da, estatua bezain unibertsala baita». Esaldi ezagunari buelta emanda, lan hau definitze-

ko gakoa ematen du idazleak. Esan bezala, nazioa eta nazionalismoa ditu ikergai liburuak; alabaina, nazio modernoak sortu aurreko *topos* eta errelato nazionalistetan jarri du arreta oraingotan. Hain zuzen ere, Erdi Aroko, Errenazimentuko eta Modernitate-



'Europa bezain zaharra'


Idazlea: Joxe Azurmendi. **Argitaletxea:** Jakin.

tearen hastapenetako gatazka erlijioso-politikoak, barbarizazio prozesuak eta kolonizazioak aztertzerako jo du filosofoak, eta horien bidez agerian jartzen du nazioa ez dela asmazio modernoa, baizik eta garaian-garaian moldatzen doan pentsamendu eta sentimendu multzoa, gizataldeek euren burua pentsatzeko darabiltena, sekulan ez gatazkarik gabea. Hots, nazio modernoak agortze bidean baldin badaude, naziotasunari buruz pentsatzeko bide eta molde berriak behar dira argudiatzen du Azurmendik, nazio modernoan aurretik egon ziren gisan, horien amaierarekin ez baitira nazio-bulkadak agortuko.

Haritz Azurmendik egindako hitzurrean, liburu hau Joxe Azurmendiren ibilbidearekin kontsonantzia eta koherentzia aurkezten da. Ildo horretan, zehaztu behar da ez dela euskal nazioari eta abertzaletasunari buruzko liburu bat. Baina modu batean hori ere bada, euskaldunei eta, oro har, nazio txikiak atxikitako topiko arbuiztaileak era ar-

gian azaleratzen baititu ez-nazionalistak omen diren estatuen sortze mitoetan. Hori hala, gerora Espainia, Frantzia, Italia, Portugal eta Alemaniako nazionalismoetan sinbolo eta mito garrantzitsuak izan direnak aletzen ditu, gaur egunean irauten duten irudi eta sentimenduen jatorria argituz.

Hiruko ezinbestekoa ageri da guztietan: erlijioa, hizkuntza, estatua. Oharrak dira Azurmendiren lehenagaia, urteetan zehar jasotako apunteak, ideiak, hausnarketak. Testua bera horien bidez eraikia da, aipu labur, hitz gutxikoen bilduma bailitzan, sarri erabat gartu gabeko pentsamenduz, irakurleari bide horretan ekiteko bultzada emanez. Askotariko testuek osatzen dute lan honen aberastasuna, bizialdi batean pilatutako jakintzaren lagina erakutsiz: filosofia, historia, arkitektura, literatura... Interesa duenak, marko teoriko bat baino askoz gehiago aurkituko du liburu honetan, betiere Azurmendiren hizkuntza eder eta hizkera berezkoak lagunduta.



'Planeta prekarioran'

Idazlea: Pello Zubiria Kamino. **Ilustratzailea:** Adur Larrea Eguren. **Argitaletxea:** Argia.

Pello Zubiriak 2002tik 2022ra idatzitako ehunka artikuluetako batzuekin osaturiko bilduma da *Planeta prekarioran. XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak*. Kazetariak kontinente denetako gertaerak, bizipenak, datuak eta analisiak jaso ditu, eta Adur Larreak, irudiz jantzi.



'Elkarren lagun, gau eta egun'

Idazlea: Irati Garmendia Aranburu. **Ilustratzailea:** Ane Arzelus Rodriguez. **Argitaletxea:** Erein.

Ortuko bizitza bildumaren zazpigarren ipuina ondu dute Irati Garmendiak eta Ane Arzelusek. Baratzean eta ingurumarietan bizi diren animaliei buruzko istorioa da. Egunez ibiltzen direnei zein gauetz ateratzen direnei erreparatzeko proposa.



'Asterix eta lirio zuria'

Jatorrizkoaren egileak: Fabcaro eta Didier Conrad. **Itzulpena:** Maddalena Arzallus Antia. **Argitaletxea:** Bruño.

Asterixen bildumaren berrogeigarren komikia da *Asterix eta lirio zuria*. Istorio honetan, Julio Zesar atsekabetuta dagio legio erromatarrek borrokarako grina galdu dutela ikusita. Soluzio bila, Viciovirtus *Lirio zuria* guztiarekin egiten du topo.

Urdaneta-1, Lur-1... Mitxelena-16?



Imanol Mercero

Espaziora jaurti zenetik 2022ko maiatzean, Euskal Herrian egindako lehen satelitea dabil espazioan, *Urdaneta-ARMSAT_1* izenarekin. Eta oraintsu iragarri dute bigarrena, *Lur-1* satelitea, datorren urtean orbitaratu du-tela.

Eta zerurantz begira gauden honetan, ezagut dezagun ISS Nazioarteko Espazio Estazioa barrutik, euskarara iritsi zaigun liburu honekin. Azalpen ugari ditu, han dabilen kosmonauten/astro-nauten bizitza nolako den jakiteko, baina baita estazioaren beraren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren erreparatzeko ere. Ezagutza liburua izanik, garrantzitsuena informazioaren antolaketak dela jakinda, iruditu zait eraginkorra dela. Komiki formatuaren dinamismoa aprobetxatuz, gidari rola jokatzen duen as-

tronauta bat dugu, goizean goizetik oheratzeko ordua iritsi arte egun bateko ohikotasunak erakusten dizkiguna, hainbat zehaztasunekin, eta gag umoristikoen bidez.

Honi lotuta, komeni da gogoratzea ez dela Ttartalo argitaletxeak gaiari buruz argitaratutako lehen, hor ditugu *Zerua eta espazioa* (2013), *Nire lehen espaziozko liburua* (2015) eta *Espazioaren esplorazioaren historia* (2016). Ingeles argitalpenetan aipagarriak dira gaiari buruz *Astro Cat* pertsonaiarekin egindako obrak.



'24 ordu espazioan'

Idazlea: Rob Lloyd Jones. **Ilustratzailea:** Laurent Kling. **Itzulpena:** Unai Brea. **Argitaletxea:** Ttartalo.

Geure burua hobeto ezagutzeko



Imanol Mercero

Azpiztitulua *Zutaz hitz egiteko gida inklusiboa* duen liburu hau ez da ipuin bat, ezta aniztasunari gorazarre egiteko ariketa hutsa ere. Dituen 36 orrialdeak argudio zientifikoak eta akademikoak eskaintzen ditu, nagusiki norbere identitatea eraikitzen ari den edonork (gu guztiok barne) ohiko parametro hertsia baxtertu eta identitatearen kontzientzia irizpide zabalagoetan gartzeko.

Lezioak ematek urrun, egitate aski ebidentek proposatzen dizkigu, bizi dugun aniztasunaz jabetu gaitetzen, eta, hartara, inor desberdintzat jo aurretik denak pertsona izatearekin berdintzen garelako onartuz, pertsona bakoitzak bere-bereak diren ezaugarriak dituela ohartu gaitzen.

Liburu hiru atal nagusi haue-tan banatu dute: (1) zientzia, (2) gizartea eta (3) *zer egin dezakegu*.

Gainera, hala esaten ez badute ere, aniztasuna hiru multzotan biltzen dute: aniztasun funtzionala, aniztasun fisikoa eta genero-sexu aniztasuna. Eta hirutan banatzen dituzte ere aniztasunaren sorrarazleak: genetika, ingurune faktoreak, eta sozial zein kulturalak direnak.

Amaierako atalean aktibismoaren alde egiten dute, norbere burua denean errespetatzea aldarrikatzeko eta aniztasuna gizar-te aldarrikapena izan behar dela azpimarratzeko.



'Gorputz guztiak dira ederrak'

Idazlea: Beth Cox. **Ilustratzailea:** Samantha Meredith. **Itzulpena:** Maddalena Arzelus Antia. **Argitaletxea:** Ttartalo.



Romy Madley-Croftek Romy izenpean sinatu du bere bakarkako lehenengo diskoa. VIC LENTAIGNE

Romy Madley-Croft, The XX taldeko kidea, dantzarako ereserki z betetako disko batekin estreinatu da bakarlarri gisa: 'Mid Air'. Bere nerabezaroko musika omendu nahi izan du.

Dantza emozionala

Mikel Lizarralde

Jamie XX izan zen lehenengo, 2015ean *In Colour* argitaratu zuenean. Iaz, berriz, Oliver Sim estreinatu zen *Hideous Bastard*-ekin, eta, azkenik, joan den astean, The XX taldeko hirugarren erpinak, Romy Madley-Croftek (Londres, 1989), bere bakarkako lehenengo diskoa

argitaratu du, Romy izenpean: *Mid Air*.

Ez da, zehazki, Romyren estreinaldia, 2020an, pandemia betean, *Lifetime* dantzarako ereserki kaleratu eta berehalakoan oihartzun handia izan baitzuen. Ordu-rako, Romy zaildua zegoen pop izarrentzako kantuak sortzen –besteak beste, Dua Lipa eta King Princessentzat idatzi izan du–, baina une horretan ikusi zuen

argi bere ahotsa egokia izan zitekeela bere konposizioak zabaltzeko. «Bakarkako proiektuari ekiteko akuilu nagusia izan zen gauza berriak probatzea. Nire erosotasunetik aterako ninduen zerbait egin nahi nuen». The XX-ekin landutako pop ilunetik alde egin nahi zuen, eta dance musikaren eremuan erabat murgildu. «Lasai asko egin nezakeen gitarrarekin jotako balada disko bat,

baina segurtasun gehiegirekin emandako pauso bat izango zatekeen hori. Neure barnean, ordea, zerbaitek kontrako norabidean eramaten ninduen, gustatzen zaidan beste eremu batera, dance musikara, alegia».

Izan ere, dantzarako musikarekin hazi zen musikari ingeles XXI. mendearen hasieran. 2000ko hamarkadaren erdialdean hasi zen dantzalekuetara joaten, eta orduan jaso zuen musika guztiak eragin handia izan du haren lanean. «Musika hori entzutea, klubetan dantzatzea eta gero kasetetan grabatzea nire nerabezaroren parte izan zen», azaldu du *Rockdelux* musika atariari emandako elkarrizketa batean. «Nigan asko eragin zuen The Ghetto izeneko klub *queer* batek. Han pop musika euforiko eta izugarria entzuten nuen. Dance eta

trance musika zen [...], niretzat oso dibertigarria, eta betirako geratu zen nirekin».

Mid Air, hain zuzen ere, klub horiei egindako omenaldia da, dantzarako pieza distiratsuak, melodiaz beteak, eskaintzen dituena. Eta, hala ere, ez da norabide bakarreko albuma, eta bere 11 kantuen artean, dantzarako musikaren hainbat aldaera jorratzeko aukera izan du musikari ingelesak. Horri lotuta, nabarmentzekoa da diskoan hainbat ekoizlek parte hartu dutela: Fred Again, Stuart Price, Koreless eta Avalon Emerson.

Loveher hasierako kantuak, bere house pianoko zertzeladekin, dance malenkoniatsuaren eremuan kokatzen du Romy, bere disko dantzagarrietan *Everything But The Girl* bikoteak egin izan duenarengandik ez oso urruti. Fred Againein landu zuen aurreneko kantua izan zen. «Elkar ezagutu genuenean, bai bera bai ni beste batzuentzako kantuak ari ginen konposatzen. Baina behin, beste artista batentzako kantu bat sortu, eta norbaitek galdetu zidan: 'Ziur zaudete kantua eman nahi duzula?'. Hortik sortu zen *Loveher*». Romyrentzat hasiera bat izan zen kantu hori, eta horregatik jarri du diskoaren hasieran. «Nahi nuen jarraitzaileek disko hau sortzeko abiatu nuen bidaian segi nazaten».

Maitasunaren eragina

Romyk 19 urterekin ezagutu zuen Vic Lentaigine argazkilaria eta zinemagilea, eta, urte batzuetan aldentuta egon ziren arren, diskoa prestatzen hasi baino lehen, euren arteko harremanari berrekin zioten. «Berrito elkartu ginenean, gure harremanaren hasieran elkartu gintuzten musika haiek guztiak berriro entzuten hasi ginen. Hori inspirazio handia izan zen: nola elkartu nintzen berriro ere harekin, batzen gintuen musika, nola maitemindu ginen ostera ere... Horrek guztiak eragin zuena izan du albumean».



GEROA HEMEN, solas sorta.

Udazkeneko gaia: "Intimitatea"

EIEk antolatuta BBK Kuna babesari esker.

Data: azaroaren 14an, arratsaldeko 19:00etan, Bilboko BBK Kuna espazioan.


Partaideak: Miren Agur Meabe, Xabier Gantzarain eta Goizalde Landabaso (moderatzailea)

Babeslea: **kuna**
bbk

Sarrera doakoa da - izen emotea komunika@idazleak.eus helbidean.

EIE Euskal Idazleen Elkarteak

GEROA
HEMEN
Amesubi sines



THE FLESHTONES

Zuzenean hazten den rock-and-rolla

Non: Gasteizko Helldorado aretoan
Noiz: Larunbatean, 21:00etan.

Orain dela 47 urte sortu zuten, New Yorkeko Queens auzoan, The Fleshtones taldea, hiria musika oldarraldi betean zegoela, eta, gaur egun, hamarkadak

igaro eta hamaika musika estilo indarrez agertu eta gero itzalduz joan diren honetan, segitzen du taldeak sasoi betean. Peter Zaremback (ahotsa, ahosoinua eta organoa) eta Keith Streng (gitarra) 1976tik gidatzen duten bandak rock-and-rolla eta garage-rocka izan ditu beti ardatz, baina haren musikan soulak nahiz popak ere lekua dute. Estilo horien nahasketatik sortzen den proposamen bizi, eta, batez ere, euforikoa da The Fleshtonesena.

Taldeak zuzenean ematen du bere onena, eta Euskal Herrian urte hauetan guztietan eman duen kontzertu mordo da horren erakusle, baina segitzen du diskoak grabatzen ere. Azkena, 2020koa da: *Face Of The Screaming Werewolf*.

Weird Omen eta King Salami & The Cumberland 3 ariko dira lehendabizi.

Ondare poliedrikoa

Julen Azpitarte

Alemaniako Glitterhouse diskoetxeak urteak daramatza The Gun Club taldeko buru izandako Jeffrey Lee Pierce musikari estatubatuararen ondarea duintasunez berreskuratzen, ezagutarazten eta omentzen, hainbat musikaririk parte hartzen duten bilduma sendoen bidez. Orain arte lau grabazio bikoitz plazaratu ditu *The Jeffrey Lee Pierce Sessions Project* izenburu orokorraren pean: *We Are Only Riders* (2009), *The Journey Is Long* (2012), *Axels & Sockets* (2014), eta aurren argitaratutako *The Task Has Overwhelmed Us*.

Disko horietan Jeffrey Lee Pierceren edo The Gun Club taldearen unibertsoaren inguruan aritu diren musikariek parte hartu dute, hala nola Kid Congo Powersek, Nick Cavek, Mick Harveyk eta Debbie Harryk, baina baita hastapenetatik estatubatuarrekiko miresmena erakutsi duten musikari gazteagoek ere, Mark Lanegan kasurako. Horiekin batera, ustez The Gun Clubeko liderrarekin zerikusirik ez duten musikari ere agertu dira zerrenda luze horietan, tartean, Dave Gahan britaniarra.

Hain justu, Depeche Mode taldeko buruaren moldaketarekin abiatzen da Jeffrey Leeren omenez kaleratu berri den laugarren ale hau. *Miami* (1982) The Gun Cluben bigarren laneko *Mother Earth* kantu esanguratsua aukeratu du Gahanek, eta bete-betean asmatu du: Nick Caveren sonoritateetara gerturatzen da, emakumezko koroak eta biolina lagun



Askoren artean
The Task Has Overwhelmed Us.
The Jeffrey Lee Pierce Sessions Project

Diskoetxea: Glitterhouse.

dituela. «Tristuraren ibaian behera joan naiz/ oinazearen ibaian behera joan naiz/ ilunpetan alabreen azpian/ nire izena esaten entzun ditut» bertso ezagunekin hasten da doinua, eta Gahanek maisuki egin ditu bereak, britainiarren ahots baritonoa tarteko.

Guztira, hemezortzi doinu biltzen dira lan bikoitzean, eta emaitza askotarikoa da, ez bakarrik egitasmoan parte hartu duten musikariren aniztasunagatik, baita Pierceren eta The Gun Cluben ondare hibridoak (blues, rockabilly, post-punk, pop...) askotariko moldaketak ahalbidetzen dituelako ere. Hala, The Coathangers taldeak *La La Los Angeles* garage-rock eremura eramatu du; Hugo Race australiarrek *Tiger Girl* blues zingiraren lokaztu du; Nick Cavek eta Debbie Harrysek (Blondie) osatutako bikoteak *On The Other Side* Vietnamgo gerraren aurkako aienea margoztu du; orainsu zendutako The Pop Groupeko Mark Stewartek *Vodou Blues* kubista jaso du...

Sorpresa handienak diskoaren azken zatian azaleratzen dira: *spoken-word* diziplinatik gertu dagoen *Time Drains Away*, Lydia Lunchen ahotsarekin, Jim Jarmusch zinemagilearen gitarrarekin eta Josef Van Wissemenek lautearekin osatua; eta azken abestia, *The Las Vegas Story* (1984) diskoan jasotako *Bad America*, zeinetan Sendelica talde galestar psikodelikoa Dynamax Roberts rap musikariarekin eta Wonder Schneider house abeslariarekin ari den lankidetzan, The Gun Cluben oihartzuna elektronikaz zartzatzeraino.



Sara Zozaia
'Nara'

Diskoetxea: Balaunka.

Ihintza Orbegozo

Bilaburren ondoren, lehen lan luzea argitaratzearen espektatibak ez ziren makalak Sara Zozairengan inguruan. Bada, argi-

taratu berri duen *Nara*-k aise gaudituz ditu guztiak, eta hamar abestietan argi-ilunak etengabe ageri dira. Lehendik ere ezaugarri nabarmena izan du iluntasuna artistak, eta honako honetan ere ezinbestean aipatu beharreko elementua da, baina itxaropenari begira ere sortu duela esan daiteke. Hitzetan nostalgia asko egonagatik, esperantza dezentekoak dira etorriko denari begira, eta doinueta ere gauza bera nabari daiteke, melodia malenkonia-tsuak alaiagoekin nahastean baitira, jada aurrerapen kantuetan ikusi ahal izan dugun bezala. Estreinaldi borobila da lan luze hau, urteko esanguratsuenetako bat, zinez.



Ricardo Ribeiro
'Terra que vale o ceu'

Diskoetxea: Warner Portugal.

Andoni Tolosa

Disko hau hamaikagarren kantua entzuten hasiz gero (*Terras dum Mar Interior*), ia esperimentatziotik hurbil dabilen artista bat irudikatuko duzue, eta baita haren ahots ahaltsuak eskuratu ditzakeen lurraldeak ere. Baina, hori horrela izanda ere, kantari portugaldarrak fadoaren erroetara jotzen du, baita bere ibilbideko zazpigarren disko honetan ere. Ez da ilusio huts bat, ez, Barreiro jaunak gaitasuna baitu horretarako, eta, era berean, oilo larrua jarriko dizun eta, Atlantikoaren ordez, Mediterraneo aldera begiratzen duen kantu sorta eder hau ontzeko.

ERROTA
HORTZ KLINIKA

ZURE AHO OSASUNAREN ZAINZAILEAK

Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

Bilbo Zaharra EUSKALTEGIA

FORUM 2023 - 2024

Azaroaren 17an, ostirala 19:00etan

LABORAL AUSA

Bilbo **Bizkaia**

www.bilbozaharra.eus/forum

Mikel Urdangarin

Bilbao - New York - Bilbao

Sarrera doan



Iruri Altzerreka, Xabat Gallettebeitia eta Aitor Etxebarriazarraga, Berrizen atzo egindako saioan. RAUL BOGAJO / FOKU

Ibilian ibili... Miribillan izango da Xabat Gallettebeitia

Gallettebeitiak lortu du Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalerako lehen txartela, Berrizen jokaturako lehen finalaurrekoan • Zortziko txikikoak izan dira bertsoaldi biribilenak

Oihana Arana *Berriz*

Garaino bete zen atzo Berrizko Olakueta frontoia 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehen finalerdian. Pankartadun pareta bi eta jendez lepo hirugarrena. 550 entzule inguru bertso gosez eta bertsolariak nor bere helburuak ongi markatuta. Agurretan esandakoaren harira, gehientsuenek finala zuten burua, baina baita norbere alea uztea eta gozatea ere. Azkenean, Xabat Gallettebeitia nagusitu zen.

Itxaro Juaristiren esanetara ekin zioten saioari zortziko handian. Gorka Pagonabarraga eta Iruri Altzerreka eskola jazarpena pairatzen duen umearen gurasoak izan ziren, eta umea eskolaz aldatzeko proposamena egin zuen Altzerrekak. Fin aritu ziren institutuak duen «erantzunkizuna» seinatu ala alabaren ongizatea lehenetsi erabakitzen.

Gallettebeitiak eta Aitor Etxebarriazarragak egindakoa izan zen,

ordea, ariketarik txalotuena. 70 urteko bi lagunena azaletik kantatu zuten. Biak seminario berean ikasitakoak eta umetan sexu abusuak jasandakoak. Horiak salatzeko proposamena egin zion Etxebarriazarragak Gallettebeitiari. Zalantziati hasi zuen ofizioa Gallettebeitiak: «Egin beharko genuke baina/ ez dakit kapaza naitzen». Salaketaren bidez oraindik afera horrekin kontzientziatuta ez dagoen jendea haien borrokara batu dezaketela esan zion Etxebarriazarragak, eta honela amaitu zuen ariketa: «Behintzat sufridu gendun danori/ mina arinduko deusku».

Zortziko txikikoak izan ziren bertsoaldi biribilenak. Koldo Gezuragak eta Pagonabarragak ekin zioten ariketari. Gezuraga erreka ondoan ahatei ogi birrinak botatzen zegoela Pagonabarraga azaldu zen madalena zatiak botatzen. «Konpetentzia desleiala» leporatu zion Gezuragak lehen bertsoan eta eztabaidan aritu os-

tean, ahateak labean erretra jan nahi dituelako zaintzen dituela aitortu zion kideak.

Etxebarriazarraga eta Eneko Abasolo *Abarkas*-en txanda izan zen gero. Obrako langilea lehena eta aldamiolan lanean ari den bitartean ardoa eskaintzen dion bizilaguna bigarrena. Ardoa hartu

Gallettebeitiak eta Etxebarriazarragak egindakoa izan zen ariketarik txalotuena, sexu abusuei buruzkoa

ez hartu zebilela, honakoa kantatu zuen: «Koño jefea dator/ neu ikuskatzeko/ behintzat fruta aterra/ disimulatzen». Eta honako ideiarekin itxi zuen ariketa Abarkasek: «Alboan utzi fruta/ ta hartu okela/ ondo bete egizu/ behingoan sabela/ lehen esan deuste bere/ semea zarella».

Plaza lehertzea eragin zuen ofizioa, orde, Altzerreka eta Gallettebeitiaren artekoa izan zen. Bikotea izan ziren, Altzerrek udal

hauteskundeetan alkatetzara aurkeztu eta bozka bakarra jaso duenaren papera jokatu zuen. Lehen bertsoan argi utzi zuen Altzerrek bozka bakar hori berea zela. Zorrotz erantzun zion Gallettebeitiak haren botorik jaso ez izana bere errua dela esanez, boto papera emazteak prestatu ziola argudiatuz.

Honela erantzun zion Altzerrekak: «Udaletxean itxi/ zidaten atea/ baina etxe honetan/ neu naiz alkatea». Gallettebeitiak argi adierazi zuen badakiela bera ez dela «etxeo Arnaldo», baina argi gelditu dela inork ez duela maite berak baino gehiago. Berak bere burua gehiago maite duela esan zuen Altzerrekak, eta hurrengo hauteskundeetan Madriren aurkezteko esan zion Gallettebeitiak.

Hamarreko txikian ere ez zen falta izan txalo egiteko arrazoirik. Gaztete berria okupatu zuen gazte taldekoa izan zen Abarkas,

SAILKAPENA

ATZOKO SAIOA

1. Xabat Gallettebeitia	616,5 puntu
2. Gorka Pagonabarraga	604 pt.
3. Aitor Etxebarriazarraga	585,5 pt.
4. Eneko Abasolo	550,5 pt.
5. Koldo Gezuraga	549,5 pt.
6. Iruri Altzerreka	548,5 pt.

HURRENGO SAIOA

Azaroaren 18n (17:00ean)

Santurtziko Serantes kultur aretoa. Sei bertsolari hauek arituko dira, datorren larunbatean, bigarren finalaurrekoan: Aitor Bizkarra, Bittor Altube, Jone Uria, Mikel Goriarena, Txaber Altube eta Unai Mendiburu.

zeina Pagonabarraga bizilagunari proiektua azaltzera gerturatu zaion. Honela amaitu zuen ariketa Abarkasek: «ta kontatu nahi dugu/ laguna zurekin/ etorri ta ikusi/ zure begiekin». Auzolana duten hurrengoan urdiazpikoa eramango diela esanez biribildu zuen ariketa Pagonabarragak.

Ganbarako ariketa heldu zen azkenik. Bakoitza bere amamari kontuak esaten aritu ziren puntu erantzunetan eta honakoa izan zen bakarkako gaia: «Inoiz ez jatzu zilegi iruditu. Orain asko maite dozun norbaitek egin dau».

Askotariko gaiak

Askotariko ideiak izan zituzten bertsolariek. Aita alkarearen influentziak lana lortu duen lagunari buruz kantatu zuen Abarkasek. Ertzain izateko asmoa duen lagunari buruz, Gezuragak. Lanetik bota duen nagusiari kantatu zion Pagonabarragak. Amari adarrak jarri dizkion aitari Altzerrekak. Sexu eraso bat egin duen lagunari Gallettebeitiak eta Olentzeroren harira haurrari gezurra esan dion emazteari Etxebarriazarragak.

Txalo asko jaso zituen Gezuragak. Modu honetara amaitu zuen ariketa: «Ondo dakizu gure herri hau/ bi bandoen herria da/ lubakiaren alde banatan/ lagun izango al gara?».

Etxebarriazarragak amaierako agurrean aipatu zuen bezala, semaforo horian zain jarraituko dute Gallettebeitia ez beste bertsolariek, finalerako aukeraren zain. Atzoko saioan, Abarkasek agur esan zion txapelketari, 25 urteko ibilbidea egin ostean. Txalo zaparrada handiarekin omendu zuten. Datorren asteko larunbatean izango da bigarren finalerdia, Santurtzin.

ARTEA ETA ERAKUSKETAK



HEMEN DRAGOIAK DAUDE
MIKEL OTXOTEKO
ARTEA ABIAN
San Telmo Museoa (Laborategia)
Urtarrilaren 7a arte

GAUR

ARTISTA LIBURUARI
BURUZKO VIII. TOPAKETAK
San Telmo Museoa (Eliza)
Azaroak 17-19



**MIKEL LABOA...
IZAN LITEKE KONSTELAZIO,
IZAN GABE IZAR...**
LITERAKTUM
Okendo K.E.
Azaroak 15 - Urtarrilak 27



**EUSKAL IRUDIGILEAK,
20 URTE**
Aiete K.E.
Azaroaren 26a arte

GAUR

**BRUIXES -
SORGINAK - BRUJAS**
AKELARRE
ILUSTRATUA
Liburutegi Nagusia
(San Jeronimo)
Azaroaren 12a arte

AZKEN
EGUNA

ANTZERKIA



TU-TUM, PLATZ!
JON PLAZAOLA
Antzoki Zaharra
Azaroak 12. 19:30
● euskara

GAUR



TOTO
HIKA TEATROA
LITERAKTUM
Imanol Larzabal (Lugaritz)
Azaroak 19. 19:00
● euskara

LA LUCHA POR LA VIDA
ARRIAGA ANTZOKIA,
TEATRO ESPAÑOL
Victoria Eugenia
Azaroak 23. 19:30
● gaztelania

LA PROFESORA
ISABEL ORDAZ
MARCIAL ÁLVAREZ
Antzoki Zaharra
Azaroak 24. 19:30
● gaztelania

POSTDATARIK
GABEKO GUTUNAK
XAKE PRODUKZIOAK
Gazteszena (Egia)
Azaroa 25-26 Noviembre. 19:30
● euskara

LITERATURA



LITERAKTUM
Donostia
Azaroak 13-26
literaktum.eus

DANTZA



VAV
COMPAÑÍA DANIEL ABREU
Victoria Eugenia
Azaroak 25. 19:30

ZINEMA

ITSASPEKO ZINEMAREN
47. NAZIOARTEKO ZIKLOA
Antzoki Zaharra
Azaroak 16-18
www.cimasub.com

LES CHIENS (1979)
NOSFERATU
Tabakalera
Azaroak 17. 19:00
● français, azpituak euskaraz

PENTSAMENDUA


**ASKE SURFEATU,
ASKE SENTITU,
ASKE DISFRUTATU ETA
GUSTORA JARDUN**
Emakumeak* Surflari dokumentala
Okendo K.E.
Azaroak 17. 18:30
● euskara + gaztelania

MUSIKA



MICHAEL ARIVONY
BARITONOA
FRANZ SCHUBERT
Victoria Eugenia Club
Azaroak 12. 19:00

GAUR



TROUBLE IN TAHITI,
LEONARD BERNSTEIN
DONOSTIA MUSIKA
Victoria Eugenia
Azaroak 17-18. 19:30

**LUIS BONILLA:
EXPLODING PIG**
Victoria Eugenia Club
Azaroak 19. 19:00

**CHRIS POTTER CIRCUITS TRIO:
SUNRISE REPRISE**
Victoria Eugenia Club
Azaroak 22. 19:30

ANONYME POPULAR
IGOR ELORTZA, RAFA RUEDA
XXIII. Bertso Aroa
Larratxo K.E.
Azaroak 24
● euskara

Seigarren txapelaren bila

Julio Sotok irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalurrekoa eta finalean arituko da beste behin ere • Behin betiko seikoa datorren astean zehaztuko da

liñigo Satrustegi Herria

Agoitzeko finalurrekoa irabazita, Julio Sotok lortu du Iruñeko Anaitasunan jokatu den finaleko pasea. Saioa Alkazarri batu zaio, beraz, eskuratutako 543,5 puntuak jasota eta seigarrenez eskuratu ahaliko du garailearen txapela. Atzetik segitu diote Xabat Ilarregik (529,5), Julen Zelaietak (458), Ekain Alegrek (457,5), Urko Gartzia (445) eta Idoia Granizok (409,5). Datorren asteke, saioaren ostean osatuko da lehian arituko den seikoaren zerrenda.

Ekain Alegrek ireki zuen saioa eta argi zuen hasieratik hauxe zuela Iruñera salto egiteko «azken bala». Idoiak txapelketarekiko zuen «bertigoa» adierazi zuen. Bere duen moduan, barreak eragin zituen lehen bertsoalditik bertatik Zelaietak: «Azaroaren hamaka da gaur/ eta hemen da jakina/ txerri guztiei heltzen zaiela/ noizbait bere Sanmartina». Urkok plaza bere aldeko zuen eta zaleek oin eta puntu bakoitza txalotu eta ospatu zutne Agoitzeko kultur etxean.

Zortziko handian Ilarregi eta Gartzia tanatoestetika espezialistaren paperean jarri zituen Maialen Belarrak. Familiak zer pentsatuko urduri zeuden. Ilarregik ardua agerikoa adierazi zuen: «familiakin ez da erraza/ egiten dugun lan dena/ bizi osorako izan dezaten/ bere irudirik onena». Inoiz elkarri makilatu behar izatez ere mintzatu ziren.

Amaierako agurren txandan txalo zaparrada jaso zuen Granizok, lehiakideei emakume izen-abizenak jarrita

Alegrek Sotori liburu bat utzi zion, eta buelta erabat zirriborrata itzuli zion Sotok. Zortziko txilkiko ofizioek umorera jotzen dute, eta bikoak ez zuen hutsik egin. Tirabiraren ostean, Altsasukoak hala bota zion lehiakideari: «Geratu zaitez honekin/ gaurkoan lasai/ liburua zuretzat/ ez dut gehiago nahi». Ezinesku hutsik utzi laguna, eta trukean beste bat eskaini zion Sotok: Biblia.

Bikote berriak eratu zituzten hamarreko ofiziorako eta ale ederrak utzi zituzten bertsolariak he-

men ere. Ilarregi eta Alegre sorosleak, Aita Mari ontzian laguntzailer izateko aukeraz, Ilarregik zailantza: «Baina Ekain ez dakit/ hainbeste nezakeen/ Hor indarra bakarrik ez da aske izaten». Baserria uzteko proposamena errefusatu zion Gartzia Sotori. Hogei urteko harremanaren ondoren zaintzaren premia duten harrerako haurren bat hartzekotan egon ziren Zelaieta eta Granizo, baina aukeran, gaiaren fokua gehiago jarri zuten beren harremanean haurrengan baino.

Puntuak ariketak tupperxera eraman zituen entzuleak lehenik. Mallorcara bidean diren anaiek maleta bakarrean zer sartu aritu ziren, eta irriz lehertu zen plaza, tangak eta kondoiak tarteko. Tiropitxoiko eskopetariak ere

SAILKAPENA

ATZOKO SAIOA

1. Julio Soto	543,5 puntu
2. Xabat Ilarregi	529,5 pt.
3. Julen Zelaieta	458,0 pt.
4. Ekain Alegre	457,5 pt.
5. Urko Gartzia	445,0 pt.
6. Idoia Granizo	409,5 pt.

HURRENGO SAIOA

Azaroaren 19an (17:30ean)

Lesakako frontoian. Sei bertsolari hauek arituko dira, datorren larunbatean, hirugarren eta azkeneko finalurrekoan: Beñat Astiz, Eki Mateorena, Eneko Lazkoz, Joannes Ilarregi, Josu Sanjurjo eta Mikel Lasarte.

igo ziren oholtzara, peluxea lortu nahian, baina alferrik, «30 tiro ez dira balde», eta bakar batek ere ez zuen jo txotxa.

Kantuak gogora

Belarrak banan-banan eskaini ziren ganbaratik zetozen bertsolari bakarka abesteko gaia: «Kantua entzun duzunean momentu goxo hura etorri zaizu burura».

Zozketak erabakitako ordenaren arabera, Alegreri egokitu zitzaion lehen aritzea. Bere istorioan, orain 40 urte talde bat osatu zuen lagunekin batera, baina utzita zutela ulertarazi zuen. Gaztetxera sartu zenean entzun zuen bera kide zen taldearen abesti bat, eta orduko sasoiak gogoratu zituen. Granizok entzuleei kantatu zien berari jaioberritan nola, hark

ere Uxue alaba jaioberriri ere abesti bat jartzen ziola sehaskan: «ze ederra metafora/ hasi naizela pentsatzen/ ze errepikak bezala/ bizitza errepikatzen».

Irratian Ave Maria entzun zuen, eta halaxe agurtu omen zuten ere «*abuela Maria*». Gertuko agurrak ez direla zertan laztak izan behar aldarrikatu zuen Sotok, eta irudi eta metaforen artean txalo zaparrada jaso zuen.

Izarren hautsa kantuari tiraka aritu ziren Zelaieta eta Ilarregi, bide ezberdinetatik, ordea. Zelaietak 2008ko txapelketan kantatutako doinuagatik ekarri zuen. Leitzarrak, berriz, aitonaaren heriotzaz geroztik entzun ez zuen kanta zelako. Hildakoaren oroimenez, Deskontrol taldearen *Beti gaude elkarrekin* izan zen Gartziairen heldulekua.

Amaierako agurren txandan, berriz, nabarmen ospatu zuten Agoitzera bertaratutakoek Idoia Granizorena: txapelketako emakumezko lehiakideei izen abizenak jarri zizkien eta «egiturazko minetik» askatzeko bertsoaren askatasuna aldarrikatu zuen.



Julio Soto, Agoitzeko finalurreko kanporaketan, larunbatean, Agoitzen. AITOR KARASATORRE / FOKU

'Hondamendia' obrak gustura utzi ditu altsasuarra

ALTSASU • *Hondamendia* antzezlanak Altsasuko (Nafarroa) lortia kulturegunea izan zuen eszenatokian atzo, bertako udalak, **BERRIAK** eta Sakanako Mankomunitateak egindako antolaketan lanari esker.

Arkaitz Canoren idatzian oinarritua, pandemia eta Zaldibarko zabortegiko drama ditu ardatz, eta Axut eta Artedrama taldeetako antzezleek gorpuzten dute, Ximun Fuchszen zuzendaritzapean.

Hurrengo saioa Hiriburun (Lapurdi) izango da, azaroaren 17an. Egun bat geroago, berri, Ortaizen (Nafarroa Beherea) antzetzuko dute.



Hondamendia antzeziana Altsasuko lortia kulturegunean taularatu zen atzo. AITOR KARASATORRE/FOKU

Azaroaren 16an inauguratuko da Labo XL jaialdia

DONOSTIA • Labo XL Donostia-ko Espazio eta Hizkuntza Eszeniko Berrien Jaialdiak bosgarren aldian du aurtengoa. Azaroaren 16tik hasi eta 19ra bitartean, dantza, antzerki nahiz zirku garaikidez eta beste hainbat jardun osagarri beteko du egitaraua.

Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, jaialdiaren kartelari aurpegia jarri dion artistak protagonismoa hartuko du inaugurazioko ekitaldian, 16an. Horrenbestez, Ainhoa Usandizaga dantzariak orain arte estreinatutako gabeko dantza pieza garaikide bat eskainiko die bertaratuakoei, *Bihar* izenburupean.

berria lagun iragarleak



aiadek

Pinturen fabrikazioa • Zuzeneko salmenta
Neurrira egindako kolore aukera paregabea

Industrialdea - 60-62 pab. • BENTAK auzoa - 20300 IRUN
Tel.: 943-63 39 46 • Faxa: 943-62 04 11 • www.aiadek.com



mujika
dolkiak

zuekin 1963tik

Nafarroa Etorbidea, 31
BEASAIN
tel. 943-88 04 88

Kale Nagusia, 16
ORDIZIA
tel. 943-88 18 32

MONTEFRIO

Goiburua bailara, 46
Montefrio baserria • URNIETA (Gipuzkoa)
943-55 71 58 • 679 66 79 34
agroturismontefrio@hotmail.com
www.agroturismontefrio.es

EGUBERRI... BERRIENAK.
Mari Domingoren
errepublika
magikoa

Abenduaren
1etik 17ra

Sarrerak
maridomingi.eus



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



berria




ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Eduki itzalita aire-girogailua etxean edo gelan inor ez dagoenean.



Eguraldia



GAUR

Hodeitza saretuz

Goizean goiz hodei zaparrada batzuk botako ditu. Alabaina, goizean bertan atertu egingo du, eta eguerditik aurrera erdi eta goi mailako hodeiak nagusituko dira, eta ostarteak zabaldu. Mendebaldeko haizea ibiliko da, eta arratsaldean ahuldutz joango da. Tenperatura beroenak 17-21 gradu artekoak izango dira.


ITSASOA

Mendebal ukituko haizea ibiliko da, 3-4ko indarrarekin; arratsaldean, indarra galduko du, eta norabide aldatzea izango du. Itsaso kizkurra edo itsaskirria izango dira, eta goizean itsaskiko guneak. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2-2.5 metro inguruko olatuak altxatuko ditu.

ITSASALDIA ORDUA METROAK

Itsasgora	03:32	4,05
Itsasbehera	09:35	1
Itsasgora	15:47	4,09
Itsasbehera	21:55	0,92

ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:01	17:51

ILARGIA	EGUNA
Ilberria	Bihar
Ilgora	Azaroak 20, astelehena
Ilbetea	Azaroak 27, astelehena
Ilbehera	Abenduak 5, asteartea

BIHAR

Hego haizea eta giro epela

Hego haizea ibiliko da; haize lekuetan harrotuta ibiliko da, eta tenperatura beroenak ia udaberriko balioetara iritsiko dira; 20 eta 23 gradu artean kokatuko dira ipar partean, eta 20 gradutik behera geldituko dira hegoaldean. Erdi mailako hodeiak eta goi hodeiak saretuta iritsiko dira, eta tarteka ostarteak irekiko dira.

HAMAIKA

07:00: Hamaika 24. 07:30: Pandoraren kutxa. 08:30: Miru. 10:30: Hamaika 24. 11:00: Zozoak beleari. 11:30: Zuzeneko Lurrarna azokatik. 12:30: Musika zuzenean. 13:00: Ama eme ume. 13:30: Bizi musika. 14:00: Araba gaur. 14:30: Bikografiak. 15:30: 11 leiho. 16:30: Bizi musika. 17:00: Musika zuzenean. 17:30: Hamaika 24. 18:00: Ama eme ume. 18:30: Hamaika 24. 19:00: Zozoak beleari. 19:30: Hamaika 24. 20:00: Banda zabalda. 21:00: Harri salda. 22:00: Kolpez kolpe. 23:30: Banda zabalda. 00:30: Hamaika 24.

ETB 1

06:25: Marrazki bizidunak. 08:00: 3 Ene kantak. 09:05: Iparledearen orena. 09:35: Bizi berria. 09:50: Egi bidean. 10:00: Meza. 10:50: Atletismoa: Behobia - Donostia. 14:00: Gaur egun. 14:50: Eguraldia. 15:05: Hitzetik hotzera. 16:10: Herri kirolak. Urrezko Aizkolariak. 17:00: Pilota. ETB Kantxa. Agirre - Eskiroz / Salaberria - Tolosa. Jaka - Peña II.a. 20:00: Gaur egun. 20:50: Eguraldia. 21:05: Piztu telebista. 22:00: Zlandia. 23:30: Sukaldaria.

ETB 3

07:35: Golazen. 08:30: Zuhaitz ebeko istorioak. 08:40: Raa Raa lehoi orrolaria. 09:00: Ipuin txiki, soinu handi. 09:10: Helenaren eskola txikia. 09:30: 3 ene kantak. 10:30: Super Dino. 10:55: Remy eta Boo. 11:15: Milo. 11:35: Otsoko. 11:50: Tib eta Tumtum. 12:15: Ernest eta Rebeka. 12:45: Doraemon. 13:10: Jeremy Super Karibu. 13:30: Pingu hirian. 13:40: Mini ninjak. 14:10: Aberezoak. 14:25: Squish. 14:45: Idefix eta menderakaitzak. 15:05: Robin Hood. 15:30: Zorionak. 15:35: Zinema. Valhallako kondaria: Thor. 2011. 16:50: Bat Pat. 17:05: Presto! magia eskola. 17:15: Ahizpak. 17:35: Oum, izurde zuria. 18:05: Gormiti. 18:25: Kaleko futbolak. 18:50: Andu berandu. 19:15: Doraemon. 20:00: Zorionak. 20:05: Pan Tau. 20:30: Gadget inspektorea. 20:50: Lake-bottom kanpamentua. 21:30: Mutil neska txakur katu sagu gazta. 21:55: Lan bitxiak. 22:15: Rocket Monkeys. 23:00: Dave Spuden munde kaskara. 23:20: Danger mouse. 23:40: George oihanekoa.

KANALDUDE

13:00: Harri salda. 17:40: Ikusi Makusi: Asisko Urmeneta. 21:15: EHZ 2023 - FM Belfast. 22:25: Taldeakako Xilaba 2023 - Bigarren erdifinala.

Hollywood
10:40: Hot Shots. 12:05: Space Jam. 13:40: Rompedientes. 15:25: Matrix. 17:40: Matrix Reloaded. 19:50: Matrix Revolutions. 22:05: Daño colateral.

AMC
12:00: Johnny English Returns. 13:45: Nomadland. 15:40: Contrareloj. 17:20: Las últimas horas. 18:50: Los Mercenarios 2. 20:30: Crónica de un engaño. 22:10: La sombra del poder.

euskaltel

ETB 2

09:00: Palabra de ley. 09:35: Vascos por el mundo. 10:30: EITB kultura. 11:00: Sustrai. 11:35: Teknopolis. 12:05: La caza. 13:50: Atrápame si puedes finde. 14:58: Teleberri. 15:35: Kirolak. 16:05: Eguraldia. 16:25: Inspektor Marleau. 20:00: Asesinato en el norte. 21:00: Teleberri. 22:25: Vascos por el mundo.

ETB 4

09:00: A ver si no llueve. 10:10: De lo bueno lo mejor. 11:00: Del país de los vascos. 13:40: Robin Food. 15:25: Juego de cartas. 17:55: Eskubaloia. Sola HK - Bera Bera. 19:35: Vascos por el mundo. 20:10: De lo bueno lo mejor. 20:50: Yo sé mas que tú. 21:30: Atrápame si puedes finde. 22:20: Jolentel las galas.

La 1

10:45: Masterchef celebrity. 14:00: Viaje al centro de la tele. 14:30: Corazón. 15:00: Albistek. 16:00: Zinema. 27 vestidos. 2008. 17:40: Zinema. Recuerdos navideños. 2018. 19:10: Zinema. Una pizca de amor. 2020. 20:35: Aquí la tierra. 21:00: Albistek. 22:05: Zinema. El justiciero. 2018. 23:40: Zinema. Jungla de cristal. La venganza. 1995.

La 2

10:30: El día del Señor. 11:30: Pueblo de Dios. 12:00: Ruralitas. 13:00: Flash moda. 13:30: RTVE responde. 14:00: Zoom tendencias. 14:35: Las recetas de Julie. 15:35: Saber y ganar fin de semana. 16:15: Dokumental. 19:35: Cuaderno de campo. 20:05: Un país mágico. 21:05: De seda y hierro. 21:40: Imprescindibles. 22:45: Zinema. La isla interior. 2009.

Antena 3

08:20: Los más. 10:10: Centímetros cúbicos. 10:45: Los más. 11:15: The Floor. 12:45: La cocina abierta de Karlos Argiñano. 13:50: La ruleta de la suerte. 15:00: Albistek. 16:00: Zinema. Navidad en la casa Bramble. 2017. 17:50: Zinema. Un regalo para recordar. 2018. 19:30: Zinema. Navidad en Manhattan. 2013. 21:00: Albistek. 21:45: Kirolak. 22:10: Secretos de familia.

Tele 5

10:15: Got Talent España. 13:15: Socialité. 15:00: Albistek. 16:00: Fiesta. 21:00: Albistek. 22:00: Gran Hermano VIP. El debate.

La Sexta

08:30: Como el perro y el gato. 09:00: ¿Qué me pasa, doctor?. 10:10: Zapeando. 11:30: Equipo de investigación. 14:00: La Sexta noticias. 15:30: La roca. 20:00: Albistek. 21:30: Salvados.

Cuatro

09:30: Volando voy. 11:00: Viajeros Cuatro. 13:55: Cuatro al día. 14:55: Eldesmarque Cuatro. 15:25: Eguraldia. 15:40: Zinema. Al rojo vivo. 1998. 17:50: Zinema. Los ríos de color púrpura. 2000. 19:55: Cuatro al día. 20:19: Albistek. 20:50: Eldesmarque Cuatro. 21:15: First Dates. 21:30: Cuarto milenio.

TF1

09:55: Automoto. 11:00: Telefoot. 11:50: Les douze coups de midi!. 13:00: Journal. 13:40: Grands reportages. 14:50: Reportages découverte. 16:15: Star Academy, la quotidienne. 17:20: Sept à huit life. 18:20: Sept à huit. 20:00: Journal. 21:10: Zinema. Un homme en colère. 2021. 23:20: Zinema. Fast & Furious 8. 2017.

France 2

08:30: Les chemins de la foi. 12:00: Tout le monde veut prendre sa place. 13:00: Journal. 13:20: 13:15, le dimanche. 15:05: Affaires sensibles. 16:05: Un dimanche à la campagne. 17:45: En banque organisée. 18:35: Les enfants de la télé. 20:00: Journal. 20:30: 20h30, le dimanche. 21:10: Zinema. Night and Day. 2010. 23:00: Beau geste.

France 3

10:35: Nous, les Européens. 11:25: Dimanche en politique dans votre région. 11:55: Dimanche en politique. 12:35: Ici 12/13. 12:55: Les nouveaux nomades. 13:30: Vivement dimanche. 15:10: Charles Trenet l'enchanteur. 17:10: Des chiffres et des lettres. 17:55: Le grand slam. 19:10: Le 19/20. 20:10: Stade 2. 21:10: Professeur T. 23:35: Agatha Raisin.

Maitasunaren denbora

Ez dira garai onenak erromantizismoak. Beharbada horregatik gaur dakartzadan bi podcastetako egileek maitasunaz hitz egitea erabaki dute bakoitzaren denboraldien lehen ataletan. Ez dute ia ezaugarri komunik; ordea, gai bera aukeratzeko harataz, bien arteko lotura egin dut.

Azaroaren 2an, *Iufl!* izeneko saioa estreinatu zuen EITBK, Iban Garcia eta Maite Azpiatzuren es-

kutik. Errepikakorra den formatua du: bi pertsonaren arteko elkarrizketa informala da, non ohiko bizitzako gaiak umorez eta lehen pertsonan azaltzen dituzten. Bi esatarien arteko harremana da bitxieta, ama-semeak baitira. Reality eta sare sozialetan ezagunak, bizitzari buruz hitz egingo dute hamabi ataletan, batzuetan gonbidatu batekin solasean, bestetan entzuleen galderari erantzunez. Betiere, berezko ikuspe-

gitik. Elkarrizketen lagunarteko tonua indartzeko akaso, gazte-razko esamoldeak tartekatzen dituzte etengabe –lagun batek zioen moduan, egoera informalean euskarak baliabide nahikorik eskainiko ez balu bezala–.

Espainiako Estatuan ugaritzen ari diren saio mota horien arrakasta pertsonaiengan datza; are gehiago, haien komunikazio gaitasunean. Batzuetan zaila egiten zait ulertzea zergatik batzuk *influencer* edo eragile bihurtzen diren, eta beste asko bidean gertatzen diren. Atzean dagoen ekoizpen lana ikusi gabe, ikasleek ereduizat hartzen dituzte saio horiek, eta ez zurrungoak eta aspergarriagoak iruditzen zai-



IRRATIA
Arantza Gutierrez

kien informazioari edo kulturari buruzkoak.

Beste saio batekin lotu dut aurrekoa. «Amodioz blai» abiatu dute OLBEk egiten duen *Opera Prima* saioaren bigarren denboraldia, eta, maitasunaz hitz egiteko, Romeo eta Julietaren istorioa ekarri digute gogora, Gounod-en

izenburuko operari helduta. Enrique Bertek eta Naomi Mendizabalek gidaturiko saio horretaz ez dago, ordea, bat-bateko solasaldirako tarte handirik, eta horregatik hizkuntzaren erabilera formala da, gidoi eta soinu multai landuen gainean guztia.

Maitasunak ekarri nau bietara, baina paralelismo gehiago topatu ditut haien artean: biak ekoiztetxeek eginak dira, ezohiko irrati estudioan; irrati parrilatik at entzuta mota jakin bati zuzendua, gizon-emakumeek aurkeztuak, ez dira ordu erdiko iraupenera heldzen... Eta biak entzun ditut atsegin handiz, informazio saioak menez eta heriotzaz beteta dagoen garaian.

Euskal Saileko websail onena: 'El último mono'

Seriesland jaialdian eman diote saria, Bilboko Guggenheim museoa • Nazioarteko zenbait zinema lehiaketatan emango dute websaila

Iraia Vieira Gil

Bilboko Seriesland lehiaketan lehen aldiz parte hartu zutenean, jaialdia gauzatzeko lan boluntarioak egiten hasi ziren Lander Mugika eta Unai Madariaga *El último mono* websaileko zuzendariak. Ikus-entzuzeko edukia eta askotariko sortzaileen lanak publikotik miresten aritu dira urte luzez, aurtin lehiakide izateko erabakia hartu duten arte. Eta aprobetxatu dute hautua: Euskal Sailean lan onenaren saria eman diete. Ostiralean jaso zuten saria, Bilboko Guggenheim museoa antolatuta zuten sari banaketan.

Beste bost websailekin lehiatu da *El último mono* Sail Onenaren Saria lortzeko. *Beita*; *Belarri bero*, *bai esan?*; *Explorando el norte*; *Tanit*, *ilargikar erregina* eta *Oskola* lanekin, hain zuzen ere. Laboral Kutxa bankuak babestu ditu Euskal Saileko sariak, eta, pieza sinbolikoa entregatzeaz gain, Die Seriale Alemaniako websailen jaialdian haien sorkuntza aurkezteko aukera eman die Mugikari eta Madariagari. Era berean, Torontoko (Kanada), Erromako, Hollywoodeko (AEB)

eta Minnesotako (AEB) zinema jaialdian aurkeztuko dute.

Indie generoan inspiratutako Amets saria irabazteko ere proposatu zuten *El último mono* websaila, baina, azkenean, ez du kategoria horretan inolako aitortpenik jaso. Ordea, *Retro* Frantziako ekoizpenari eskaini diote saria. 1992an Parisera joan eta arrakasta artistikoaren bila dabilzan bi lagunentzako abentura kontatzen du sail horrek.

Rose of Dolls jaialdiaren sortzaile eta zuzendariak zehaztu du «igerileku» izan nahi dutela euren. «Euskal Herriko eduki sortzaileak gudan murgildu daitezene». Harago ere heldu nahi dute: «Streaming plataformetan

'Explorando el norte' eta 'Oskola' dokumentalak Miamin eta Hollywoodean izango dira laster, AEBetan

tokirik ez dutenen tranpolina izan nahi dugu, nazioartera salto egin dezaten».

Izan ere, *El último mono* ez da Euskal Herriko kanpo emango duten Serieslandeko websail bakarra. *Explorando el norte* doku-



'El último mono' websaileko egileak, saria jasotzen, atzo. IRMA CERRÓ

mentalean egindako lanagatik, Aurkezle Onenaren Saria eman diote Alex Urdiales sortzaileari. Horrekin batera, Torontoko eta Miamiko (AEB) ikus-entzuzeko jaialdian aurkeztu ahal izango du bere obra. Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko iparraldeko paisaiak aurkeztu ditu bere dokumentalak, eta naturaren zaintzaren eta edertasunaren garrantzia erakutsi nahi dio ikusleari.

Euskaraz aritzen diren Gasteizko musikariak elkarrizketatu ditu Urko Saenz de Buruagak, eta dokumental itxura eman die grabaketa horiei. Ez du aitortpen ofizialik jaso Seriesland jaialdian, baina bere lana Hollywoodeko zinema festivalera eramateko aukera eman diote. *Oskola* du izenburu.

Maitasunaren bizi aldaketa sarituaren oinarri

Aitor du izena *El último mono* websaileko protagonistak. Artista izan nahiko luke, baina ez du gizarte harremanak garatzeko trebeziarik. Bat-batean, bere bizitza guztia aldatuko duen zerbaite gertatuko zaio: nahiko berezia den gazte batekin maiteminduko da. Gazteak ez dio kasurik egingo, eta, guztiz etsita, lan munduan lehen urratsak egiteko erabakia hartuko du. Azken orduko hautuak, arazoak konpondu ordez, arazo gehiago emango dizkio. Aitorren istorioa kontatzen du Serieslandeko sail irabazleatiko batek.

Euskal Sailetik at, bestelako sariak ere banatu ditu epaimahaik aurtin ere. *Decolonizing History* 2 eta *Missing* saioek, adibidez, Dokumental Onenaren Saria jaso dute. *Magical Caresses*-ek, berriz, Entertainemenduzko Programarik Onenaren Saria jaso du. Epaimahaia hitzetan, berriz, *No One Around* lana izan da Sail Ofizialeko sormen lanik onena.

Websailez gain, hainbat podcasten lana ere aitortu du Serieslandeko epaimahaik. *Lethal Lit: A Tig Torres Mystery* saioko bigarren denboraldia izendatu dute Fikziozko Podcast Onena, eta *National Enchographic* programak jaso du Ez-fikziozko Podcast Onenaren Saria.

Aurtengo sariak banatuta, hurrengo urtean berriz ere jaialdia antolatzeko asmoa adierazi dute jaialdiaren arduradunek.

Amaia Igartua Aristondo Bilbo

Sortzeko patxada, eta sortu gabe egoteko lasaitasuna, merkatuaren eskakizunetatik aske: helburu hori lortu du Mizel Theret (Hazparne, Lapurdi, 1959) dantzari eta koreografoak. Haren usatez, poesia da agertoki batean egoteko baldintza, eta poesia sor liteke birtuosismorik gabe, mugimendu gutxiarekin. 2011n, 50-60 urteko ibilbidea zuten hiru maisu dantzari jarri zituen *Oroitzan naiz* koreografian, eta entseguen grabaketekin ondutako dokumentalari aurkeztu du berriki Bilbon, Fundicion aretoan.

Hasieran, dantza festa giroari lotuta zegoen zuretzat, Hazparnen.

Ene lehen oroitzapenak euskal dantzarekin izan dira. 11 urterekin, euskal dantza ikasten hasi nintzen Hiriburuko [Lapurdi] talde batean. 17-18 urterekin, Etorri dantza taldean sartu nintzen. Bospasei urte egin nituen; momentu hartan, kasik profesionalak ginen, eta ibili ginen munduan zehar, hala nola Ipar Ameriketara, Kanadara, Mexikora... Erran nezake ene motibazioa, garai hartan, hori zela: bidaiatzea.

Gero, dantza garaikidera jo zenuen. Zerk erakarri zintuen?

Dantzarekiko beste kontzeptzio batzuk ezagutzea inportantea zen. Euskal dantza menperatzen nuen, eta beste arlo bat deskubritu nahi nuen; dantza garaikidea biziki libre sentitzen nuen. Hala ere, baste batean utzi nuen euskal dantza, eta dantza garaikidea ikasten hasi nintzen.

Pariserara joan zinen dantza garaikidean formatzera. Zer giro zegoen?

Ikusgarri anitz ikusten nituen. Garai hori biziki aberatsa izan zen enetako, talde konpainia anitz sortu baitziren Frantzian. Eta korronte bat ere sortu zen: *La nouvelle danse française*; dantza frantses berria. Koreografoek bazuten helburu bat: haien estilo propioa atzematea. Denbora hartan ezagutu nituen maisuak, amerikanoak bereziki: Merce Cunningham, Trisha Brown, Alemaniatik etorritako Pina Bausch... Eta Frantzian sortutako hainbat koreografo. Eta hasi nintzen ene lanak egiten. Xedea zen euskal dantza eta dantza garaikidea uztartzea.

Nola ateratu zen?

Hamar urtez, sorkuntza zorkuntza ibili nintzen, hibridazio lan hori egiten. Baina konturatu nintzen aterabiderik gabeko gauza zela, ze nahasketak ez zuten funtzionatzen enetako; ez nuen kau-

«Ekoizpenaren munduan, presente egon behar duzu beti»

Mizel Theret • Dantzaria eta koreografoa

Euskal kultura da Thereten abiapuntua, eta dantza garaikidearen bidez lantzen du. Minimalistak dira haren piezak, eta sentitu behar dira, ez ulertu. «Dantzaren misterioa hausten baduzu, lana itotzen duzu».

sitzen manera. Deliberatu nuen euskal dantza bazter batean uztea, eta bakarrik garaikidea egitea, baina beti atxikiz lotura bat euskal kulturarekin.

Uztartekak zer harrera izan zuten?

Harrera nahiko ona, publikoaren partetik. Enetako, behar zen menperatu biziki ontsa bai euskal dantza, bai dantza garaikidea. Sentitzen dut euskal dantza ez dela errazki ezkontzen besteekin, zeren biziki kodifikatua da; nik kode horiek hautsi nahi nituen. Orain, talde batzuk ari dira, baina segidan nabaritzen da non hasten eta finitzen den euskal dantza. Horregatik baztertu nuen.

Nola islatzen da euskal kultura zure piezetan?

Adibidez: gustatzen zait euskal pilota. Hartu nuen jestua [besoaren], eta testuinguru gutzia kendu nion: partidari ez duzu, frontoirik ere ez duzu ikusten... Hartu nuen elementu koreografiko bat bezala; hasi nintzen testura batzuk atzematen... Abstrakzioan sartzen naiz, baina abiapuntua euskal kulturako elementu bat da. Gero, ene libertate osoarekin, beste gauza bat egiten dut horrekin. Badut beste proiektu bat; 2025erako, espero dut. Baliatuko dut euskara: grabaketa anitz egin ditut, baina eni bakarrik soinu interesatzen zait, ez esanahia; ko-

reografia bat sortu nahi dut soinuarekin bakarrik.

Erabili izan dituzu beste diziplina batzuk ere koreografiak sortzeko: Oskar Alegriaren *Hotza* filma (2018), adibidez. Beste euskarrietatik abiatuta, nola proiektatzen duzu koreografia? Saiatzen naiz bide pertsonala egiten, nahiz eta eraginak hori diren. Zinema festival batean ikusi nuen Oskar Alegriaren film labur hori, eta hunkitua izan nintzen segidan. Zer bait egin behar nuen. Ene baitan, zer harreman izan dezaket film horrekin? Badira paisaia batzuk, ezagutzen ditudanak... Zer egin horrekin? Biziki zaila izan zen, baina ikusten nuen fil-

mean isiltasuna biziki inportantea zela, baita soiltasuna ere; bazirudien basamortu batean ginela, elurrezko basamortu batean. Eta enetako bazen segidan oihartzun bat ene lanarekin; ze nire lana da, gero eta gehiago, arrunt minimalista; nirea da jestu gutxioko dantza bat. Aldiz, Oskar Alegriaren film laburrean bada narrazio bat; ni ez nintzen hor sartu. Orduan, zer interesatzen zait? Bakarrik soiltasuna, isiltasuna, basamortua...

Nola dantzatzen da isiltasuna?

Eni asko gustatzen zait isiltasuna. Isiltasuna eta gelditasuna. Mugimendu gabeko momentu batzuk izan behar dira ene kreaioetan. Isiltasunarekin badut harreman





MARISOL RAMIREZ / FOKU

berezi bat, behar baitut. Ez zait gustatzen gaur egun dugun bizitza frenetikoa. Isiltasuna ez da enetako huts bat; osoa da. Isiltasuna eta gelditasuna elkarrekin doaz: isiltasun baten ondotik egiten duzu jestu bat, eta gaitzeko oihartzun bat hartzen du. Interesatzen zait nola betetzen diren isiltasuna eta gelditasuna, eta horren ondotik nola hasten den lehen mugimendua.

Zergatik erabaki zenuen minimalismora jotzea?

Konturatu nintzen momentu batzuetan ene dantza estudioan jesterik gabe gelditzen nintzela; orenak eta orenak. Irudimenak funtzionatzen zuen, baina jestuak ez

ziren heltzen gorputzera errazki. Seinale bat izan zen: ez du balio denbora eta espazio guztia jestuz eta mugimenduz betetzeak. Zer behar dut? Hasten naiz mugimenduekin, landuz eta landuz. Eta, azkenean, geratzen da kasik deus ere, baina deus hori biziki gustatzen zait. Hori publikoari pasarazi behar diozu, eta hori da problema; nire lana bazter batean kokatzen da, ez da batera ikusgarria. Harremena atzeman behar dut publikoarekin.

Nola?

Irekia bada sartzeko, bikain; baina aurreiritzi batzuekin badaude, edo ulertzeko nahiarekin, ez da posible. Ene lana sentsazioen bi-

dez errezipitzen duzu, ez gogoarekin. Enetako, dantza arrunt misteriotsua da. Eta hausten baduzu misterio hori, esplikatuz, itotzen duzu lana. Anitzek konprenitu nahi dute.

Teknikak zer garrantzi eduki behar du?

Bistan da: teknirik gabe, ez da posible. Baina teknika ez da agertu behar lehen planoan. Eta anitzek hori egiten dute: haien balentria erakutsi nahi dute, gai dirrela zernahi gauza egiteko. Enetako, dantzaren funtzioa da publikoaren irudimena piztea, hori bakarrik; sentsazio batzuk pasaraztea, eta deus gehiago ez.

Garai batean dantza baztertu zenuen. Zergatik?

Kasik zortzi urtez egon nintzen kanpoan, deus jakin gabe mundu horretaz; behar bat sentitzen nuen. Lehenago, kasik urtero, sorkuntza bat egiten nuen. Ilusio anitzekin; baina nekagarria zen. Eta ez nuen gaitasunik kreazio berri bat egiteko; halere, egin behar zen. Ekoizpenaren mundua holakoa da: desagertzen baldin bazara hiru urtez, desagertu zara; presente egon behar duzu egun guztiz; zozokeria bat da, baina hala da. Ez baduzu sorkuntzarik egiten, ez duzu diru laguntzarik errezipitzen. Gaietarik, sorkuntza egin eta gero, bospasei emanaldi genituen, gehienik. Orain ere ez da aldatu.

Nobedadeak eskatzen dira beti?

Bai; bestela, desagertzen zara, eta beste batzuek zure lekua hartzen dute. Mekanismoa biziki perbertsoa da. Behar nuen motibazio berri bat ukan, eta erritmo horrekin hautsi. Bon, posible da, baina beste lan bat ukanez; bestela, zertaz bizi zara? Beste lan bat atzeman nuen, eta banuen denbora gehiago sortzeko. Baina kosta zait oreka hori atzematea. Nik ezagutzen ditut sortzaile batzuk kasik depresioan. Eta Euskal Herri honetan, gauza zailagoa da: diru laguntzak jasotzen dituzu zure sorkuntza gauzatzeko, eta, gero, hedapenerako, deus ere ez. Estreinalditik kanpo, amildegi bat. Dantzarekiko kulturarik ez da; antzoki gehienatan, programatzaileek ez dute deus ezagutzen. Errazena egiten dute: zerbait komertziala bada, hartzen dute, seguru dira antzokia beteko dutela.

2011n, konpainia bat sortu zenuen, Johanna Etxeberrirekin batera: Traverse. Beste bide batzuei ekiteko?

Johanna Etxeberrri da pedagogo, baita dantzaria eta koreografoa ere. Nahi zuen pedagogikoki lan bat garatu, eskoletan. Eta ene al-

detik, sorkuntzak egin nahi nituen, baina ildo minimalista segituz. Beti lotura bat ukanez euskal kulturarekin, baina idazkera garaikide batekin. Horretan gara oraino. Hausnarketa anitz izan ditugu, espazioaren eta denboraren arteko kudeaketari buruz. Biziki inportanteak dira parametro horiek. Asko landu ditugu, bereziki denbora. Batzuetan, bost segundok irauten dute minutu batek bezainbat; eta, aldiz, minutu bat iruditzen zaizu bost segundo. Jorko hori biziki interesgarria da guretako. Denbora biziki erlatiboa da. Baina gure lehentasuna hori da, denboraren kudeaketa.

Denboraren pertzepzio horretan espazioak nola jokutzen du?

Loturik daude. Ezarri behar duzu mugimendua espazio eta denbora batean. Dantzariak bere inguruan zabalitzen duen espazioa: hori da guretako inportanteena.



Euskal dantza ez da errazki ezkontzen besteekin, zeren biziki kodifikatua da; nik kode horiek hautsi nahi nituen»

«Enetako, dantzaren funtzioa da publikoaren irudimena piztea, hori bakarrik; sentsazio batzuk pasaraztea»

«Euskal Herrian, badira dantzari profesional oso onak; koreografoak, ez hainbeste. Hori da gure drama»

Oroimena ere lantzen duzue, ezta?

Oroimena da nozio bat pieza guztiak zeharkatzen dituen. Bai oroimen individuala, baina baita kolektiboa ere. Azken pieza da bakar dantza bat, 25 minutukoa, eta musika da Mikel Laboaren *Komunikazio-Inkomunikazio*. Aspalditik ezagutzen nuen musika hori, baina biziki bitxia zen enetako; zerbait egin nahi nuen, baina ezin nuen hari bat atzeman. Ez nuen esan nahi musikak dioen ber gauza; disoziazio bat lortu nahi nuen. Eta ez da horrela egin behar Mikel Laboarekin: onartu behar duzu bere musika, erritmoa... Adiskide zarelarik, posible da; haren kontra joatea ez da posible.

Oroitzen naiz piezaren dokumentala aurkeztu duzu Bilboko Fundicion aretoan. 2011n egin zenuen koreografia.

Pieza hori hiru artista famatutan oinarritzen da: Jean Nesprias, Philippe Oihanburu eta Koldo Zabala. Bakoitzak bazuen bere dantza taldea, eta bakoitzak de-

fenditzen zuen bere arloa; desadostasun artistikoak eta politikokoak baziren elkarren artean. Orduan, ene lehen xedea zen ea posible zen elkartzeta, agertokian. Ados ziren hirurak. Haurridetasun momentu hori gertatu zen. Eta banuen beste xede bat, artistikoagoa: hainbeste urte pasatuta dantza munduan, zertaz oiroitzen da gorputza? Zer atxiki duzue? Hori zen ene galdera orokorra. Eta azpian beste galdera batzuk zeuden. Izan behar zara gaztea, indartsua, ahaltsua, bertuosoa... agertokian egiteko? Enetako, ez.

Zer aurkitu zenuen?

Deskubritze izugarria izan zen. Ohartu nintzen gaitzeko poesia jalgitzen zela mugimendu guztietatik; aski zuten beso bat altxatzea, eta mundu oso bat irekitzen zen. Eta orduan deliberatu nuen guti egitea; ez ziren gai mugimendu anitz egiteko. Baina guti horrek izan behar zuen zehaztasunez bete. Eta hola gertatu zen. Bi hilabetez egon ginen entseatzten, eta bi bideogilek segitu zuten sorkuntza prozesua. Dokumentalean ez dituzte nekezia fisiokoak gordetzen, ez: hor dirra. Baina umorea ere hor da, bizinahia... Baitkortasunez bete da dokumentala.

Kezka bat dago dantzaren inguruan: gero eta mutil gutxiago daude. Zuk igarri duzu?

Bistan dena: mutiko gutxiago daude, bai. Euskal dantzari, ez duzu ukatzen ahal. Eta gero eta gehiago, neskek hartzen dute mutilek hartzen zuten rola. Amateur mundu horretan, gero eta gutxiago daude. Baina goi mailako ikasketetan, badaude. Baionako kontserbatorioan, mutikoak hamar baino gutxiago daude; neskek, ehunka. Baina Parisko kontserbatorioan, zernahi daude; Lyoneko kontserbatorioan ere, zernahi.

Nola dago dantza Euskal Herrian, oro har?

Euskal Herrian, badira dantzari profesional oso onak; koreografoak, ez hainbeste. Hori da gure drama. Euskal dantzaren eta dantza garaikidearen panorama nahiko aberatsa da. Adibidez, sortzaile anitz dantzari biziki trebeak dira, biziki ontsa formatuak teknikoki; zernahi talde daude, zernahi ikusgarri... Baikor gertzen naiz. Baina bada gauza bat arrunt bitxia, enetako: koreograforik hobereenek ez dute behar luketen lekua, beren lana saltzen ez dutelako.



30.000 pertsonak parte hartuko dute gaur Behobia-Donostia lasterketan, eta asteburuan nabaritu da hirian: txoko guztietan zeuden Euskal Herriko eta kanpoko lasterkariak.

Dortsala dute altxortzat

Ane Insausti Barandiaran
Donostia

Lerro eten batek zeharkatzen du altxorraren mapa; kolore gorrikoa da, eta abiapuntua eta helmuga X handi batez markatuak ditu: Irungo (Gipuzkoa) Behobia da abiapuntua, eta Donostiako Bulebarra helmuga. Behobia-Donostia lasterketako kamisetako marrazkia da, Behobiaren bila baita aurten lasterketarako aukeratutako leloa. Altxorra bilatzearekin egin dute jolas antolatzaileek, altxortzat baitaude askok lasterketa, eta, bide batez, urtez urte proba girotu duen piratari egin diote keinu.

30.000 lagunek parte hartuko dute gaur hoge kilometroko lasterketan. Gaur ez ezik, ordea, asteburu osoan nabaritu da Donostian jende oldea: dortsala bila joan

Aurten, inoiz baino emakume gehiagok egingo dute lasterketa. Guztira, parte hartzaileen ia %30 izango dira

dako jendeak ilara luzea osatzen zuen atzo eguerdian Kurasaalean, eta inguruan ere jende ugari zebilen azken entrenamenduak egiten. Gainera, asteburua Donostian igarotzeko aitzakia izan da korrikalari askorentzat.

Euskal Herriko kanpoko korri-

kalari asko erakartzen ditu Behobia-Donostiak. Aurten, korrikalarien %65, zehazki. *I run with Leiv* taldekoak, adibidez, Terrasatik (Herralde Katalanak) joan dira Donostiara. Jaume Leiva da haien entrenatzailea, lasterketan bi bider gailendu den korrikalaria. Urtero antolatzen du bidai Leivak, eta aurten berrogei lagun animatu dituela kontatu du Jose Luis Hernandezek: «Mundu guztiak hitz egin dit lasterketaz. Denek esaten dutenez, azkenean etorri behar!». Mireia Serrak, berriz, bigarrenez hartuko du parte. «Oso dibertigarria da. Animazioa, giroa... Bakarrik egiten da; jendeak eramaten zaitu», txalotu du.

Maratoi erdia ez da txantxetarako kontua, ordea, eta lasterketa «gogorra» dela jakitun hartuko du parte Jorge Garay madrildarra (Espainia), lehen aldiz. «Korrika egitea gustatzen zait, talde batean izena emanda nago, eta bertan nahikoa ezaguna da lasterketa hau», esan du. Gogotsu dago proba egiteko, eta hasi da urduritasuna nabaritzen. «Zinez» entrenatu dela azaldu du: «Urtebete daramat entrenatzen, eta hiru hilabete entrenamendu espezifikokoak egiten».

Kurasaala atzean utzi, eta Donostia bisitatzeko baliatu dute as-

★ ATZEKOZ AURRERA



Jendetza ibili zen atzo eguerdian Kurasaal inguruan, han jaso baitzituzten dortsalak. GORKA RUBIO / FOKU



Korrikalariak, atzo, dortsalak hartzen. GORKA RUBIO / FOKU

teburua korrikalari ugari. «Behobia-Donostia, 1919» dioten telazko poltsek salatzen dituzte Parte Zaharreko dendetan, tabernetan, edo loteria erosten duten bitartean. Anoetako estadio txikian, berriz, Behobia Txikia egin dute haurrek. Denek izan nahi dute lasterketaren parte; denek gozatu nahi dute altxorraz.

Inoiz baino andre gehiago

Aurten, inoiz baino emakume gehiagok egingo dute lasterketa. Parte hartzaileen ia %30 izango dira. Horieta bi dira Marta Juvanteny eta Nuria Sala. Olot eta Sant Joan les Fontsetik (Herralde Katalanak) bertaratu dira hurrenez hurren; Juvantenyk hirugarren aldia du, eta Salak, bigarrena. «Aparta delako errepikatzen dugu. Jendeak animatu egiten du une oro, eta korrika arizaren ordu eta erdia edo bi orduak ziztu bizian pasatzen dira. Ez duzu behar musika entzungailurik ere!», nabarmendu du Juvantenyk.